

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA



2014-05-16
EGUBAKOITZA
596. ZENBAKIA
14. URTEA
DOAKOA
GOIENA.NET
TOKIKOM

Euspot-en sari nagusia, erdi bana aurten

Lanen kalitatearen erakusgarri da izan den berdinketa | 32

"Umeak gozatu egiten du ikasten duenean"

Rafael Cristobal | 6
Medikuntzan doktorea | 6



GEHIGARRIA, BARRUAN

Autoen gaineko orrialde bereziak | 19



Joseba Larrinagaren omenez krosa jokatu dute etzi | 31



Mendia eta artaldeak utzi eta herrira doa Elgetako azken artzaina | 11



Irene eta Lur; Anartz eta Tino; Argi, Olatz eta Roxi; Aimar eta Gardel; Ainhoa Billar (trebatzailea); eta Ibai, Haritz eta Pirata, Oñatin.

OÑATI, TXAKURREN BERTUTEEN ERAKUSLEIHO

Txakurraren Eguna antolatu dute domekarako; haien trebeziak, txakur terapeutak, ondo hezitutakoak, jinkana eta beste iragarri dituzte | 15

MIREIA ARREGI

Erlojuaren kontra borrokatuz, Bergaran estreinatuko da Gipuzkoako Itzulia

Estreinako aldia du aurten txirindularitzako Gipuzkoako Itzulia. Eta estreinakoa Bergaran egingo dute gaur (egubakoitza) arratsaldean izango den erlojupekoarekin. Antolatzaileek 100 ziklista inguru espero dituzte, Euskal Herriko emakumezko onenak, besteak beste. | 30

SINADURAK



Asaben memoria | 8
ARANTZAZ OTADUY

8 | Astebururako plana
MIRIAN BITERI

Debagoienaren Eguna | 40
MIKEL IRIZAR

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 8
ELKARRIZKETA 6 | HERRIAK 11 | KIROLA 30
KULTURA 32 | ZURE IRAGARKIAK 35
TELEBISTA-IRRATIA 36 | EZKONTZAK 36
ESKELAK 37 | NON-ZER 38

HARIRA SAIOA | GOIENA TELEBISTA

"Gatzaren salmentaren negozioa berreskuratzeko lanean dihardugu"

EUGENIO OTSOA Leintz
Gatzagako alkatea | 28



Europako Batasuna, debagoienarren begietatik

Europaz galdetu diegu atzerrian bizi diren hainbati | 2



943 71 48 45

Hemen GARBIKETAK

www.hemen-garbiketak.com

Zure konfiantzako garbiketa enpresa

Mantentze garbiketak, obra amaierakoak eta garbiketa orokorrak:

- Bulego eta lokalak
- Jabeen erkidegoak, garajeak
- Lokal komertzialak, azalera handiko saltokiak, hotelak eta enpresak
- Eraikin instituzionalak, eskolak, kiroldegiak, anbulatorioak, eta abar.

Intxaurtxueta 16 Behea • ESKORIATZA • hemen@hemen-garbiketak.com

Europako Batasuneko herrialdeetatik begiratuta, nola ikusten da Europa?

Atzerrian bizi diren debagoiendarrek azaldu dizkigute batekoak eta besteak; Parlamentuaren lana ez da oso ezaguna: hauteskundeak dira hilaren 25ean

JULEN IRIONDO | ARRASATE

Europako hauteskundeak izango ditugu hamar egunean, eta alderdiak kanpainan ari dira, ordezkaritza handiena lortu guran. Herritarrek, hala ere, ez dute sarri oso argi zer eta zertarako aukeratzera doazen halakoetan, ez hemen, ez kanpoan. Hauteskondeez gain, areago, Europaz galdetu diegu Alemanian, Italian, Polonian, Eslovakian eta Belgikan bizi diren debagoiendarrei, herrialdeotan duten iritziaz.

XABIER GALLEGO
ALEMANIA

"Parlamentuak ez du balio handirik alemaniarrentzako"

Xabier Gallego arrasatearra Erasmus programaren bitartez iritsi

zen Alemaniara. Ikasketak amaituta, bertan jarraitzen du, lanean. Akisgran hirian bizi da.

Gallegoren esanetan, alemaniarren ustea bada Europako Batasuneko kide izateak onurak ekartzen dizkiela, merkataritza arrazoiengatik eta erraztu egiten duelako euren herrialdera, lanean, "hegoaldeko estatuetako personal kualifikatua" iristea.

Ekonomiagatik ez ezik, "II. Mundu Gerran gertatutako hondamendiagatik" ere ba omen dute europar sentimendua; hala ere, ez ei dute erabat bat egiten Europako Batasuneko antolamendua-rekin: "Europako Parlamentuak ez dauka balio handirik alemaniarrentzako". Eta hori igarri egiten da hauteskundeetan; aurrekoetan %43 izan zen parte-hartzea Alemanian.

Horrela, parte hartuko dutenekin aterako diren emaitzek

barnera begirako irakurketak eragingo dituzte gehiago, Gallegoren ustez: "Gobernuko partaideek hauteskundeak erabiliko dituzte ikusteko herritarrek ze irizten dioten euren gestioari".

ELISABETH SAIZ
ITALIA

"Interneteko blog baten bitartez egiten du kanpaina Grillok"

Elisabeth Saiz oñatiarra 2002an joan zen Italiara, eta Erroma ondoan bizi da. Dio Italian ez direla, adibidez, euroaren aldekoak, "prezioak asko garestitu" direlako. Bestalde, italiarrek uste ei dute krisi egoeran ez duela laguntzen Batasuneko kide izateak: "Ez dago europar sentimendu handirik".



Xabier Gallego, Alemanian. | XABIER GALLEGO



Elisabeth Saiz, Firenzeko museo batean. | ELISABETH SAIZ

Onurak, gainerako herrialde kideek dituzten berak direla dio, merkataritza arlokoak, lanerako aukerak edo ikasketa esparrukoak: "Adibidez, hemen, Zuzenbide ikasketetako azken azterketa egitean ez zara abokatu bihurtzen. Estatu azterketa oso zail bat egin behar izaten da. Beraz, asko joaten dira Espainiara lizentziatura

egitera, ikasgaiak konbalidatzen zaizkielako, eta han abokatu izanda hemen ere zuzenean abokatu bilakatzen direlako".

Europako hauteskundeek Italiakoek baino interes txikiagoa eragiten dutela dio, baina egon badirela kanpainako ekitaldiak: "5 Stelle alderdia, adibidez, Beppe Grillo buru duena; pertsonaia



EKITALDI POLITIKOAK

BERGARAN

Irala kalean.

Osteguna 22, 19:00etan.

Hizlariak: Maite Aristegi eta Juanjo Agirrezabala

OÑATIN

San Anton plaza.

Ostirala 23, 19:00etan.

Hizlaria: Marian Beitialarrangoitia



Agirre Eslovakian, goian, mendi baten. | J.A.



Unai Beitia, Polonian. | UNAI BEITIA

AMAIA EGOSKOZABAL | EUROPAKO PARLAMENTUKO LANGILEA

"Europako erakundearen inguruan enpresa pila bat sortu dira"

2007an iritsi zen Bruselara, eta 2012a ezkerro Parlamentuan egiten du lan oñatiarrak; bere inguruko "gauza gehienek Europako Batasunarekin lotura" dutela dio.

Europarekiko ze pertzepzio dago Bruselan?

Europako erakunde gehienak eta, batez ere, garrantzitsuenak —Europako Komisioa, Kontseilua, Parlamentuaren zati bat...— Bruselan daude, eta horrek bertako jendearen interes eta gertutasun handiagoak dakartza. bai. Gainera, hiri txikia

da Brusela, baina guztiz kultura-anitza: kolore, erlijio eta hizkuntza ugari bizi dira elkarrekin. Horrek integrazioa errazten du, eta kanpotarrak ez gara horren atzerritar sentitzen. Europako herritarrei dagokienez, EBren proiektuak integrazio hau erraztu egin du, dudarik gabe.



Egoskozabal, Europako Parlamentuan, Bruselan. | A.E.

Europa, onerako ala txarrerako iruditzen zaie?

Denetik dago. Batzuk kexu dira, Europako instituzioetan lan egiten duen jendearen soldaten erruz etxebizitzaren eta zerbitzuen prezioak igo egin direla esanez; beste batzuen ikuspuntutik, berriz, aberastasun handia ekarri dio lurraldeari, lanpostuak eta lan aukera desberdin asko sortuz: instituzioetan lan egiten duten pertsonak daude, batetik, baina haien inguruan ere enpresa pila bat sortu dira. Gainera, EBk erakarri duen jendeak hemen egiten du bere

eguneroko bizitza, bertako ekonomia aberastuz.

Zer dakarkizu ingurune horretan bizi izateak?

Desberdintasunak dakarren aberastasunak bete egiten nau. Giro internazionala, hizkuntza desberdinak erabiltzea, mundu osoko jendea ezagutzea, haiengandik ikastea...

bat da, politikari bat baino gehiago. Bere kanpaina Interneteko blog baten bitartez egiten du".

UNAI BEITIA
POLONIA

"Ez dut ezagutzen kanpainako ekitaldi batera joan den inor"

Poloniako Wroclaw hirian bizi da Unai Beitia eskoriatzarra: lan kontuek eraman zuten hara 2010ean. Poloniarrek europar sentitzen direla dio, "beste ezer baino gehiago. Komunismoa bizi izan zuten Polonian, eta orduan askoz okerrago zeuden gaur egun baino. Europa barruan egoteak dakarkie lehen ez zuten askatasun sentimendu bat".

Ekonomiari dagokionez, obra publiko asko "Europako Batasuneko diruarekin" egiten direla dio. "Baina kulturalki ere, Europako hiri guztiak antzerakoak dira, eta halako batera iristean

badakizu zurearen antzerako bizimodua izango dutela".

Europa-zale izan arren, baina, 2009ko hauteskundeetan %24 bakarrik joan ziren botoa ematera. Politikaz oso gutxi hitz egiten omen da, bere inguruan, behintzat. Mitinak egiten ei dira, baina: "Ez dut ezagutzen inor halako ekitaldi batera joan dena". Dio kanpaina ez dela oso inbaditzailea. Eta mezuak desberdinak, ezker edo eskuin: "Ezkerrekoak Europaren aldekoagoak dira". Eskuinekoek mesfidantza handiagoa ei dute, Europak hara ere krisia eramango duen beldur, hain zuzen ere.

JOXEBA AGIRRE
ESLOVAKIA

"Batasunean sartuta irekitako aukerak oso zabalak izan dira"

Joxeba Agirre oñatiarra 2006a ezkerre bizi da Eslovakian, lanera joanda. Maiatzean bete dira hamar urte herrialdea Europako Batasunean sartu zela, eta ospakizunak eta hauteskundeak direla-eta, "pil-pilean" dago gaia.

Eslovakiarrek, oro har, onerako ikusten omen dute Batasuneko kide izatea: "EBko kideen artean ekonomia ahulenetako bat da; beraz, Batasunean sartzearekin irekitako aukerak oso zabalak izan dira, batik bat atzerrira lan egitera joan ahal izateko edo barne azpiegiturak eraikitzeke jasotako laguntzengatik". Euroari buruz, berriz, askotariko iritziak: "Bidaiatzeko eta enpresendako, oso aurrerapauso ona; aldiz, bizitza arruntean dena asko garestitu da".

Aurreko hauteskundeetan %19 izan zen parte-hartzea, Batasuneko txikiena. Eta ez omen dute oso argi eslovakiarrek zein den erakundearen egitekoa: "Parlamentuan egiten denari buruz ez dago informazio askorik".

Hiritartasunaren onurei buruz

Bakoitzari galdetuta, pertsonalean, zer ekarri dien euren europar hiritartasuna izateak, onurak aipatzen dituzte bost debagoiendarrak: "Lanerako eta bidaiatzeko, batik bat", moneta bakarrak asko laguntzen duela dio Joxeba Agirrek, "eta baita mugarik ez egoteak". Bateko tituluek besterako balio izatea aipatzen du Xabier Gallegok, eta aireportuetan Nortasun Agiriarekin nahikoa izatea, "pasaporte beharrik gabe", Unai Beitia.

EUSKADI GEHIAGO
IZASKUN BILBAO BARANDICA

EUROPA BERRIAN
www.izaskunbilbao.eu

I AM BASQUE

eaaj pnv

CEU

Euskarazko zerbitzua garantizatzeko beste urrats bat, Debagoieneko ESI

Euskara zerbitzu eta lan hizkuntza izatea ahalbidetuko duten baliabideak ipiniko ditu martxan

MIREN ARREGI | ARRASATE

Osakidetzak abian duen Euskara Planari (2013-2019) batu zaio Debagoieneko Erakunde Sanitario Integratua (ESI), Debagoieneko osasun publikoaren jarduna eta arreta euskaraz garantizatzeko asmoz.

Atzo, eguna, egin zuten planaren berri emateko agerraldia Debagoieneko Ospitalean. Osakidetzako II. Euskara Plan orokorra oinarri, Debagoieneko Erakunde Sanitario Integratuaren helburua da hango langileen euskararen ezagutza garantizatzeko eta erabilerari dagokionez jauzi bat ematea pazienteekin eta erabiltzaileekin izaten diren harremanetan.

Beste urrats bat

Iaz eman zuten bukatutzat I. Euskara Plana eta bigarren hau aurrekoa baino asmo handiagoekin dator: hain zuzen ere, planaren arabera, bost urteren buruan, langileen %63k derrigorrezko izan beharko dute euskararen ezagutza -Osakidetzako II. Euskara Planak finkatzen dituen minimoetatik askoz haratago-.



Ander Manterola eta Juan Manuel Sanzo atzoko agerraldian. | M.A.

Horrek guztiak esan gura du lanpostu horiek betetzera doazenek egiaztatuta izan beharko dutela dagokien hizkuntza-eskakizuna: "2019an, helburua da hiru langilek bik euskaraz jakitea", adierazi du Ander Manterolak, Euskara Planeko koordinatzaileak.

Erabilera sustatzeko

Ezagutzaz gain erabilera sustatzeko asmoz, dagoeneko martxan

den langileen eta zerbitzuen identifikazio-kanpainari jarraipena emateaz gain, trebakuntza ere eskainiko zaie langileei: "Gabeziak gaintzeko amoz eta hizkuntza ohiturak aldatzeko asmoz".

Planak hiru lehentasun maila zehazten ditu: lehenengoan dago lehen mailako arreta deritzona; bigarrenean, ospitaleko arreta; eta hirugarrenean, administrazioa eta zerbitzu orokorrak. Eskaki-

zunak, beraz, desberdinak izango dira hiru maila horietan. Lehen mailako arretari, alegia, paziente eta erabiltzaileekin harreman zuzenagoa dutenei jarritako helburuak handiagoak izango dira.

Lehenengo planaren emaitzak

Esan bezala, iaz eman zuten bukatutzat I. Euskara Plana, eta, ebaluazioaren emaitzen arabera, Debagoieneko Erakunde Sanitario Integratuak zehaztutako erronken %72 gaintu ditu. Hauek dira, arloz arlo, lehenengo planean lortutakoak, aurreikusitako helburuen arabera: komunikazio eta irudiari dagokionez, %82 egin da euskaraz; kanpo harremanetan, %63; barruko harremanei dagokionez, %35; hizkuntza kudeaketan, %84; eta hizkuntza eskakizunetan, %83.

Teknikaria, lan-jardun osoan

Agerraldian esan zuten, bestetik, Debagoieneko Erakunde Sanitario Integratuak jardunaldi osoko euskara teknikaria izango duela aurrerantzean, lan-jardun erditik osora zabalduz haren jarduna.

Urrearen Loteriako txartelak salgai Gurutze Gorriak

M.A | ARRASATE

Gurutze Gorriak Urrearen Loteriaren kanpainari ekin dio, beste urte batez. Aurten go leloa da *Eros nazazu*. Helburua, berriz, gizarteari eta beharrian larrietan dauden pertsonen laguntzea, batez ere, gure zonan.

Loteria eros daiteke Gurutze Gorriko webgunean edo hainbat saltokitan (Eroski, Repsol, ONCE eta Correos). Hala ere, bailarako Gurutze Gorritik honakoa azpimarratu dute: "Debagoieneko boluntarioei edo hauek bertako denda eta tabernetan utzitako loteria erosiz gero, diru hori bertako bulegoan gelditzen da. Hala, eskualdea garatzeko balio duten proiektuetan inbertitzen da".

Aurten, gainera, aparteko gastuak dituztela ere zehaztu dute Gurutze Gorritik: aparkaleku berria, Elorregiko eraikina girotzea eta ibilgailu berriak.

Txartel bakoitzak bost euro balio du eta uztailearen lehenengo astera arte egongo dira salgai, eta hil horretako 17an egingo da zozketa.

LANBIDE HEZIKETA DEBAGOIENEAN



"etorkizuna zure esku"

ARETXABALETAN

Ate irekiak:
Maiatzak 21
18:00etan

ALE - Aretxabaleta Lanbide Eskola

Etxebarri auzoa, z/g - 22Pk.
20550 ARETXABALETA
☎ 943 79 79 00 / 943 79 79 43
ia@iaretxabaleta.com
www.iaretxabaleta.com



BERGARAN

Ate irekiak:
Maiatzak 22
18:00etan

IEFPS Miguel Altuna GLHBI Bergara

Ibargarai, 1
20570 BERGARA
☎ 943 76 24 91 / 943 76 38 40
imaltuna@saremail.com
www.imaltuna.com



OÑATIN

Ate irekiak:
Maiatzak 28, 18:00etan
(Larraña egoitzan)

IES RM Zuazola - Larraña BHI

San Lorentzo, z/g
20560 OÑATI
☎ 943 78 21 50
013015aa@hezkuntza.net
www.onati.net



AURREMATRIKULA: Maiatzaren 27tik Ekainaren 6ra. **MATRIKULA:** Uztailaren 9tik 16ra.

Berotzen hasteko, giza katea egingo dute Urbian domekan, 12:00etan

Hainbat bailaratako Gure Esku Dagoko lantaldeek antolatu dute ekitaldia

IRATI GOITIA | ARRASATE

Hainbat bailaratako Gure Esku Dagoko lantaldeek antolatuta, giza katea egingo dute domekan Urbian. Zehazki, Urolako, Goierriko, Debagoieneko eta Arabako Lautadako taldeen artean antolatu dute. "Erabakitze eskubi-dearen defentsan bat egiten duten kondizio askotariko lagun topaleku izan nahi du Gure Esku Dagok. Modu berean, nahi dugu datorren igandean Euskal Herriko bailara desberdinetatik, hainbat bidetatik, iritsiko diren lagun bilgune izatea Urbia", adierazi dute bailaratako Gure Esku Dagoko kideek.

Otsailean, Lizargaraten, Bergara, Antzuola eta Oñatitik joandakoekin 300 laguneko giza katea egin eta gero, orain eskualdeen topagune ihurtu nahi dute Urbia. 12:00etan hasita egingo dute giza katea, ekainaren 8korako motorrak berotze aldera.



Otsailean Lizargaraten egin zuten giza katea. | GOIENA

Metroa eskuratzea

Bestalde, Debagoieneko herrietako Gure Esku Dago lantaldeetatik (herri denetan dago taldea sortuta) herritarrek animatu nahi dituzte euren metroa eskuratzea. "Garrantzitsua da ahal bezain beste izatea. Debagoieneko kilometroak beteta, beharra lukeen

beste kilometro bat balego, jendea hara bidaltzeko". Hala, azken unera arte itxaron gabe, izena ematea komenigarria dela diote, "guztia ondo antolatzeko". Ohar bat ere eman dute: "Giza katean elkarrekin egon ahal izango dute une edo egun berean izena eman ez duten pertsonak".

Egibar, Bilbao, Ortuzar eta Negre, EAJren mitinean Bergaran gaur

I.G. | ARRASATE

Euzko Alderdi Jeltzaleak gaur, maiatzak 16, egingo du mitina Bergaran. Bertan parte hartuko dute: Joseba Egibarrek, Gipuzkoako Buru Batzarreko buruak; Jordi Turull Negrek, CiUko orde-

kariak; Izaskun Bilbaok, EAJren Europako hauteskundeetarako hautagaiak; eta Andoni Ortuzarrek, Euzkadiko Buru Batzarreko presidentek. Alderdi jeltzalearen hitzordua Martin Agirre plazan da, 19:30ean.



Izaskun Bilbao hautagaia. | EAJ

Osakidetzan "euskarak bizi duen egoera" salatu dute

M.A. | ARRASATE

Osakidetzako lehen mailako arreta unitateetako hainbat medikuk, tartean Aramaioko Aitor Montes familia medikuak, "Osakidetzan euskarak bizi duen bazterketa" salatzen dihardute. Hain zuzen ere, odol eta gernu analisisien emaitzak gaztelera hutsean daudela-eta, horren berri ematen hasi dira euren pazienteei, esku- emandako idatzi baten bidez. Bertan, Osakidetzak egiten dituen analisisien emaitzak gaztelera hutsean daudela jakinarazten zaie, eta, hori dela-eta, diote Osakidetzak ez duela legea betetzen. Medikue horien esanetan, klinika pribatuek paziente euskaldunei odol analisisien emaitzak euskaraz ematen dizkiete. Ekimena medikuengandik sortu da. Debagoieneko eta Galdakaoko zentroetan, behintzat, badabilta banatzen.

Botoa ematera joateko dei egin dute EH Bilduko Uberak eta Aristegik

MIREN ARREGI | OÑATI

EH Bilduk astelehenean egin zuen ekitaldia Oñatin. Gipuzkoako Batzar Nagusietako kide Rebeka Ubera eta Madrilgo diputatu Maite Aristegi izan ziren bertan. Maiatzaren 25ean botoa ematera joateko dei egin zuten biek. Euren esanetan, "gatatzaren konponbideari bul-

tzada emateko, erabakitze eskubidea eskuratzeko eta Europar estatu izan nahi duen herri gisa aurkezteko aukera paregabea" dira hauteskunde horiek. Era berean, "eskuinari eta eskuin muturrari aurre egingo dion fronte ezkertiarra eratzeko" baliatuko dute Europa, besteak beste.



Maite Aristegi, Madrilgo diputatua, hitzaldia ematen, Oñatin. | M.A.

Arrasateko agerraldia bertan behera utzi zuten Ezker Anitza-IU Iratzarri-EKIk

JAGOBA DOMINGO | ARRASATE

Leongo Diputazioako presidente Isabel Carrascoren erailketa dela-eta, Ezker Anitza-IU Iratzarri-EKI koalizioak bertan behera utzi zuten Leire Martinez eta Iñigo Martinez hautagaiek Arrasaten egin beharreko agerraldia.

Bailaran egin behar zuten agerraldi bakarra zen astelehenekoa.

Koaliziotik proposatzen dute, besteak beste, gutxieneko soldata eta 35 orduko lanaldia, lanpostuak sortzeko. Aldaketaren beharra ere aipatzen dute.



ULMA C y E, S. Coop.

Oñati

OHIKO BATZAR NAGUSIA DEIALDIA

Eguna: 2014ko maiatzaren 23a.
Ordua: 09:00etan lehen deialdia eta 09:30ean bigarrena
Tokia: Zubikoa kiroldegiko frontoia - Oñati (Gipuzkoa)

GAI ZERRENDA

1. Aurreko aktaren onarpenari buruzko informazioa eta bazkideak izendatzea Batzar honetako akta onartzeko
2. 2013ko ekitaldiko memoria irakurtzea eta onartzea eta 2014ko gestio plana berrestea
3. ULMA Taldeari buruzko txostena
4. 2013ko ekitaldiko urteko kontuak aztertzea eta, badagokio, onartzea
5. 2013ko ekitaldiko emaitzak banatzea
6. 2013ko ekitaldiari dagozkion interesak kapitalizatzea
7. Heziketa eta Kooperatiba Sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako kontribuzioa aplikatzea (IPDK)
8. Supraegiturako entitatei buruzko gaiak
9. Estatutu Sozialen testu bategina onartzea
10. Ekonomia araubideko estatutu-xedapenak
11. Menpeko Ekarpene Finantzarioen jaulkipena
12. Zaintza Batzordeko kideak berritzea
13. Kontseilu Sozialeko kideak berritzea
14. Auditorea izendatzea edo berrautatzea
15. Ahalmenak eskuordetzea
16. Galde-eskeak

OHARRAK: Bazkideei gogorarazten zaie sozietatearen egoitzan eskuragarri dituztela urteko kontuak, emaitzak aplikatzeko proposamena eta kontuen kanpo ikuskaritzak egindako gestio txostena, Batzar Nagusiaren deialdiaren epean zehar aztertu ahal izan ditzaten. Bazkide guztiei jakinarazten zaie eskubidea dutela, ULMA C y E, S. Coop.eko egoitzan proposatutako Estatutu Sozialen testu bategina eta dagokion justifikazio txostena aztertzeko, eta doan emateko edo bidaltzeko eska dezaketela.

KONTSEILU ERREKTOREKO LEHENDAKARIA
Oñati, 2014ko maiatzaren 7a



ULMA Packaging, S. Coop.

Oñati

OHIKO BATZAR NAGUSIA DEIALDIA

Eguna: 2014ko maiatzaren 22a.
Ordua: 14:30ean lehen deialdia eta 15:00etan bigarrena
Tokia: Zubikoa kiroldegiko frontoia - Oñati (Gipuzkoa)

GAI ZERRENDA

1. Aurreko aktaren onarpenari buruzko informazioa eta bazkideak izendatzea Batzar honetako akta onartzeko
2. 2013ko ekitaldiko memoria irakurtzea eta onartzea eta 2014ko gestio plana berrestea
3. ULMA Taldeari buruzko txostena
4. 2013ko ekitaldiko urteko kontuak aztertzea eta, badagokio, onartzea
5. 2013ko ekitaldiko emaitzak banatzea
6. 2013ko ekitaldiari dagozkion interesak sortzea eta kapitalizatzea
7. Heziketa eta Kooperatiba Sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako kontribuzioa aplikatzea (IPDK)
8. Supraegiturako entitatei buruzko gaiak
9. Ekonomia araubideko estatutu-xedapenak
10. Menpeko Ekarpene Finantzarioen jaulkipena
11. Zaintza Batzordeko kideak berritzea
12. Kontseilu Sozialeko kideak berritzea
13. Ahalmenak eskuordetzea
14. Galde-eskeak

OHARRAK: Bazkideei gogorarazten zaie sozietatearen egoitzan eskuragarri dituztela urteko kontuak, emaitzak aplikatzeko proposamena eta kontuen kanpo ikuskaritzak egindako gestio txostena, Batzar Nagusiaren deialdiaren epean zehar aztertu ahal izan ditzaten.

KONTSEILU ERREKTOREKO LEHENDAKARIA
Oñati, 2014ko maiatzaren 6a

Rafael Cristobal | Medikuntzan Doktorea eta Psikiatrian eta Psikoterapian aditua

"Umeak gozatu egiten du ikasten duenean, ez dago zigortu beharrik gauzak ikas ditzan"

- ▶ Eskualdeko ikastoletan ezarri duten hezkuntza metodo berriaren 'aitarekin' dihardugu
- ▶ "Fisika psikologiko honekin pedagogia bat sortu dugu eta zorrotz ari gara aplikatzen" dio

ENEKO AZKARATE | ARRASATE

Konfiantzaren Pedagogiaren I. Bilgunea egin dute joan den astean Lekeition. 230 lagun elkartu dira; 35 ikastolatak profesionalak eta kanpoko beste hainbat ikasle eta irakasle. Azkue ikastolaren 50. urteurrenaren harira, pedagogia berri eta berritzaile hau abian jarri duten ikastolek protagonismoa izan dute: Leintz bailarako Arizmendik eta Bergarako Aranzadik. Pedagogia horren oinarrietan dagoen Rafael Cristobal-ekin elkarrizketa izan dugu.

Konfiantzaren Pedagogia berez-kotasun horretan oinarritzen da?

Umeak, lehenik, sena dauka; bestetik, umeak seinale batzuk bidaltzen dizkigu; hirugarrenez, jakingura dauka, eta, inteligentziak lege batzuei erantzuten dienez, horiek jarraitu eta garatzen baditugu, gustura ikasiko du. Umeak gozatu egiten du ikasten duenean, ez dago zigortu beharrik gauzak ikas ditzan.

Emozioen kontuez dihardugu?

Bai, filosofia konduktista balekoa da ikasten diren jarrerak aldatzeko, baina ez du balio emozioak ulertzeko, hori berezkoa da, senezkoa. Gizakiaren garapen emozionalerako beharrezkoak dira sena eta ikasitakoa.

Umeek, gizakiek, badute senik?

Bai, baina betitik ez dugu jakin senik zutela. Uste zen animaliek bakarrik zutela. Filosofia konduktistak ez dauka senaren nozioirik. Umeak gauze negar egiten duela eta kasurik ez diogu egin behar? Psikoanalisiak bazeukan senaren nozioa, baina ez da zientzia bat. Horregatik ez digu balio kasu honetan. Ostera, konduktismoa bada zientzia bat, baina uste du dena ikasi egiten dela eta ikasitako eredu txarrak alda daitezkeela jarrera egokiarekin. Hala da, baina ez du ezer esaten berezko jarreraren gainean edo senaren gainean. Darwinek ikusi zuen hori lehendabizi, *Senaren adierazpena animalietan eta gizakietan* liburuan, baina ez zuen garatu kontzeptua. Hortaz, umeek sena badute eta baita gauzak ikasteko jakingura ere.

Kontzeptu berria da?

Oso berria da, bai. Etologia aurreko mendeko 50eko hamarkadan sortu zen. Orain arte, hezkuntza sistema edo metodoak filosofietan oinarritu dira: Montessori, Freinet, Waldorf... Psikologia edo pedagogia filosofikoak dira haiek; oso onak, baina filosofikoak. Baina giza psikologiaren ezagutzan oinarritutako pedagogia berritzailea da. Biologian oina-



Rafael Cristobal martitzenean Arrasateko Arizmendi ikastolako Ferixalekuan. | ENEKO AZKARATE

rritutako nekazaritza bezala... Hortaz, Leintzeko Arizmendi, Bergarako Aranzadi eta Lekeitionko Azkue ikastoletan ezarri duten pedagogia berri hau dela -eta, aitzindariak dira, bai Euskal Herrian eta baita Espainian edo Frantzian ere. Fisika psikologiko honekin pedagogia bat sortu dugu eta zorrotz ari gara aplikatzen.

Pedagogia hau aplikatzeko, espazio edo gune zabal eta bereziak behar dira?

Bai, psikologia, pedagogia eta espazioak uztartzen dituen eskema hau berritzaile eta bakarra da hezkuntzan. Ez du balio ohiko gela itxien eskemak. Bestetik, ume-umetatik egiten zaio jarraitpena ikasleari, zerbait ondo ez bada, zuzentzeko. Umeek, berez, gauza berriak ikusi, ikasi, jakin gura dituzte. Horregatik puskatzen dituzte objektuak, erakartzen diete zuloek, elementu distiratsuek... Oihanean, basoan, base-rietan, eremu zabaletan... gustura daude.

Lekeition egin berri duzun Bilgunean, Frantziako aditurik ere izan da...

Bai, Hubert Montagner umeen pedagogian espezialista, esaterako. Frantziako hezkuntza ministroarekin egon berri da. Oso

kezkatuta daude eskolarekin Frantzian eta birsortu egin gura dute hezkuntza. Ez du balio oraingo hezkuntza metodoak. Atentzioaren defizitaren sindromea, esaterako, gaur egungo hezkuntza ereduak bultzatu du. Zibilizazioaren arazoak dira, ez dira berezkoak. Motibazioa galtzetik datoz eskola porrotak eta atentzioaren defizita egungo hezkuntza sistema okerraren ondorio da. Ikasgela militarizatu baten ondorio dira atentzioaren defizitaren sindromea umeak. Ume batek, taldearekin elkartzeari uzten badio, bere lagunekin edo ikaskideekin aritzeari uzten badio

"Umeek sena badute eta baita gauzak ikasteko jakingura ere"

"Egun, ez du balio ohiko gela itxien eskemak, ikasgela militarizatuak"

eta izkinan geratzen bada, zerbaitegatik da. Hori hezitzaileek lehenbailehen antzeman behar dute eta zuzentzeko neurriak hartu. Lauzpabost urte pasa ostean alferrik da.

Haur Hezkuntzan, hau da, 0 eta 6 urte artekoan, hasi zarete aplikatzen pedagogia berria. Hortik aurrera? Hasierako urteak, Haur Hezkuntzakoak, oinarri oinarritzkoak dira, erabateko garrantzia dute. Baina hortik aurrerako mailetan ere aplikatu eta garatu gura dugu hezkuntza metodo berri hau. 6 urte ditueneko, ume batek batez ere bi dohain edo ezaugarri izan behar ditu: jakingura eta norbere

"Hezkuntza ereduak dakar atentzioaren defizitaren sindromea"

"Ikaslearen lana izan behar da umea behatu, lagundu, eta babestea"

buruarekiko konfiantza. Horrela hasi behar du Lehen Hezkuntza. **Oso polita dirudi guztiak, baina arauak zelan ikasi edo irakasten dira?**

Umea errespetatzen baduzu, errespetatuko ditu arauak, lagunak, albokoa... Bestelakoa da mesfidantzaren pedagogia. Norbaitek esango du: "Hau oihanaren legea da!". Bai, baina oihanean legeak daude. Antzinako gizakiek, herriek, zibilizazio handia zuten, bazituzten arauak, legeak. Hiri handietako auzo txiroetan, ostera, ez. Umeek imitazioz ikasten dituzte arauak.

Nondik dator metodo hau?

Huhezin nengoela, Hazitegi ikerketa proiektua jarri genuen martxan. Bestetik, 2010ean argitaratu nuen liburu bat honen gainean, *El Niño en la mirada del conocimiento. Una Pedagogía de la Confianza izenekoa*. Liburuan daude abian jarri dugun metodo berri honen oinarriak. Oinarri-oinarrian, naturaren berezko legeak eta inteligentziarenak onartzean eta errespetatzean datza pedagogia hau. Gustuaren, plazeraren, jakinguraren, emozioen... pedagogia da hau. Bizitza gogorra da, baina, bereziki, jokatzeko ez dakienarendako. Letra ez da odolarekin sartzen, esan izan den moduan. Bestetik, pedagogia honek badu herri txiki edo base-ri-azuoetako eskola txikien antziki. Eredua hura da haur hezkuntzaren aldirako. Ume bakoitza bere eritmorra doa ikasten eta adin ezberdineko umeak daude elkarrekin, gune berean.

Irakaslearen rola erabat aldatzen da, hortaz?

Bai, orain ikaslearen lana da batez ere ikuskatzea, behatzea, laguntzea, jarraitzea, babestea... Umeek autonomia dute. Irakaslea ezin da egon, umeoro, ikasle guztiak zaintzen, haien galderak erantzuten, egindakoak zuzentzen... Ikasleek eurek egin behar dute. Umeek aholkuak behar dituzte, ez aginduak.

Hiru ikastolatan abiatu duzue hez-teko pedagogia berri hau. Emaiztarik ikusten da?

Umeak aldatzeko, nagusiok aldatu behar dugu: gurasoak eta hezitzaileak. Umeek imitazioz ikasten dute. Ikusi eta ikasi. Baina nagusiok ere bai. Arizmendin, esaterako, gune ezberdinak ditugu eta hasi gara pedagogia hau martxan jartzen eta ikusi dugu irakasleak, haurrak eta gurasoak gustura daudela. Probatu duten irakasleek diote ez dutela lehen-gora itzuli gura.

Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



AKUPUNTURA

INTEGU

Arrasate / Uarkape 18, behe, ezk / 943 77 13 34

ALBAITARIAK

ETXEBERRIA JULIO

(DEBAGOIENeko ALBAITARI OFIZIALA)

Bergara / 609 54 16 13

DENTISTAK

ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otorla lizentziaduna 18 solairu artea ezk.

943 79 13 68

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behe / 943 79 71 90

BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behe / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA

Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65

Elgeta / Torrealdea 2 behe ezk. / 943 76 80 06

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION

Oñati / Atzeko kalea 6 behe

620 12 48 43 / 943 71 61 82

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO - BIOACUSTICA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA

TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA

Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

HOMEOPATIA

AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)

Arrasate / Nafarroa etorbidea 11

943 08 11 00 / 695 78 19 21

KIROPRAKTIKA ZENTROA

LARRAÑAGA ANDREA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behe / 943 76 73 43

NEUROLOGIA

AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

ORTOPEDIA

MARIA VICTORIA ANITUA

Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA

(ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

OSTEOPATIA

BENGOA NEREA

Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behe esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKOLOGOAK

ARKAITZ IRAZABAL PSIKOLOGO KLINIKOA

Bergara / 646 06 28 18

arkaitz.irazabal@gmail.com

GARMENDIA LANDER

PSIKOLOGO KLINIKOA - PSIKOTERAPEUTA

Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86 / 669 10 13 93

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA

(AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

PSIKIATRIA

IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

YOGA

SAMADHI YOGA

Bergara / Masterreka 13, behe

943 76 11 38 / 639 23 57 53.

ZABALIK

ARANTZA OTADUY
goiena.net/komunitatea/



Asaben memoria

Neguko arratsalde hotz haietan, ezkaratzeko beheko suaren aldamenen apatx eginda gaztainak erretzen genituen bitartean, ximurrez inguratutako zure begi alai eta biziei begira gelditzen nintzen, hipnotizatuta, su garren isla zure begiko ninietan burutzen zuten sorgin-dantza jarraituz.

Une goxo haietan zure gaztaroko bizipenak kontatzen zenizkidan eta nik adi-adi entzuten nituen.

Gogoan dut, Viteri eskolara joan aurretik, Mondragoeko etxeetan esnea saltzen zenuela. Baina behin, Aragoiko bidean behera, astoak esnez beteriko tupinak bota eta herriko bezeroak esnerik gabe utzi zenituen.

Gainera, ekaitzen beldur zinen, txikitari Udaltzeko larreetan artaldea zaintzen zeundela tximista batek, zure begien aurrean, arkume bat jo baitzuen. Pertsonaia ospetsuak ezagutzeko aukera ere izan zenuen Fabiola eta *señorito Jimmy*-ren etxean izan zinenean. A zer-nolako zirrara egingo zizun, behin baino gehiagotan, Balenciagari etxe hartako atea zabaltzeak!

Duela hamabost urte, zure istorioak historia bihurtzeko nahian, ikerketaren bide luze eta nekagarrian murgildu nintzen. Pausoz pauso zure, eta baita nire, memoria argitzen hasi nintzen. Arrasateko Meatzerreka auzotik Bergarako Aldai-egia auzora eramanez, eta badirudi gure bailarako inguru eder horretan amaitzen dela gure ibilaldia.

Baina, tartean, gure gizartea bitan banatu zuten gatazketan hildako senideak betiko agurtu ditugu; baserria erre eta berre-raiki dugu; Amerika ezagutu dugu; Mondragon altzairua ustiatu eta urruti garraiatu dugu, eta balio gabeko zamak bide bazterretan utzi ditugu. Bide luze horretan aurrera beharrean, beti atzera egin dugu, gure arbasoek utzitako iraganeko oinatzak jarraituz.

Heldu da atzera-bide berri bat hasteko garaia, baina oraino ez zara nirekin batera etorriko. Nafarroara noa, Lizarrara.

USTEAK USTE


MIRIAN BITERI | mbiteri@goiena.com

Astebururako plana

Udaberrian gaude, eta urtero moduan, etxeko lorategitxoak eta balkoia apaintzea tokatzen da. Kaletik noanean leihotetara begiratzeko ohitura daukat, ideien bat edo beste ateraguran. Eta aurten ohartu naiz berandu nabilela edo batzuk azkar ibili direla loreak jartzen, dagoeneko ederrak dituztelako; bulego ondoan, esaterako, surfinia ikusgarriak dituen etxea dago. Ikusteko moduko balkoia du urtero etxe horretako jabeak. Gurasoen etxean geranioak jarri izan dira beti, baina nik ere surfiniak jartzen ditut: fuksiak, zuriak eta moreak. Bizitasun berezia ematen dutela uste dut. Bizitasun hori lortzeko, baina, loreontziak bete eta bere tokian jarri behar dira aurretik. Badaukat astebururako plana.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA | goiena.net/komunitatea/



HANDIK ETA HEMENDIK

Soinean, baina egoki

Nahia Alkorta
argia.com/blogak/nahia-alkorta/

Gaur munduan zehar ekimen desberdinak egingo dira haurra Soinean Seguratasunez Eramatearen alde... Hemen aletxo bat:

Azken hamarkadetan gure inguruan gutxi ikusi izan diren arren, geroz eta gehiago gara haurra soinean eramaten dugun gurasoak. Haurtxoa (edo koskorragoak) soinean eramateak onurak dakartza bai haurtxoarentzat zein eramaten duenarentzat ere, eta batez ere, goxo-goxo joateko aukera paregabea da.

Hemen gomendio orokor batzuk:

-Ergonomikoak diren motxilak edo zapiak erabili. Haurtxoaren hankak "igel" jarreran mantentzen dituzten motxila edo zapiak erabili -haurra eserita balego bezala, belauak aldaken parean geratzen diren gailuak- haurra genitaketatik zintzilik geratzen den motxilak ez dira ergonomikoak eta egokiak haurtxoentzat.

-Ez eramanez haurra kanporantz begira. Haurtxoek

jarrera ergonomikoa mantentzeko gorputzaren aurrekaldea eramalearen aurka eramanez behar dute. Gainera, horrela gehiegizko estimulazioa eta babes eza ekidingo dira.

-Haurtxoaren bizkarraren C forma naturala errespetatu. Ergonomikoak diren motxiletan haurtxoaren bizkarraren C forma errespetatzen da. Haurra kanpora begira jarriz gero bizkarrak zuzentzeri behartuko dugu.

Zer irabaziko dugu haurra soinean eramanez? Haurra eta eramalea etengabeko kontaktuan egoteak, haurtxoa lasaituko du eta bere tenperatura erregulatzea asko erraztuko du. [...]

Gertutasun eta lasaitasun horrek, soinean daramatzagunean haurtxoek loaldi sakonak eta luzeak egiteko beharrezko ingurunea sortuko du, eta hortaz, atsedean hartuko du guk egin beharrekoak burutzen ditugun bitartean.

Gertutasun eta etengabeko kontaktuak atxikimendua indartuko du eta eramalearen mugimendu naturalak eta motxilak edo zapiak sortzen duen inguruneak haurtxoa sabel barruan bezala

sentiaraziko dute. [...] Gainera, arnas eta sabeleko ohiko arazoak (aireak, goitika egitea...) errazago arintzen dira zutikako posizioan eta eramalearen mugimenduaren kulunkak gorputzaren barne eritimoaren erregulazioa dakar.

Eramaleak ere abantaila mordoa izango ditu haurtxoa soinean daramanean. Haurtxoa soinean daramanean oxitoxina errazago jariatuko du eta horrek zoriontsuago egoten lagundu eta haurtxoak zaintzeak dakartzan ajeak arinduko ditu (lo gutxi egitea...). Mugimendu askea izango dugu haurtxoa soinean daramagunean eta egin beharrekoak egin ahal izango ditugu. Gainera, ez dugu aulkitxoaren beharrik izango eta hirietan edo mendian errazago mugituko gara.

Haurtxoa soinean eramanez, motxila edo zapi ergonomikoak erabiltzen baditugu, ariketa fisiko onuragarria izango da, pisua egokiro banatzen baita eramalearen sorbalda eta gerrian, eta haurtxoa pisua irabazten doanez, eramalearen muskulatura progresiboki landuko baita.

Eta Red Canguroko ekimenarekin bat egiteko... erabili zuk ere #porteoseguro etiketa.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarte
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA

Lehendakaria Aitor Izagire
Zuzendari nagusia Iban Arantxabal

Zuzendaria Eneko Azkarate

Erredaktore burua Ubane Madera

Sailkatu arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Disenua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketazioa Iñaki Iturbe, Kepa Martelo
Argazkilaria Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga,
Amaia Mundiano, Zortza Martin,
Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia.
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain,
Ane Bereizbar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPER
ARRASATE 20500:
Udalora Lizenziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
berriak@goiena.com

ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

Legu Gordailua: NA-3329/2000
ISSN: 2174-369X
Tirada: 20.100 ale
Difusioa: 19.951 ale



Eusko Jaurilaritzak diruz lagundutako aldizkaria

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

ZIGARROLAKO JAIAK 2014

ARRASATE



MAIATZAK 16, ostirala (Erretiratuen Eguna)

- 10:00 Kanpai errepika eta kohete jaurtiketa, jaiak hasi direla iragartzeko.
 10:15 Haurrentzako kirol-jokoak auzoko eskoletan.
 11:30 Danborrada Arizmendi ikastolako umeekin.
 17:00 SPINNING MASTERKLASA, Musakolako kiroldegian, kanpoko patinaje aterpean. Monitore adituak. Izen ematea kiroldegian.
 17:00 Erretiratuentzako Mus, Briska eta Tute txapelketetako finalak.
 17:30 Txokolate eta bollikao banaketa 12-17 urteko gazteentzat.
 Haurrentzako tailerrak 3-12 urte bitarteko haurrentzat, gazte txokoan.
 17:30 Pintxo dastaketa. EKINek antolatuta, San Antolin eskolan.
 18:30 Gazteentzako jokoak, gazte txoko kanpoko patioan.
 19:00 Ikurrina igotzea. Buruhandiak gaitariekin batera. Alkatetzatik gozokien jaurtiketa. Txapela eta zapia ikurrina igotzean jantziko ditugu.
 19:30 Auzoko erretiratuentzako jai-afaria Al-Andalus kultura elkartearen.
 22:00 Bolo txapelketa bolatokian, San Isidro elkartearen ondoan. Izen ematea, bolatokian.
 23:00 Rock kontzertua: RPL eta EH Sukarra. San Antolin plazan.
 Berbena San Isidro eliza ondoan, Kaixo taldearekin.
 24:00 + beranduago BER-TA-RA

Egun osoan kohete jaurtiketa

MAIATZAK 11, larunbata (Koadrilen Eguna)

- 10:00 Eguzkia eta eguraldi ona.
 11:00-12:00 Kalejira Arrasate Musikaleko Gaiteroekin.
 11:00-13:00 Gazteendako jolasak. Gaztetxoko kanpoko patioan.
 11:30-13:30 Puzgarriak San Antolin ikastolan.
 12:00 Umeendako asto jaia, auzoko herri eskolaren inguruan.
 Herri txikiteoa, gaitariekin alaituta.
 Erretiratuen etxeko tabernatik irtengo da astoa. Mesedez, ordurako azaldu.
 12:00 Auzoko tenis txapelketaren finala. Musakolako kiroldegian.
 13:30 Mundu osoko kategorian, Urrezko Astokiloak eman eta jartzea.
 14:00 Aurten ere ez da egingo manifestazio ofizialik, edo bai.
 15:00 Herri bazkaria San Isidro eliza ondoan (eguraldi txarra eginez gero, aterpean egingo da). Musakolako txarangak alaituta. Bazkari-txartelak erosteko: Ziorla, Meneta eta Txinato tabernetan.
 Zozketak eta jai zoroa izango dira.
 Gazteendako jolasak. Gaztetxoko kanpoko patioan.
 17:00 Herri kalejira.
 17:00-20:00 Puzgarriak San Antolin ikastolan.
 18:00 San Isidro sokatira sari nagusia
 1. Bildotsa.
 2. Urdaiazpikoa eta xanpain sorta.
 3. Urdaiazpikoa.
 4. Xanpain sorta.
 19:00 Arrasate Musikaleko haize-egur taldearen, banda eta orkestra gaztearen kontzertua Santa Teresa elizan.
 19:30 Buruhandiak gaitariekin batera.
 23:00 Euskal Herriko DJ hoberena: DJ Amaia San Antolin plazan.
 Berbena San Isidro eliza ondoan, KAIXO taldeak alaituta.
 Gauerdian Hainbat moda-ikuskizun auzoko pertsonaia xelebrenekin.

MAIATZAK 18, igandea

- 10:00 Eguzkia eta eguraldi ona.
 11:00 Meza nagusia San Isidro elizan.
 11:00 -13:00 Puzgarriak San Antolin ikastolan.
 11:30 Gimnasia erritmiko erakustaldia Musakolako kiroldegian.
 12:30 Txikiteoa, Arrasate trikitixa eskolak alaituta.
 13:00 Pintxo dastaketa, EKINek antolatuta. San Antolin eskolan.
 13:15 Arrasate Musikaleko Bandaren kontzertua. San Antolin eskolan.
 17:30 Zezentxoak San Antolin ikastolako patioan.
 18:30 Kalejira Arrasate trikitixa eskolak alaituta.
 22:30 Azken traka Paseo Maritimoan: suzko erruberak, sorpresa ikusgarria, agurra eta amaiera.

Datorren urtera arte.

AUZOKO ARTISTEN ESKULANEN ERAKUSKETA

Ostiralean, larunbatean eta igandean, Musakolako erretiratuen egoitzako lehen solairuan, auzoko artisten eskularen erakusketa izango da.

VIRGINIA ile apaindegia • **ARIGARA** iturgintza • **GOI SOLUTIONS** • **INDAR** zerbitzu integralak
EGUREN arraindegia • **UDALAITZ** • **ILUNA** taberna • **ARRASATE ELEKTRIZITATEA**
IMANOL BIETEK iturgintza eta energia berriztagarriak • **IOSU** taberna • **JEY JULIWER** taberna
JOMA • **ESTRELLA** taberna • **MENETA** taberna • **TXINATO** taberna
ZIORLA taberna • **GAINDEGI** jatetxea • **BEBERLY** taberna • **MUSAKOLA** estankoa
GOIENA aseguruak • **ZIORLA** frutadenda • **LIRAIN** ile-apaindegia • **BERANGO** altzariak

Ondo pasa jaiak!

GUTUNAK

Ehtik indarrak
Bilduz, Troikari ez

**Julia Monge, Joseba Barriola
'Maixu', Joxe Iriarte 'Bikila' eta
Iñaki Martin**
Debagoiena

Europako agintariak, Europan eta are mundu mailan ere zorrotz koordinatutako ekimen batean, zor pribatuak nazionalizatzea erabaki dute, bankuen zor pribatua zena zor publiko subiranora bihurtuz, eta hori ordaintzeko aitzakiaz austeritatea eta zorra ordaintzeko obligazio konstituzionala ezarri. Ondorioak: zerbitzu publikoetan eta gastu sozialetan murrizketak eta lan merkatuan malgutasun handiagoa, soldata zuzenak eta zeharkakoak gutxiagotzeko helburuarekin.

Gure ustez, Troikaren diziplinarekin haustez gain, jendearen bizitza baldintzak ziurtatzeak behar du izan lehentasuna, eta horrek haustura gehiago eta osagarriak bideratzea eskatzen du. Garrantzi berezia du Europako periferiako ekonomiek onartu duten ordain finantzarioak zalantzan jartzea. Pilatutako

zorraren bolumena eta horren finantza kostua (interes tipoak) onartezinak dira. Ezin da eta ez da zilegi baldintza horietan zorra ordaintzea. Injustua delako eta zorpetutako ekonomietan berpizte ekonomikorako edo babes sozialerako edozein posibilitate ezerezean uzten dituelako. Estatu hartzekodunen bankuak eta horien ordezkari diren gobernuak, justizia sozialeko irizpideen arabera zorra berriro negoziatzera behartuak egon daitezten modu bideragarri bakarra zorretan daudenak (eta elkarrekin eginik hobe) ez ordaintzea erabakitzea litzateke. Horrela berreskuratuko lukete dagozkien indar posizioa.

Kapitalaren eta bere instituzioen neurri honetako erasoari behar bezala erantzuteko, sistemaren aurkako ezkerreko sektore guztiak behartuak gaude ahaleginak batzeko, izaera eraldatzaile eta pluraleko fronte politiko eta soziala eratzeko, izaera desberdineko mugimenduak elkartuz: ekologismoa, feminismoa, nazioartekoa, antikapitalista, askapen nazionalekoa, oinarritzko askatasun demokratikoen defentsakoak.

Esandakoaren ildotik, babestu beharra dago ikuspegi honekin bat datozen aukera elektoralak. Espainiako legediak estatu mailako barruti elektoral bakarrean jokatzeko behartzen duenez, aliantza koiuntural desberdinak osatu dira. Horietatik guztietatik, gure ustez EH Bildurena da aukera egokiena.

Nondik datozkigu
elikagaiak?

Josu Garitaonandia
(Equo Bergara)
Bergara

Prezioa garbi adierazten digute zenbaki handiekin; nondik datozen jakitea, berriz, gehiago kostatuko zaigu. Txunditurik utziko gaitu munduko beste puntatik etorritako sagarrak edo kiwiak bertakoak baino merkeagoak direla jakiteak. Zer jaten dugun jakiteko, letra txikian; tomate friijitu latak, tomateaz gain, beste zortzi produktu ditu. Fija zaitez zer erosten duzun. Gertuen ekoizten direnak dira osasungarrienak. Osasuna bezain garrantzitsua da elikaduran burujabetasuna

lortzea; baserritarren lana bultzatzeaz gain, parkeak ortu bihurtu eta adornu-zuhaitzak fruitu-zuhaitzengatik aldatu behar ditugu. Petrolioa etengabe garestitutako da, elikagaiak ere bai; munduan gero eta aho gehiago jateko. Eta elikagai eskasia ekarriko du. Aldaketa klimatikoa aurrera doa, elikagaiak ekoizteko lur gutxiago edukiko dugu, baldintza gogorragoetan egin beharko da lan, uholdeak eta lehorteak gehiago izango dira.

Entzun diegu gurasoei, gerra ondoren pasatako gose-urte gogorak; ezer ez badugu egiten, gure ondorengoek esango dute gose-urteen ondoren gerra etorri eta...

Bertako produktuak erosteko informazio gehiago: www.hermeneus.es eta info@baserrisarea.com.

Eskerrik asko!

Mertxe Olabe Zabala
(Felix Elorzaren familiaren izenean)
Eskoriatza

Apirilaren 18an ingresatu genuen Felix –senarra, aita eta aitaita– Arrasateko ospitalean. 10 egunera egin zigun betiko

agurra. 3. solairuko 319. gela bigarren bizileku hartuta eman genituen 10 egun horiek. Gogorak izan ziren –oso–; hala ere, askoz eramangarriago egin zitzaizkigun, hango langileen prestutasunari, jatorriaren eta, batez ere, profesionaltasunari esker.

Langile gutxi dira; gutxi, han dagoen lan-zamarako; dena dela, hori ez zen tratuan nabari; ez horixe! Ez genuen inoiz aurpegi txarrik ikusi –neke-aurpegiak, akaso–; beti irribarretsu eta edozertan laguntzeko prest...

Balio beza, hortaz, idatzi xume honek gure eskerrik beroenak emateko Felixen azken egunetako trantzean lagun izan genituen sendagile, erizain eta laguntzaileei.

Mila esker.

Gutun hau oso motz geratuko litzateke, baldin eta Arrasateko ospitaleko langileen lan-egoeraz ohartarazteko deia egingo ez bagenu.

Albistegietan-eta izan dugu euren protesten berri: langile gutxi direla, kontratuak eten direla... Guk, zorritzarez, hori hala dela ikusteko parada izan dugu, bertatik bertara ikusi ere! Hartuko ahal ditu dagokionak hartu beharreko neurriak!

Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakararekin erantzun beharko dio.
Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

Debagoieneko
PROFESIONAL LIBERALAK

ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI

BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

BEGOÑA LASAGABASTER

ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86
Faxa: 943 77 01 08
blasaga@conet.es

RAFAEL ARANBURU

BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

ROSA BEITIA / ATXEN MUNGIA /
NAIARA MENDIBIL (ZENBAKI)

ARETXABALETA / Basabe ind. f-0-10-pab.
Tel.: 943 71 21 12
zenbaki@zenbaki.es

AHOLKULARITZAK

AIERDI AHOLKULARITZA

BERGARA / Artekale 1
Tel.: 943 76 03 50

ANDRA MARI AHOLKULARITZA

ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3
Tel./Faxa: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ASEGI AHOLKULARIAK

ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4
Tel.: 943 71 25 49
Faxa: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

TBG AHOLKULARITZA

BERGARA / Matxiategi 36
Tel.: 943 76 90 83

ZENBAKI AHOLKULARIAK

ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.
Tel.: 943 71 21 12
Faxa: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.es

ARKITEKTOAK

BIARK ARKITEKTOAK

ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behea
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

ARKITEKTO TEKNIKOAK

JESUS LASKURAIN PEREZ

BERGARA / Zurradero 4
Tel.: 943 76 53 53

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

ARRASATE / Pablo Uranga 3, behea
Tel.: 943 79 51 25
Faxa: 943 71 19 85
uribesalgo@telefonica.net

HERRIAK

ELGETA

Azken artzaina herrira dator

- ▶ Enrike Astola udazkenean jaitsiko da herrira bizi izatera; 33 urte pasa egin ditu Azula baserrian
- ▶ Elgetako azken artzaina da; auzunea hutsik gelditzeaz gain, ofizio bat desagertzen da Elgetan

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

82 urte egingo ditu aurten Enrike Astola elgetarrak. Beizu baserriko semea, aldamenen dagoen Azula baserrian egin ditu azken 33 urteak, beti artzain lanetan. Oraindik ere hamazortzi ardiko artaldea gobernatzeko du. "Aita ere artzaina zen, baina etxeko tailerrean ere egiten zuen lan; armagintzan. Nik ere ikasi nuen ofizioa, baina barruan egote hori... preso sentitzen nintzen. Tailerreko lanak amaitu eta ardiatara ateratzea tokatzen zenean, kaioatik irteten den txoria moduan sentitzen nintzen ni", azaltzen du Astolak.

Udazkenean, ordea, bizimodu berria hasiko du. Artzain lanak utzi, eta herrira jaitsiko da bizi izatera. Argi eta garbi, adinak bultzatutako erabakia izan da: "Gazteagoa banintz, ez nuke hemendik alde egingo, baina urte asko dauzkat eta urteek erabaki dute", dio. Pixkanaka hartzen omen dira horrelako erabakiak. "Pena beti hartzen da, bai, baina lagata daukat espe-



Enrike Astola, artaldea kortatik ateratzen. | LZ

ikusten dira bertatik. "Gehienetan ibilia nago. Sasoi batean 150 ardi nituen, eta lan gogorra izaten nuen Gabonetatik sanjuanetara bitartean. Bakarrik nintzen eta 06:00etatik gauerdira bitartean luzatzen zen nire lan jarduna. Ardiak gobernatu, jetzi, gaztak egin... hilabete gogorak ziren, baina beste sasoi bat nuen".

Gaur egun Astolak ezin du gaztarik saldu. Bere kontsumorako eta senitartekoen eta lagunen artean oparitzeko egiten ditu. "Lehen bazeuden nirea baino artalde handiagoak Elgetan, eta orain ere egongo dira, baina bazterrak garbitzeko ditu jendeak ardiak", azaltzen du. Bizimodu berrira egokituko den galdetuta irribarre batekin erantzun digu: "Pentsatzen jata baietz".

ENRIKE ASTOLA
ARTZAINA

"Urte asko dauzkat eta... urteek erabaki dute"

Bizitza osoa eman du artzain lanetan, eta bakarrik bizi izan da Azula baserrian.

Gogorra da bakarrik bizi izatea?

Norberak egin behar dena! Gosaria, bazkaria, ardiak zaindu, gaztak egin...

Iritsi da artzain lanak uzteko garaia?

Bai. Ezin daiteke beti horrela segitu.

Ofizio bat desagertzen da Elgetan. Gazte jendeak ez du artzaintzarekiko interesik?

Ezagutu ere ez ardirik! Sasoi batean hiru artzain ginen Elgetan —Arratx, Aurtengoa eta Beizu—Azula baserrietan—. 700 arditik gora ibiltzen ziren Elgetako mendietan. Gauegun ardi bakar bat ere ez dabil mendian. Jendeak bazterrak garbitzeko dauzka. Artzainak ere... ni naiz azkenengoa.

Neska-mutikoei artzainaren bizimodua erakusten

Ohikoa baino bisita gehiago jaso ditu Enrike Astolak azkenaldian. Aurreko zapatuan, eta Udalak antolatuta, neska-mutiko taldea gerturatu zen Azula baserri herriko azken artzainaren egunerokoa ezagutzera. Oinez egin zuten Azula baserriainoko joan-etorria, eta adi-adi entzun zituzten artzainaren azalpenak.

Gazta nola egiten den azaldu zien Astolak neska-mutikoei, eta umeez bertatik bertara ikusi ahal izan zuten prozesuaren zati handi bat. Artaldearen zainketa, ardiak egunero jetzi beharra... umeez asko ikasi zuten bisitaldian.



Umeei gazta nola egiten den erakusten. | ANA GILLEGÍ

rantza eta pena gutxiago hartuko dut orain lehenago joan beharra izan banu baino".

Elgetako azken artzaina

Enrike Astolaren erretiroarekin ofizio bat desagertzen da Elgetan, eta ez hori bakarrik; Azula auzuneak bere azken biztanlea ere galtzen du.

Elgetatik lau kilometrora dago Azula baserria. Armarrri eta guzti, 450 urte dituen baserria da, baina nahiko hondatuta dago. Paraje zoragarrian kokatuta, bista ikusgarriak daude Ubera aldera. Astolak ondo baino hobeto ezagutzen dituen belardiak

MIGUEL ALTUNA INSTITUTUA Bergara

AURRE-MATRIKULAK: Maiatzaren 27tik Ekainaren 6ra
ATE IREKIAK: Maiatzak 22, 18:00etan.

Ordutegia:

Asteleheneretik ostegunera, 8:00etatik 14:30etara
eta 15:30etatik 18:30etara
Ostiraletan, 8:00etatik 14:30etara

Ibargarai, 1
20570 Bergara
943 76 38 40/943 76 24 91

www.imaltuna.com
imaltuna@saremail.com



MAI-ko APLIKAZIOA
ZURE MUGIKORREAN!
Erdi eta Goi Mailako zikloak, enpresa formazioa,
kalkulatuak egiteko, mapak, lan partekatzea, erabakiak... eta abar.

http://m.imaltuna.com

Eskuragarri ere!



Bilketa selektiboa hasteko gune berriak ipini dituzte

Lau gaiko edukiontzien guneak gertu daude dagoeneko eta herritarrek informatzeko bulegoa ere lanean hasi da BAZen, informatzaileekin

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Arrasateko hiri hondakin bilketa sistemaren eraldaketa aurrera doa. Oraingo astean komertzioetako kartoia jasotzen hasi da Debagoieneko Mankomunitatea, eta informatzaileak gertu daude, BAZen, herritarren zalantzak entzun, argibideak eman eta iradokizunak batzeko. Azaroan sistema berria bete-betean indarrean denerako, urrats asko egingo dira, eta horien berri emateko agerraldia egin zuten alkateak eta Arrasateko Hondakin Mahaiak, xehetasunak azalduta. Edukiontzien guneetan lau ataletan utzi beharko da zaborra bereizita, eta, hala, herritarrei dei egin diete, "edukiontzi guneak ondo" erabil ditzaten.



Alkatea, informatzaileak erdian eta Mahaiko ordezkari bat, BAZen. | J.B.

Edukiontzi gune berriak

Edukiontzien guneak gertu uzten ibili da Udala oraingo astean. Herrian zehar banatuta dauden edukiontzi berdeak kendu eta gune zehatzetan iglu berdea (beira), urdina (kartoia eta papeira) eta horia (ontziak) jarri dituz-

te, edukiontzi berdearekin batera (organikoa eta errefusa). Alde zaharrea ez da gunerik egokitu, inguruaren ezaugarri bereziak direla eta. Aldaketei aurre hartuta, informazio ekimen zabalabiarazi du Udalak, etxeetara

Informazio bulegoa goiz eta arratsalde egongo da zabalik BAZen egoitzan

Lau edukiontziak ondo erabiltzeko dei egin du Mahaia

Komertzioetako kartoi bilketa hasi da

Herriko komertzioak izan dira hondakin bilketa berrira moldatzen lehenak. Atzo ezker (eguna), dendetan bertan hasi da Mankomunitatea kartoia jasotzen. Aurrerantzean, martitzen, egun eta zapatuetan jasoko dizkiete kartoi hondakinak merkatariei, 10:00etan. Horrela, komertzioei dagokienez, lehen faseari ekin zaio.

Bigarren fase baten, paper, ontzi arin, errefus eta organikoa bereizita jasoko dituzte. Azaroan izango da hori, etxeetako hondakin bilketaren aldaketarekin batera, baina komertzioei tokian bertan jasoko dizkie Mankomunitateak hondakinak. Sortzaile txikien kasuan, edukiontzietara bideratuko dituzte.

Hausnarketa prozesua plazaratuko du Ekin Emakumeak elkarteak

Hausnarketan murgilduta ibili eta gero, prozesuak emandakoen berri eman gura diete Ekin Emakumeak elkarteak kideek herritarrei. Horretarako, *Alkarrekin bide barrixei Ekin!* izeneko aurkezpena egingo dute datorren eguaztenean, hilak 21, Kulturako Biteri aretoan, 18:30ean. Beste ekitaldi bat ere egingo dute, astebete geroago, hilaren 28an, *Pintxo-tertulia* izeneko ekimen bereziarekin. 18:30ean, Jokin Zaitegi aretoan, iritziak jaso eta elkarrekin egingo dute gomuta, kide eta herritarrekin, denak batera, datozen lau urteetarako plana diseinatzeko.

Elkartruke azoka egingo dute bihar Azoka plazan

Azoka plazan duten lokalean txukuntze-lanak amaituta, bihar, zapatua, itzuliko da ElkarTruke Ekimenaren azoka. Hilabeteko etenaren ostean, arropa eta osagaiak trukatzeko merkatu txikia irekiko dute, 10:00etan, Azoka plazan. Aurreko aldiatan bezala, denetarikoa gaiak trukatzeko aukera egongo da: arropa, liburuak, jostailuak... Iraila ezker ibili dira Bagara Herrigintzakoak ondasunak jasotzen, eta zuzenean trukea egiteko aukera egongo da, pilatutakoak pilatuta. Nork bere trukea gaia eroan dezake azokara, eta, hura lagata, beste ondasun bat hartu ahal izango du.



EZOHIKO BATZAR NAGUSIA

DEIA

DATA: 2014ko maiatzaren 28an.
ORDUA: 18:30ean lehen deialdia eta 19:00etan bigarrena.
TOKIA: Monterrongo aretoan.

GAIA

1. Estatutu berriak aztertzea eta onartzea.

OHIKO BATZAR NAGUSIA

DEIA

DATA: 2014ko maiatzaren 28an.
ORDUA: 19:30ean.
TOKIA: Monterrongo aretoan.

GAIA

1. Aurreko aktaren onarpenari buruzko informazioa eta bi bazkide izendatzea batzar honetako akta onartzeko
2. 2013ko ekitaldiko kontuak aztertzea eta onartzea
3. 2012/13 ikasturteko memoria
4. 2013/14 ikasturteko kudeaketa egitasmoa
5. Galde-erreguak.

ARRASATE MUSIKALEKO PRESIDENTEA
2014ko maiatzaren 16a

36ko gerrako mortero bat, Makatzenan

Beharginek, gasa sartzeko lanean zihardutela, mortero bat aurkitu zuten. Ertzaintzaren artzilariei deitu, eta espezialistek leku seguruan zartarazi zuten 1933. urtekoa den lehegailua.



IMANOL GALLEGO

BIODANTZA,

maiatzaren 25ean, domeka, 10:00etatik 14:00etara

Instintuekin konexioa

Kulturak traba egiten die instintuei eta desantolatuta egiten ditu

Teoria Didaktikoak eta Bizipen Metodologiak Bizitzeko Artearekin konektatzen gaituzte

Rakel Ampudiaren eta Carlos Orellanaren eskutik

Arrasate Yoga Elkarteak

35 eurotan
Adin muga barik

Informazioa:

679 44 12 29

Matrikulazio-epena zabalik
Lanbide Heziketan
biodanzavitoria@gmail.com
www.biodanzaescuelaoficial.com

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

Musakolan jaien bigarren enbatari ekiteko gertu

Mota guztietako musikaren laguntzarekin, auzoko kaleak alaitasunez beteko dira asteburuan

IMANOL GALLEGO | ARRASATE

Joan den domekan Zigorrolako jaietara ekin eta gero, astean zehar auzoan izan dute zer ospatu. Atzo, adibidez, ohiturari eutsiz, San Isidro elizan, abesbatzak girotutako meza nagusia izan zuten. Ondoren, San Isidro elkartearen herritarrentzako mokadutxoaren ostean, auzoko baserriarrek euren zaindariaren omenez bazkaria izan zuten.

Egitarau nagusia, baina, aste bukaera honetan izango da. Berrietasun handirik gabeko egitaraua prestatu dute aurtengo jaietarako. "Klasikoak indartzen saiatu gara", azaldu du Iban Goñi auzo-alkateak. Puzgarriak, sokatira, *Urrezko astakiloak*, auzo-bazka-

ria... Errotuen dauden ekitaldiei eusteko ahalegin berezia egin dute, betiere, kaleko giroa eta umorea indartuta eta, noski, jaietan falta ezin den musikari arreta berezia jarrita.

Musikak girotuta

"Etxean ajea pasatzen zaudela, musika entzutean kalera irteteko gogoia pizten zaizu", dio Goñik. Horregatik, musikak presentzia berezia izango du, gustu guztien-dako egongo da-eta.

"EH Sukarra taldea nostalgikoentzat ekarri dugu", aipatu du Goñik. Hala ere, haren ustez, kontzerturik bereziena domekan Arrasate Musikaleko bandak eskainiko duena izango da.

MUSAKOLAKO JAIETAKO EGITARAUA

GAUR, EGUBAKOITZA

10:00 Txupinaren ostean, haurrentzako kirol-jokoak eskolan.

11:30 Danborrada.

17:00 Erretiratuentzako mus. briska eta tute txapelketetako finala.

17:00 Spinning saioa kiroldegian.

17:30 Txokolate eta Bollycao banaketa eta haurrentzako tailerrak gazte txokolan.

18:30 Gazteentzako jolasak gazte txokoko patioan.

19:00 Ikurrina igotzea.

19:30 Erretiratuentzako afaria.

22:00 Bolo txapelketa.

23:00 EH Sukarra taldearen kontzertua San Antolinen.

MAIATZAK 17, LARUNBATA

11:00 Kalejira Arrasateko gaiteroekin.

11:30 Puzgarriak San Antolinen.

12:00 Haurrentzako Asto Jaia.

12:00 Auzoko tenis txapelketako finala.

13:30 *Urrezko astakiloak* eman eta jartzea.

15:00 Auzo-bazkaria.

17:00 Kalejira.

17:00 Puzgarriak San Antolinen.

18:00 Sokatira sari nagusia.

19:00 Arrasate Musikalen emanaldia.

19:30 Buruhandiak eta gaiteroak.

23:00 DJ Amaia.

00:00 Moda ikuskizuna.

MAIATZAK 18, DOMEKA

11:00 Puzgarriak San Antolinen.

11:30 Gimnasia erritmikoa kiroldegian.

12:30 Triki-poteoa.

13:00 Pintxo-dastatzea San Antolinen.

13:15 Arrasate Musikaleko Bandaren kontzertua San Antolinen.

17:30 Zezentxoak eskolako patioan.

18:30 Kalejira trikitalariekin.

22:30 Suzko erruberak eta sorpresa ikusgarria.

Lunar gaiztoak eta azaleko minbiziak detektatzeko teknologia berriena eskaintzen ditu Tamayok

FotoFinder Dermoscope da azaleko minbizia garai detektatzeko teknologiarik aurreratuena gaur egun. Lunar susmagarriak modu digitalean markatzen dira ordenagailuan, hurrengo bisitetan lunaretan gertatu diren eta begi bistara ikusezinak diren aldaketarik txikiak ere detektatu ahal izateko. Egiten den azterketa bizkorra, min bakoa eta zehaztasun handikoa da, gainera. Honako abantailak ematen ditu **FotoFinder Dermoscope**: lunaren konparaketa xehea eta konparatiboa, melanoma (azaleko minbizia) hasierako faseetan diagnostikatzeko aukera; diagnostiko bizkiortiar horrek osatze-tasa handiak ahalbidetzen ditu; onberak diren lunaretan alferreko kirurgiak saihesten ditu eta azaleko minbiziaren diagnostikoan segurtasun handiagoa ematen du.

HIRU TUMORE MOTA

Azalean hiru tumore mota dira sarrien azaltzen direnak: epitelomak edo karginomak; basozelularra eta espinozelularra; eta melanoma.

TUMORE GAIZTOA

Hain zuzen ere, azken hori (melanoma) tumore gaiztoa da, normalean azalean eta oso gutxitan bestelako organoetan azaltzen dena. Lunar batean edo osasuntsu dagoen azalean ager daiteke, eta normalean ilunak dira, baina baliteke kolorerik ez izatea. Haien diagnostikoa susmo klinikoa abiapuntu hartuta egiten da, baina zauria mikroskopioaren bitartez begiratu konfirmatuegin behar da. Melanomen diagnostiko goiztiarra egiteko lagun-garri izan daiteke azalaren auto-azterketa egitea; erraza da hori, gainera. Hala ere, garrantzitsuena da dermatologoaren kontsultara joatea, eta aldika



Kontxi Tamayo, dermatoskopiaren lantzailearekin.

berrikusketa egitea. Mamografiak, elektrokardiogramak... aldiro modu prebentiboan egiten diren moduan, beharrezkoa da urtean behin dermatologo batekin azalaren azterketa orokorra egitea, eta biderik egokiena da dermatoskopia erabiltzea.

GOMENDIO OROKORRAK

Edozelan ere, lunar bat melanoma bilaka daitekeela detektatzeko badira oinarriko gomendio batzuk herritar guztiek jakin beharrekoak: asimetria, ertz irregularrak, hainbat kolore, sei milimetro baino diametro handiagoa eta garapen ezegonkorra (kolore aldaketa, haztea) izatea.

INFORMAZIO SAKONA

Hori horrela izan arren ere, bada lunarrak kontrolatzeko modu objektiboagoa: dermatoskopia. Azalari-lente bat aplikatzen zaio, argi berezia duena; eta haren bitartez, begi bis-

takoa ez den informazioa eskura daiteke.

ABANTAILAK

Dermatoskopiak eskaintzen dituen abantailak dira: lunaretan emandako aldaketak detektatu egin daitezke dermatologoari egindako bisitetan. Azaldu diren lunar berriak detektatzen dira. Eta alferreko kirurgiak saihestu egiten dira. Izan ere, badira lunar batzuk klinikoki itxura txarra dutenak, baina dermatoskopiaren bitartez onberak direla ikusten dira; eta beraz, kentzeko beharrik ez dutenak. Dermatoskopiaren bitartez lortzen den digitalizatutako analisia melanoma zein azaleko bestelako tumoreak diagnostikatzeko edo prebentzeko aurrerapauso handia da.

Kontxi Tamayo hasita dago **FotoFinder Dermoscope** teknologia berriarekin lanean, dermatoskopia digitalak ematen dituen abantaila guztiak eskainita.



FotoFinderrak ateratako argazkiak.



Seber Altube plazan egiten den baserriar azoka. | GOIENA

Baserriarren azoka, bidezko merkataritzaren ingurukoa

I.G. | ARRASATE

Apirileko etenaldiaren ostean, bihar berriro egingo da baserriarren azoka. Seber Altube udaberriz jantziko da, termometro-tara ez ezik, udaberria ortuetara ere iritsi da-eta.

Azokan hamasei postu egongo dira: bost herrikoak, lau bailarakoak, lau beste eskualde batekoak eta hiru berezi. Ahate-gutzien postuaz gain, lanabesen postua ere egongo da.

Bidezko Merkataritzaren Eguna

Maiatzaren 10ean ospatzen den Bidezko Merkataritzaren Eguna aprobetxatuz, zapatuko azokak ukitu berezia izango du. Harremanek jarri ohi duen postuaz gain, Jesus Romerok egiten dituen pintxoak kakaoz eta kafez egindakoak izango dira. Horiek eskuratzeko, gainera, azokan produktoren bat erosten dutenek pintxo batengatik trukatu ahal izango duten txartel bat jasoko dute.

Arrasate Musikalek osterara antolatu du udaberri zikloa, iazko ziklo arrakastatsuari jarraipena emanda

Herriko musikari gazteek askotariko emanaldiak egingo dituzte hainbat txokotan. Aste bukaera honetan, adibidez, zapatuan Monterron parkeko agertokian musika ikasten ari diren 100 gaztek emanaldia egingo dute, 13:00etan. Domekan, aldiz, 13:15ean, musika eskolako bandak Musakolako jaiak girotuko ditu. Maiatza eta ekaina bitartean, Arrasate Musikaleko talde eta bakarlariek 27 emanaldi egingo dituzte, eta eskolako arduradunek aurreko urtean ekimenak izandako ongietorri beroa errepikatzea espero dute.



DERMATOLOGIA LASER
Concepción Tamayo dk.

RPS: 6/14.

Atzeko kalea 6, behea
OÑATI
Tel. 943 71 61 82 / 620 12 48 43.

Aladdinen ipuinaren moldaketa berria eroango du bihar Gorakada taldeak Amaia Udal Antzokira

Gorakada antzerki taldearen *Aladdin* haurrentzako antzezlanak ikusteko aukera egongo da bihar, zapatua, 17:00etan, Amaia antzokian. Txotxongilo ikuskizuna da *Aladdin* eta kriseiluko jeinuaren eta Aladdinen istorioaren kontakizunaren moldaketa bat da. Hala, Gorakadaren ekoizpenaren kasuan, haurra da Aladdin eta jeinuak aberastasun eta opariaren ameskeriak laga eta maitasuna eta laguntasunaren benetako balioa zein den erakutsiko dio, haz dadin.



Aladdin-eko txotxongiloak. | GORAKADA

Besaidek antolatutako Mondran Bike 2014 ibilaldia maiatzaren 31n izango da

Maiatzeko egitarau mardularen baitan, hilaren amaieran Mondran Bike MTB irteera egingo dute. Maiatzaren 31n izango da, zapatua, eta izen-ematea ibilaldiaren egunean bertan egin behar da, 08:00etatik 09:00etara, Musakolako kiroldegian, han izango baita irteera puntua. Horrez gain, datozen asteetarako agenda ere gertu dauka Besaidek. Hala, erreka zintzurak jaisteko ikastaro antolatu du eta Beteranoen Martxa ere gertu dauka.



lazio ikasturte amaierako dantzaldia, Garaian. | GOIENA

'Herrixa dantzan' itzuliko da gaur, Uarkapen orain

J.B. | ARRASATE

Bueltan da *Herrixa dantzan* egitasmoa Arrasaten. Portaloi elkarrek antolatuta eta, ohi bezala, Patxi Montero gidaritzan dela, bi saio iragarri dituzte. Lehenengo gaur, 20:15ean, Uarkape pilotalekuko taberna ireki berria eta bigarrena ekainaren 6an, egubakoitza baita ere, leku eta ordu berean.

Erdialderago

Ikasturte honetan ez da Arrasaten dantza saio herrikoi ezagunaren saiorik egin. Jendea erakartzeko, herriaren erdialdetik gertuago dagoen leku egokiago baten bila ibili dira antolatzaileak

–azken saioak Garaia guneko tabernan egin zituzten–, eta, azkenean, Uarkapeko ugazaba berriekin tratua egin dute. Ikasturtea amaitu aurreko saio biak proba modura hartuko dituzte, erantzuna baloratzeko.

Denetarikoz dantzak

Herrixa dantzan saio irekia da guztiz eta helburua bakarra da: animatzen de edonork ondo pasa dezala. Dantza eta musika tradizionala hartzen dituzte oinarri eta askotariko dantzak egiten dituzte: sokan, bikotean, taldeka... Monterok gidatuta. Saioak doakoak dira eta parte hartzea ere libre da.

ZALDIBAR

EMAITZAK

Haizea's Weah - Fidel & Discipulos	6-1
Betrayer - Sonografos	4-6
Ostantz - Abokajarro	6-5
Dribling - Iluntz	5-6
Lasagabaster - Aldatz	7-2
Sport in tus Bragas - Jibaros	5-3

PARTIDUAK

MAIATZAK 17, ZAPATUA	
11:00 Lasaga - Abokajarro / Haizea's W.	
12:00 Dribling - Haizea's W. / Abokajarro	
13:00 Aldatz - Sonografos / Dribling	
MAIATZAK 18, DOMEKA	
11:00 Iluntz - Jibaros / Betrayer	
12:00 Betrayer - Ostantz / Iluntz	
13:00 Sport - Fidel & Disc. / Ostantz	

SAILKAPENA

A MULTZOA		P	J
1 Dribling	16	4	
2 Iluntz	13	4	
3 Haizea's Weah	11	4	
4 Sport in tus Bragas	8	4	
5 Fidel & Discipulos	6	4	
6 Jibaros	4	4	

B MULTZOA		P	J
1 Aldatz	16	4	
2 Sonografos	14	4	
3 Lasagabaster	13	4	
4 Ostantz	8	4	
5 Betrayer	6	4	
6 Abokajarro	1	4	

Amaiera, geroago eta gertuago

Bigarren faseko azkenengo jardunaldia jokatuko da oraingo asteburuan. Hurrengoan, berriz, final-laurdenak jokatuko dira.



Arrasate

**PREZIO BEREZIAK
BEHEKO PISUETAN**

2 log. **168.000 €-tik + BEZa**

3 log. **215.000 €-tik + BEZa**

%100eko finantzaketa

KALITATE HOBERENA ZURE ESKUETAN

Motordun pertsianak, domotika, haritzeko parketa, haritzeko ateak, hari musikala, aireztatutako fatxada, txorrota termostatikoak, tabike BIKOITZA fatxadetan, tabike HIRUKOITZA etxebizitzaren arteko banaketa hormetan

EZ GALDU AUKERA!

Salmenta prezioaren %100 eskaintzeko aukera dugu merkatuko baldintza onenetan.

**ZURE
ETXEBIZITZA
SALDU
BEHAR DUZU?**

Erreserbatu etxebizitza bat eta zurea saldu arte ez dugu eskrituratuko



Tel 943 25 38 21 E-mail info@inmobibai.com
Deba Kalea 3 - 20500 Arrasate (Gipuzkoa)

www.inmobibai.com





Mugikortasun arazoak dituen txakur bat gorpildun aulkiarekin. | ZURTZ ELKARTEA

Txakurren abilezien eta terapien erakustaldiak

Txakurrendako protesiak, akupuntura eta orrazkerak erakutsiko dituzte domekako Txakurraren Egunean

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Txakurraren eta gizakiaren arteko errespetuaren mezua zabaldu gura du domekan egingo den Txakurraren Egunean. Halaxe adierazi du ekitaldia antolatu duen Zurtz elkarteak.

Protesiak

Horrez gain, baina, elkartearen berri ere eman gura dute. "Mugi-

kortasun arazoak dituzten txakurrei laguntzeko egiten dugu lan, gehienbat. Hau da, mugikortasuna izaten lagunduko dieten protesiak edo gorpildun aulkiak ditugu, adibidez. Hala, domekan ere ekarriko ditugu horrelako tresnak, eta erakustaldia egingo dugu. Azalpenak ere emango ditugu eta joaten den edozein herritarrek izan ditzakeen zalantzak

argitzen ahaleginduko gara", dio Araban egoitza duen Zurtz elkarteko Gema Gartzia.

Mugikortasun arazoak ez ezik, bestelako egoeren batzuei aurre egiteko tratamenduak ere izango dituzte hizpide. Adibidez, azaleko arazoak edo portaera arazoak dituzten txakurrendako dauden terapia naturalak erakutsiko dituzte. Esterilizazio eta mikrotxip

kanpainei buruz berba egingo dute. Bestalde, horrekin batera, ile apaindegian egondako txakurrak ikusiko dira.

"Akupunturaren erakustaldi bat prestatu dugu. Baita jinkana bat ere. Eta, bestalde, txakurren kakak jabeok jaso behar ditugula gogoraraziko diegu joaten dien herritarrei", azaldu du Gema Gartzia.

Terapia

Zurtz elkarteak antolatuta bada ere, txakurrarekin lan egiten duten hainbat oñatiar izan dira egun hori prestatzen. Horien artean daude, besteak beste, Miau albaitaritza zerbitzua eta Kidecan.

Txakurrek terapiarako duten abilezia eta balioa erakutsiko ditu Kidecan-eko Ainhoa Billarrek, adibidez. Urtean zehar ikaste-teeetako umeekin edo zaharren egoitzako egoiliarrekin egiten dituen tailerretan egiten duenaren erakustaldi bat egingo du. "Bi zati izango du domekarako prestatu dudanak: batetik, terapiaren erakusle izango den bi adibide jarriko ditut. Mutil gazte batekin izango da bat eta zaharren egoitzan bizi den heldu batekin bestea. Bigarren zatian, berriz, abilezia probak egingo ditugu umeekin eta txakurrekin", adierazi du Billarrek. "Beti egiten dugu lan positiboan, elkarren arteko errespetua garrantzitsua da", gaineratu du.

Plazako frontoian

Domeka goizean egingo dituzte erakustaldiak. 11:30ean hasi eta 14:00ak arte bitarteko egitaraua prestatu dute. Jabe arduratsuen izango da lehena.

Foruen plaza ondoko frontoian izango dira erakustaldi guztiak eta, eguraldi txarra egiten badu, berriz, berdura azokan.

Eteo eraikinaren erabilera berria gero eta definituago dago

O.E. | OÑATI

Eltzia proiektua definitzeko herriko eragileekin egindako bileretan eztabaidatu dena elkarbanatzeko lehen saioa egin dute Eteo eraikina erabiltzeko interes duten eragileek.

Eteon zer eta nola egin zehazteko zazpi *eltze* edo taldetan banatu dituzte herriko eragileak. Talde bakoitzarekin bilerak egin dituzte, eta horietan egin-

dako ekarpenak eta eztabaidatutako puntuak *eltze* guztiek parte hartuko duten bileretan elkarbanatuko dituzte orain. Eguaztenean egin zuten ideiak eta ekarpenak bateratzeko lehenengo, eta hilaren 28an egingo dute bigarrena; 19:00etan izango da, Eteon.

Bateratze prozesu horretan jasotakoak definituko du Eteo eraikinaren erabilera berria.



Eguazteneko Bateratze prozesuan parte hartu zutenak. | B.A.



ALONIA MENDI

Lau domina Frantziatik

Nerea Diaz eta Xabier Urbina igerilariak lau domina irabazi dituzte Tarbesko (Frantzia) Nazioarteko Meeting-ean. Aloña Mendiko igeriketa taldeko infantil eta kadete mailetakoko igerilariak dira, eta Gipuzkoako Selekzioarekin izan dira han. Diazek urrezko domina eskuratu zuen 100 metroko bizkar proban eta zilarrezkoa, 50ekoan; Urbinak, zilarrezko domina bana, 50 metroko bizkar proban eta 4x100 metro estiloetan.

Miguel Delibes biologoa dator bihar Oñatiko kultura etxera

O.E. | OÑATI

Oñatiko Natur Eskolak gonbidatuta, Miguel Delibes Castro biologo eta zientzialaria etorriko da bihar, zapatua. Bioaniztasunaren galerari buruz mintzatuko da, *La crisis de la biodiversidad* izeneko hitzaldian. Kultura etxean izango da, 12:00etan.

Tolosatik

Delibes Valladoliden (Espainia) jaio zen, eta Tolosan izan da, hango Naturaldia jardunaldietan parte hartzen. Izan ere, 25. urteurrena bete du jardunaldi horrek aurtun, eta parte hartu duten sona handiko hizlarietako batzuk gonbidatu dituzte ospakizunerako. Gaur izango da hitzaldi hori, eta bihar, antolatzaileen eskaintzari esker, Oñatin izango da.

18:00etan jaitsiko da Isidrotxo basurdea Kasablankara

Kontzertuak, Gorriti eta bere animaliak, olagarro eta sagardo dastatzea, txorimaloak, pintxo-potea, auzo bazkaria, haurrendako jolasak... Egitaraua bete dute gaur hasiko diren Kasablankako jaiek.

Berdintxiketan lasterketa gaur, berdintasunaren alde

MUko Enpresagintza Fakultateak antolatuta, handik hasiko da lasterketa, 19:30ean. Bost kilometroko ibilbidea izango da, eta bikote mistoetan zein bakarka parte har daiteke. Laugarren aldia da.

Bazkideendako kontzertua egingo du bihar Ganbarak

Oñatiko Ganbara Abesbatzak kontzertu "berezi eta ezberdina" emango du urtero bere bazkideendako. Aurtengoa bihar, zapatua, izango da, Arantzazuko santutegian, 19:00etan. Euskal musikari zuzendutakoa izango da.

Ekainaren 8ko giza katerako metroak saltzen egongo dira

Oñatiko Gure Esku Dago ekimeneko kideak ekainaren 8ko giza katerako metroak saltzen egongo dira gaur, egubakoitza, 19:00etatik 20:00etara, Foruen plazan eta bihar, toki berean, 11:30etik 13:30era.

Bihar banatuko ditu Bedelkarrek margo lehiaketako sariak

M.B. | BERGARA

Malen Aranburu (6 urte), Nora Gabilondo (8 urte), Alazne Urkiola (10 urte), Jennifer Caballero (12 urte) eta Naroa Arenaza (13 urte) izan dira Bedelkar dendari eta ostalarien elkarteak antolatu duen 6 eta 16 urte arteko neska-mutikoen-dako margo lehiaketako ira-

bazleak. Merkataritzaren gaineko margo lehiaketa izan da eta Bedelkar elkarteak ordezkariak oso pozik daude jasotako erantzunarekin: "287 lan jaso ditugu, eta, erantzuna ikusita, bigarren edizioa ere deituko dugu", esan dute. Sari-ematea bihar, zapatua, egingo dute, 13:30ean, kultura etxean.

Pazkoetarako film laburren lehiaketa deitu du Herri Mugimenduak, hirugarren aldiz

Dagoeneko irekita dago lanak aurkezteko epea. Gaiari dagokionez, librea da; luzerak, berriz, gehienez zortzi minutu izan beharko ditu. Aurkeztutako lan guztiak Pazkoetarako martitzenean emango dira, ekainaren 10ean, 22:30ean, txosnagunean, eta sariak ere bertan erabakiko dituzte ikusleek. Informazio gehiagorako: xaxaukonpartsa@gmail.com eta 615 73 45 53 (Jone).

Nerabezaroaren gaineko hitzaldia antolatu du Udalak hilaren 21erako, 18:00etan, Irizar jauregian

Gure seme-alaba nerabazarora iritsi dira; dagoeneko ez dute gurasoen premiarik? beraien heziketan nola jokatzen dugu gurasook? izenburupean izango da. Etxadiko kideek emango dute; hau da, Orientazio Psikologikorako Zerbitzua eskaintzen duten profesionalak. Joateko interesa dutenei izena aurrez ematea eskertuko zaie (943 77 91 26) Irizarren gela egokia lotzeko.

Bergara Garbia plataformak Udal Gobernu taldearen "pasibotasun estrategikoa" salatu du

"Hondakinen batzeko sistema inposatu eta gero", Gobernu taldetik "inongo berririk" ez dutela diote. "Bergara garbiago bat izateko hasierako diru xahutzearen ondorioak ikusten ari gara", diote. Sistema berriarekin "hondakinak kalean denbora gutxi egongo zirela argudiatzen zuten", diote, "baina errealitateak erakusten dizkigu kuboak zintzilik, hutsik zein beteta, eguneko ia ordu gutzitan". Udalak "fitxa mugitu" eta "sistema sortzen ari den aurrezkiak herriko familiei erakusteko" unea dela ere uste dute.

OHARRAK

63KOEN BAZKARIA

Hilaren 24an Txarrantxan egingo dute bazkaria. Joan nahi duenak hamar euro aurreratu beharko ditu Dixula edo Ariznoa tabernetan, hilaren 18a baino lehen. Bazkariaren aurretik, 13:00etan plazan batuko dira.

BI LANPOSTU

Obra eta Zerbitzuen brigadarako -aldi baterako eta txan-

dakako kontratuarekin- obretako peoi espezialista kontratatuko du Udalak, eta lehen mailako ofizial igeltseroen lan-poltsa osatu. Argibide gehiago, www.bergara.net webgunean.

PANTEOI-BURDIN HESIA ZERGAREN ORDAINKETA

Panteoi-burdin hesia zergaren erreziboa atzotik uztailearen 15 arte ordain daiteke.

Oxirondo azokan lore eta landare erakusketa bihar

Etxeko leiho eta balkoiak lorez apaintzeko lehiaketa ere deitu du Udalak, eta izen-ematea zabalik dago

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Maiatza loreen hilabetea da, askoren esanetan, eta aurtengoan hala izango da, Bergaran, behintzat, lehenengo aldiz leihoak eta balkoiak lorez apaintzeko lehiaketa deitu du-eta Udalak. Azoka Bergaraten egitasmoaren barruan antolatu dute eta helburu bikoitza du: alde batetik, lehen sektorea indartzea; bestetik, herria edertzea, Arianne Kareaga Azoka Bergaraten egitasmoko arduradunak azaldu duen moduan.

Parte hartzeko izena eman behar da eta dagoeneko zabalik dago epea kultura etxera deituta (943 77 91 58), bertara joanda zein Bergara.net webgunean, ekainaren 16ra arte. Balkoiek eta leihoek,

gutxienez, ekainaren 16tik uztailearen 6ra bitartean egon beharko dute apainduta, betiere, oinezkoendako inolako arriskurik edo oztoporik sortu gabe.

Bi sari potolo

Parte-hartzaile guztiek zenbaki bat jasoko dute balkoian edo leihoan jartzeko. Horri jarraituz, lehiaketaren epaimahaikideek originaltasuna, apaintzeko kalitatea, loreen iraunkortasuna, diseinu floristikoa eta egitura moduan erabilitako materiala hartuko dituzte kontuan epaia emateko.

Bi sari egongo dira: 400 eta 200 euroko bonu bana herriko dendetan gastatzeko. Sari-ematea

San Martzial erromerian egingo da, ekainaren 6an.

Bihar, azoka

Beste bi ekintza osagarri ere baditu loreekin lotutako ekimenak: batetik, lore mota nagusien inguruko xehetasunak eza-gutzeko aukera egon da eguaztean egindako tailerrean. Bihar, bestalde, lore eta landare azoka egingo da Oxirondo azokan, 09:30etik 14:00etara.

Lauzpabost lore saltzaile egongo dira: azokan izan ohi diren biak eta kanpotik etorritakoak. Haurrak landare eta loreen mundura gerturatzeko asmoz, euren-dako tailerra ere egingo du Jardunek azokan.



Zapatuko moda erakustaldiko modelo bikote bat. | IIMANOL SORIANO

Oso zapore ona laga du moda erakustaldiak

Zapatuko ekitaldia oso-osorik eskainiko du Goiena telebistak asteburuan eta datorren astean

ENKO AZKARATE | BERGARA

Moda erakustaldiak oso zapore ona laga die antolatzaileei. Lan handia egin behar izan duten arren, merezitakoa izan da. 1.000 lagunetik gora batu ziren ikustera

alfonbra gorri gainean aritu ziren herriko modeloen arropa, oinetako, osagarri eta orrazkerak.

Herriarrak ere gustura geratu ziren ikusitakoarekin, eta urduri, baina pozik, era berean,

modeloak, 40 bat. Herriko komertzioetan denetik eta onetik aurki daitekeela agerian geratu zen.

Leire Iruin zinegotziak zoriondu nahi izan ditu Bergara Bizi ekimeneko mahaikoak, egin duten lanagatik, eta aurrerantzean ere "beste ekimen berritzaile" batzuk bultzatzeko prest azaldu da. "Herrian erosita denok irabazten dugu", gehitu du.

Argazki lehiaketa

Moda erakustaldian herritarrek atera eta sare sozialetara igo zituzten argazkiak batu eta Goiena.net webgunearen Bergara Bizi blogean jarrita daude. 40 bat daude bertan, jendeak aukeratzeko.

Bozkatuenak 150 euroko erosketa bonua izango du eta, bozkatzaileen artean, bestalde, beste 50 euroko bonua zozkatuko da. Gaur, barikua, amaitzen da bozkatzeko epea. Asteleheneko [Goiena](http://Goiena.net) paperekoan aditzera emango dira sarituak.

Bestalde, moda erakustaldia oso-osorik eskainiko du Goiena telebistak: zapatuan, 16:00etan eta 22:00etan; eta domekan, 12:00etan eta 19:00etan.



IXAUN Jatetxea

Elosu auzoa 6 - Bergara
Tel.: 680 77 69 33

Gosariak
Bazkariak
Afariak
Sagardotegiko menua
Eguneko menua
Plater konbinatuak
Karta
Ogitartekoak
Pintxoak
Enkarguak

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

TOKI-ONA

Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak

Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 39 53

disdira

ile-apaindegia
edertze gela

Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

Belcebluesek gaztetxoentzako kontzertu didaktikoa eskainiko du

IMANOL GALLEGU | BERGARA

Bergarako Belceblues taldeak, Memphisen (AEB) Munduko Blues Txapelketan final-laurdenetara iritsi ostean eta estudioko hiru-garren diskoa prestatzen ari den bitartean, kontzertu didaktikoak egiten ditu han-hemenka.

Domekan (18:00) Zabalotegi aretoan egingo duten emanaldi didaktikoa, bluesaren sorrera eta jatorria azalduko diete gerturatu diren gaztetxo eta guraso guztiei. "Kontzertu didaktiko honek duen ezaugarri nabarmena da helduentzako zein gaztetxoentzako dela egokia. Mundu guztiak gozatuko du", azaldu du taldeko bateria-jotzaile Oihan Vegak.

Mota horretako emanaldietan eskarmentu handiko taldea da Belceblues, eta domekan, gozagarria bezain hezitzailea izango den kontzertua eskainiko dute.

Bluesaren ibilbidea

Emanaldi didaktikoa, AEBetako esklabo beltzetatik hasi eta egungo blues elektrikora iritsi arteko ibilbidea egingo dute, bideo dibertigarri, adibide erakargarri, bitxikeria ikaragarriekin eta jokoekin. Hori guztia, zuzeneko musikarekin batuta.

Bluesaren erritmoak gure musika eta kulturarekin dituen antzekotasun eta ezberdintasunak ere azaltzen dituzte emanaldi berezi horretan.

Bi bakarlarik beteko dute Egubakoitzak Kartzelaren gaurko saioa

Gaur, kartzela zaharreko ohol-tza bi ahotsek soilik beteko dute. Pettiren ahots urratu eta sakonak bluesaren arimaz kutsatuko ditu kartzela zaharreko paretak. Isuo Sasiia zarautzarrak, aldiz, bere azken diskoa aurkeztuko du. Hori guztia gaztetxean, gaueko hamarretan; sarrera hiru euro da.

'Auzoko' egitasmoa ezagutzera emateko dokumentala

Ekintza bereziak antolatu dituzte *Auzoko* egitasmoa herritarrei erakusteko. Martitzenean ekingo diote *Auzoko* ezagutzera emateari; horretarako, Zabalotegi aretoan, 20:00etan, *GU, jatorri anitz, herri bat* dokumentala emango dute. Eta 24an, euskara ardatz hartuta aniztasun jaia egingo dute.

Laguntzaileak behar ditu Gure Esku Dagok ekainaren 8rako

12.000 lagun inguru espero dituzte

M.B. | BERGARA

Hilabete eskas falta da erabakitze eskubidea aldarrikatzeko giza katearen egunerako, ekainaren 8rako, eta prestaketa lanak aurrera doaz. Giza katea Bergaratik pasako denez, kanpotik datozen herrien antolakuntza ere Bergarako Gure Esku Taldeari dagokio, hein handi batean -12.000 lagun espero dira-. "Jende kopuru izugarria behar da antolakuntza lanetarako", Gure Esku Dagotik esan dutenez.

Bereziki, hiru zereginetarako behar dira boluntarioak: batetik, Bergaratik igarotzen diren kilometroez arduratzeko herritarrek behar dira, 10:00 inguruan hasi eta giza katea amaitu arte. Parte-hartzaileen mugimendua zaintzea, azalpenak ematea, koordinatzea... izango da arduradun horien zeregina.

Bestetik, kilometroetako informazio puntuetarako lagun-

tzaileak ere behar dira. Kanpoko autobusak iristean azalpenak ematea eta kilometroetako arduradunei laguntzea izango da boluntario horien zeregina. Litekeena da metroen salmenta postuan ere egon behar izatea. Eta autobusetatik pertsonak jaitsi zein igotzeko guneetan, horiek koordinatzea ere behar dute laguntza.

Laguntzeko interesa duten herritarrek *bergarakogureeskudago@gmail.com* helbidera idatz dezakete, edo 649 89 94 17 zenbakira deitu (Aitor).

Horrez guztiaz gain, eskerak eman nahi dizkiete Bergarako Gure Esku Dago lantaldeko kideek herritarrei: "Metroen eta kamiseten salmenta izugarriko arrakasta izaten ari da. Hala ere, ekainaren 8a bitarteko egun hauean, oraindik zatia erosi ez dutenak ere animatu nahi ditugu parte hartzera".

LABEGARAIETA

EMAITZAK

Poteo Izarrak - Minimou Taldie	5-5
Birgerias - Komando Piperrak	4-5
Minimou Taldie - Komando Piperrak	2-4
Irama Elgeta - Beti Jai	9-4
Irama Elgeta - Diego Valor	0-3

SAILKAPENA

A TALDEA	P	J
1 Poteo Izarrak	15	6
2 Minimou Taldie	12	6
3 Komando Piperrak	9	6
4 Birgerias	0	6
B TALDEA	P	J
1 Diego Valor	18	6
2 Irama Elgeta	9	6
3 T.C.C.	6	6
4 Beti jai	3	6

PARTIDUAK

MAIATZAK 18, DOMEKA

17:00 Minimou Taldie - Birgerias /

Antolaketa

18:00 Diego Valor - Beti Jai /

Antolaketa

19:00 Poteo Izarrak - Irama Elgeta /

Antolaketa

20:00 T.C.C. - Komando Piperrak /

Antolaketa

'Play-off'-ak

Aste honetan hasiko dira Labegarietako ligako *play-off*-ak.

San Joxepek zuzendaritza berri du

Rosa Iburguren, Mari Asun Gardoki eta Iñaki Arrieta dira San Joxepe elkarteke zuzendaritzako kide berriak. Bertako lehendakari Iñaki Zabalak hauxe adierazi du: "Zuzendaritza berriak eta urte berriak beti dakar aldaketa bat".



SAN JOXEPE

Bergara, hurrengo fasetik gertu Herri Arteko Pilota Txapelketan

JULEN APERRIBAI | BERGARA


Ondo hasi du Bergarako Herri Arteko Pilota Txapelketa. Joan den egubakoitzean izan zen lehen jardunaldia, eta hiru kategorietatik bitan Errenteria garaitzea lortu zuen Bergarako. Kadeteek eta nagusiek 22-8 eta 22-2 irabazi zuten, hurrenez hurren. Gazte mailakoek, berriz, ezin izan zituzten errenteriarren mendean hartu eta 22-18 galdu zuten.

Bihar, zapatua, jokatuko dira itzulerako partiduak, eta aurrera egiteko aukera ederra dute etxekoek. Herrietako klubentzat dagoen txapelketa garrantzitsua da hori.

Bergara Hiria eta Deba Arroa

Bestetik, Bergara Hiria txapelketako partiduak jokatu ziren martitzenean, 19:30ean. Nagusien kategorian, Santxo-Urrusola bikoteak 17an utzi zituzten Dario eta Peñas. Promesetan, berriz, Espinalak eta Sarasak 22-12 irabazi zieten Elordiri eta Etxeberriari. Garaipen horiekin, txapelketako finalerdietan daude dagoeneko bikote irabazleak.


Deba Arroa txapelketako lehiak ere izan ziren eguaztenean. Kadeteek eta nagusiek ez zuten zorterik izan eta galdu egin zuten partidua; gazteek, aldiz, Soraluze mendean hartu zuten.



Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta

Arruriaga 11
686 943 918

MIZPILDI



OKINDEGIA

Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

PINTXOAK eta
OGITARTEKOAK
SEKULAKO MARTXA!!

EUXEBIO II

Irala z/g
Bergara
943 76 07 92



BERGARA MARMOLERIA PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimerak

Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

TELEIXA BILTEGIAK

Eraikuntza
materialak

Telleria (Labegarieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93

Txente Rekondo nazioarteko analistaren hitzaldia

Antzuolako EH Bilduk antolatuta, Txente Rekondo nazioarteko analista hitzaldia egitera etorriko da. *Europa, estatu gabeko herriak eta erabakitze eskubidea* da solasaldiaren izenburua eta maiatzaren 19an izango da, Orlanaren, 19:00etan. Erabakitze eskubidearen aukeraz, abantailaz, arriskuez... hitz egingo du Rekondok.



Txente Rekondo. | EUSKADIASIA.COM

Bertso jaialdia egingo da gaur gauean Torresoroan

Antzuolako Sasibertsolarixak taldeak antolatuta, bertso jaialdia egingo da gaur Torresoroan, 22:00etan hasita. Aitzol Iturbe, Andoni Egaña, Jokin Uranga, Alaia Martin, eta Jokin Labaien igoko dira oholza gainera. Gai jartzailea Iraia Gabilondo izango da. Aitzakia ederra Torresoroako harmailak herritarrei modu ofizialean aurkezteko.

Arano eta Leitza arteko mendi ibilaldia egingo du Arrolak

Maiatzaren 24rako (zapatua), Aranon, Urepelen eta Leitza barrena egingo den mendi irteera antolatu du Arrolak -4-5 orduko buelta-. Izena maiatzaren 19an eman behar da 19:00etatik 20:00etara, Orlaneko lokalean. Edo aurrez posta elektronikoa bidali arrolamt@gmail.com helbidera. Prezioa 10 euro da; ikasle eta langabeek, 8 euro.

OHARRAK

KONTZERTUA GAZTETXEAN
Oñati 3zirik diskoa zuzenean, bihar 22:30ean.

ODOL ATERATZEA
Odola emateko aukera hilaren 22an Orlanaren, 17:30ean.

ALARDEAREN WEBGUNEAN
Aurkezpena hilaren 20an, 18:30ean, Orlanaren. 22an, *Alardearen seme-alabak* dokumentala, gaztetxean, 19:00etan.

Euskaratik urrun daudenak gerturatzeko egitasmoa abian

'Auzoko' ekimenaren eguazteneko lehen saioan parte-hartze polita

AMAI.T. / MAIDER.A. | ANTZUOLA
Auzoko ekimena abian da Antzuolan. Aurreko astean aurkeztu zuten egitasmoa herritarren aurrean Maite Telleria dinamizatzaileak eta Nagore Dos Santos Gizarte zinegotziak. Asteon, eguaztenean, berriz, lehen saioa egin dute auzotarrek eta auzokideek. Hala, aurrerantzean, asteazkene-ko 18:00etan Orlanaren batuko dira *Auzoko* egitasmoa burutzeko. Ateak, parte hartu gura duen herritarrendako zabalik daude.

Elkarbizitza prozesua

2013an Antzuolako Udalak Elkarbizitza prozesua jarri zuen martxan, 2012ko parte-hartze prozesuan herritarrek egindako eskarari erantzuteko asmoz.

Bertan garatutako ekintza batzuk jada martxan daude; Aisa programa, adibidez. Etorकिनak euskarara hurbiltzeko egitasmo bat da Aisa eta hamahiru etorkinek hartzen dute parte. Baina beste batzuk martxan jartzen ari dira herrian; adibidez, aurkeztu berri den *Auzoko* egitasmoa.

'Auzoko' abian da

Topaguneak eta Uemak sortuta-



Auzoko egitasmoa aurkeztu zuten jendaurrean Orlanaren. | AMAIA TXINTXURRETA

ko programa da *Auzoko*, eta euskara modu ludikoan ikasteko eta komunikatzeko egitasmo bat da. "Ez dira euskara klaseak izango. Euskara ikasteko eta euskaraz komunikatzeko modua jolasak edo antzerkia izango

dira", azaldu digu Maite Telleria *Auzoko* ekimenaren dinamizatzaileak.

Hiru helburu hauek ditu: euskaratik urrun daudenak euskarara ekartzea, herrian dagoen aniztasuna eta hizkuntza anizta-

suna ezagutzea eta zubi berriak sortzea herrian bertan.

Bi profiletako pertsonak hartzen dute parte: auzotarrek, bate-tik; hau da, euskaraz hitz egiten dutenak. Eta auzokideak, beste-tik; hau da, euskaraz hitz egiten ez dutenak. Hauxe lortu nahi da *Auzoko* egitasmoarekin herrian: "Elkar ezagutza berriak emateko aukera bat da herriarendako. Euskararendako, aldiz, aliatu berriak bilatzeko modua eta euskaraz hitz egiten ez duenarendako tresna bat izango da herrira gerturatu ahal izateko", azpimarratu du Telleriak.

Parte-hartzea

Auzoko-ren aurkezpena animatu ez ziren herritarrek aukera dute hemendik aurrera eguaztene-ko egingo diren saioetan parte hartzeko. Nagore Dos Santos zinegotziak herritarrek egitasmoan parte hartzea animatu nahi izan ditu. "Eguaztene-ko 18:00etan izango dira saioak. Parte hartu nahi duenak ez dauka asteazkene-ko etortzeko konpromisorik; hamabostean behin, hilean edo bi hilean behin... nahi duenean etor daiteke saioetara. Askotan, kanpotik datorrenari esfortzua eskatzen diogu eta esfortzu horretan guk ere ahalegina egin beharra daukagu laguntzeko", azaldu du Nagore Dos Santos udal zinegotziak.

Euskaratik urrun dagoen jendea euskarara hurbiltzeko lanean jarraituko dute, beraz, Antzuolan *Auzoko* egitasmoarekin.

San Isidro azoka bihar ospatuko dute herritarrek

Maiatzaren 15ean da, berez, baseritarren eguna, baina ganadu eta barazki azoka bihar egingo da

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Herriko artisauak, ganadua, fruta eta barazki salmenta postuak... San Isidro eguna ospatzeko baseritarren produktuak ez dira faltako. Goizeko bederatzietatik eguerdiko ordu biak arte izango dira. 11:00etan, kukumarro erakusketa egingo dute plazako iturri inguruan eta 13:00etan, sari banaketa Orlanaren. Gainera, 11:00etan, salda banatuko dute Trekutz elkartean. Eguerdian,

aldiz, txistularien eta trikitilarien kalejira izango da. 13:30ean, argazki lehiaketako irabazleen sari banaketa Orlanaren. Asteburuan ikusgai izango dira argazkiak, 18:30etik 20:30era.

Arratsaldeko bostetan, euskal presoen dispertsioaren aurkako ekimena izango da: *Pilotakadaz pilotakada, sakabanaketa-aren aurka*, hain zuzen ere. Bada, besteak beste, umeen pilot partidak izango dira.



San Isidro egunean egindako artisau azoka, iaz. | GOIENA

'600 baietz!'

Antzuolako Gure Esku Dagok antolatuta, 12:30ean, emakumezko harri-jasotzaile batek erakustaldia egingo du; hala, sei aldiz

jasoko du 100 kiloko harria. *600 baietz!* ekimenaren harira, metroak eta kamisetak erosteko aukera ere izango da plaza inguruan jarriko duten postuan.

Barandak jarri dituzte Eguzkin

Asteon amaitu dituzte Eguzki auzoko erreka ondoko baranda berriak jartzeko lanak. Iaz hasitako planaren jarraipena izan da. Beheko auzoan, eskola aurrean eta Ibarren lan txikiak ere egin dira. Udaletik azaldu dute lehentasuna eman nahi izan dietela lanei eta datorren urterako ere diru partida bat bideratuko dutela.



MAIDER ARREGI

AUTOAK

Ekipatuak eta prezio onean

Auto-etxeen eskaintza erakargarriek eta Pive planak ekarri dute auto gehiago saltzea

Autoen sektorea gupida barik astindu du krisiak: iaztik hona, baina, salmentak igo egin dira. Igoera horretan zuzenean eragin dute kontzesionarioek eskaintzen dituzten finantzaziorako erraztasunek eta, bereziki, Pive planak. Ez horrek bakarrik, auto etxeak ahalegin bereziak egiten ari dira -eta modelo berriak kalitatezkoak, funtzionalak, kontsumo txikikoak eta seguruak izan daitezten.



Ford Kuga berria.



Citroen C1 utilitario erabat berritua.

FORD: TURISMOA ETA FURGONETA, BIAK BATEN

Bi mundu, hainbat behar eta makina bat aukera batzen dituzten modeloek piztu dute arreta Forden. Bi modelo berriekin, Tourneo Connect eta Kuga berria, turismoaren abantailei eta furgonetaren aukera handiei muzin egin gura ez dieten horiek kontzertatu dituzte. Hain zuzen, Connect-aren salmentak asko ugartu direla nabarmentzen du Ford Mugarriko Rafa Etxabe saltzaileak. "Furgoneta izatez, baina turismo baten akabera duena", azaltzen duenez. "Segurtasunean maila altu-altuan" dagoen autoa dela azaltzen du Etxabek, eta, kontsumoari dagokionez, ohiko autoen motorra duela. "Auto honek familiarraren lanak betetzen ditu eta espazio handia eskaintzen du". Argitzen duenez, furgoneta handia izan dutenak tarteko auto mota horretara hasi dira aldatzen asko, eta Fordetik bertatik ere joera horrekin bat egiten dutela. Talde horretan Kuga sartuko litzakete, "betidanik ondo saldu dena", eta aipatzen du modelo



Volkswagen Golf modelo berria.



Dacia Dokker, erabilera askotariko furgoneta.



Nissan etxearen Quashqai berria.

honetako auto handiak "ezelako transformazio barik lo egiteko lekua" ere badaukala, esate baterako. "Auto hau handia da berez, eta, aldi berean, prestazio, kontsumo eta segurtasun neurrien aldetik, turismo on baten parekoa da", Etxaberen iritziz.

Bai Connect berriarekin zein Kugarekin ere, saltzaileak dio markak asmatu egin duela eta jendeak ikusi duela segurtasun, kontsumo eta akabera aldetik "emaitza finak" dituzten ibilgailuak direla. Horrekin batera,

NISSAN QASHQAI BERRIA
BEHIN BETIKO HIRI ESPERIENTZIA



20.950 €* -tik

Behin betiko hiri crossover-a ezagutu. Ausarta eta teknologia onenarekin hornitua. Gidariarentzat kontrol osoa emateko egina. Nissan QASHQAI berria da.



Gaursa-ra
etorri probatzera

OTAOLA HIRIBIDEA, 22. TEL.: 943 82 09 74
EIBAR



*Penintsula eta Balear uharteetarako salneurria 14/05/31 arte baliagarria da eta barnean hartzen ditu: PPF, garraila, Nissan Assistance, BEZa eta garrailo mota batzuentzako zerga Espainiako merkaturako, zure autonomia erkidegorako aplikagarria izan ez daitekeena (zure kontzesionarioan kontsultatu). Kontsumo mistoa: 3,8-5,6l/100 km-ko. CO2 isuriak: 99-129 g/km-ko. Aplikaturako zergak aldaketaren bat izaten badute eroste momentura arte, prezioa zerga-tasa berrietara eguneratuko da. Zure kontzesionarioan kontsultatu informazio gehiagorako. Kontsumo datuak laborategietako probetatik lortzen dira, 2004/3/CE araudiaren arabera, garrailo arteko konparazioa dute helburu eta ez dute zertan gidatze emaitza errealek erakutsi. (Aukerako ekipamenduak, mantentze-lanak, gidatze motak, errepidearen baldintzak eta klimatologiak ere emaitza ofizialetan eragina izan dezakete).



Ford-en Tourneo Connect modeloa.



Leon ST berria, Seat etxearena.

neurri handiagoen bila doazenez Trantsit Custom-a izango lukete eta urte amaiera aldean klasiko baten belaunaldi berria etorriko ei da: Mondeo berria. Geroxeago, zeresana piztuko ei duen S-Max Crossover berritzailea etorriko da. Eskaintza bezain beste deskontuak ere zabalak direla azpimarratzen du Ford Mugarriko saltzaileak. Pive planak eta etxeak berak emandako laguntzak batuta, furgonetetan 5.000tik 9.000 eurorainoko deskontuak daukate, modeloa gorabehera, eta diesel Focus-a bezalako auto hedatu baten, esaterako, 7.000 eurorainokoa. Azken aholku bat ere badu Etxabek: erosterakoan, mantentze-lan gastuei ere arretaz begiratzeko.

C4 CACTUS ETA C1 BERRIA, CITROENEN APUSTUAK

Citroen etxearen aurtengo apustu handia Villaverdeko lantegian egingo da. C4 Cactus modeloa da. Arrasateko Chapime kontzesionarioan ekainerako espero dute. "Gutziz berria da: forma berria dauka, materialak ere berritzaileak eta arinagoak dira, aldamentan airbump delakoa izango du, seguruagoa izan dadin... eta gainera, prezio onean jarriko da salgai", azaltzen du Chapimeko saltzaile Mikel Loitik. Citroen auto-egileak itxaropen handiak ditu Cactus modeloarekin, aurtengo automobil berria erosteko asmoa dutenak erakartzeko.

Deigarria da bistarako ere C4 Cactus modeloa: itxura aldetik indartsua eta funtzionala da, azalera lauak eta ez agresiboak, eta estilo leun eta sendoa aldi berean. Etxe frantsesak diseinua eta erabilerraztasuna bateratu



Citroen C4 Cactus automobil berritzailea.

nahi izan ditu aurtengo apustu handi horrekin.

Baina ez da aurtengo nobedade bakarria izango. Citroenek C1 modeloa berritzea erabaki du eta horixe aurkituko dute bezeroek Chapimen ere "oporretatik bueltan", Mikel Loitik aurreratu duenez. Eraberritze horretan, utilitarioaren filosofia alde batera

"Furgonetak oso segurtasun maila altuan daude"

RAFA ETXABE
FORD MUGARRI

utzi eta orain arte kategoriatik horretan ikusten ez zen moduko teknologiaz hornitu du ekoizleak. Ukitu berri batzuk ere egin dizkio erakargarriago egiteko: karreria zortzi kolore-tonutan dago aukeran; kapota, hirutan; eta kasu batzuetan bitonua aukera daiteke. 3,46 metro luze da, 1,62 metro zabal eta 1,45 metro garai. Barrualdea ere gehiago aprobetxatzeko aldatu dio Citroenek.

Nobedade horiekin, salmentei beste bultzada bat ematea espero dute Chapimekoek. Dena dela, "iaztik hona, salmentak hobeto" doazela dio Loitik: "Iaz baino %42 auto gehiago entregatu ditugu. Dena dela, iaz eta aurreko urteetan gutxi saldu genuen eta ezin

daiteke esan krisitik irten garenik. Baina, bai, baikorrak gara; gogotsu gabiltza, produktu berrien zain gaude eta merkatuan arrakasta izango dutela espero dugu". Loitik gogora ekartzen du, gainera, auto gehiago saltzeak on egiten diola bailarako enpresa eta profesional askori, ez bakarrik kontzesionarioei.

"C4 Cactus guztiz berria da, eta prezio ona izango du"

MIKEL LOITI
CITROEN CHAPIME

VOLKSWAGEN: DISEINUA ETA SEGURTASUNA

Etxeek badakite klasikoek ez dutela hutsik egiten, eta berrituntzekin arrakastari eusten diote urtero-urtero. Volkswagenean Golf-a markaren ikurretako bat da eta Urteko Autoa da Europan, Udalaiz kontzesionarioko Tomas Muñozek berehala zehazten duen moduan. Apustu segurua ei da Golf-a: "Ezaugarri baten ere lehen izan barik, guztietan onenen artean da", nabarmentzen du Muñoz saltzaileak; "beti balio du, arropa onak bezala". Marka alemanaren beste izar bat Touran modeloa dela dio Muñozek, zerbiztu handikoa eta familiarra.

Kontzesionario multimarka da Udalaiz, eta Audiren autoekin ere antzerakoa gertatzen da, nagusi Audi A4 eta Q3 modelook direla. Seaten, beste klasiko batek, Leon ST modeloa, protagonismo itzela hartu du, gama zabaldu eta gero. Familiarrak, orain, diseinu ikusgarri eta deportiboekin, familiaren beharrak, aisialdikoak eta gazteek dituztenak ase ditzakeela nabarmentzen du Udalaizteko saltzaileak.

SKODA, POLIKI POLIKI, ERREPIDEZ JABETZEN

Gero eta bezero gehiago dituzte Udalaizteko Skodaren autoez galdetza. Kalitatearen aldeko apustua emaitza onak izaten dabilela kontatzen du Muñozek, eta bezeroaren asebetetze maila "ikusgarria" dela dio saltzaileak. "Sendotasun eta segurtasun aldetik, Volkswagenekoekin konparagarriak" ei dira Skodaren autoak; hortik arrakasta. Octavia berria aipatzen du Muñozek, Combi

ZURICH AUTOK eskaintzen dizu:

- Aseguruaren titulartasuna 25 urtetik aurrera
- Lehenengo bi urteetan erabateko hondamena gertatuz gero, auto berriaren balioa
- 25 eta 35 urte arteko emakumea izatearren, % 10eko deskontua
- "Soluzioak bidean" zerbitzu gida: zure aseguruak eskaintzen dizun abantaila eta zerbitzu gama zabal.

- Laguntza juridiko eta legala bidaietan
- Deskontuak tailerretan
- Deskontuak jatetxeetan, hoteletan (NH, Sol Meliá...) eta paradoretan
- Deskontuak bidaietan (opor-paketeak, auto alokatuak, tren txartelak, tarifa bereziak charter hegaldietan, hegaldi erregularretan...)

...eta zure aseguruak?



ZURICH
M^o del Mar Urrutia Negueruela

Montxon kalea 5 behea
20.560 OÑATI
Tel./Faxa: 943 78 30 09
Polts.: 620 77 66 20



Renault Captur crossover-a.



Nissan eNV200 furgoneta.

bertsioan, daukan maletategi handiarengatik. Beste bat aipatzekotan, Spaceback modeloa azpimarratzen du Muñozek, bost ateko berlina eta "diseinu oso politarekin".

Eta, azkenik, Seat etxea ahaztu barik eta Leon ST bera nabarmenduta, Ibizaren iTech seriearen harrera oso ona ere nabarmen du Muñozek, kalitatearengatik eta nabigazio sistema deigarriarekin. Auto familiar eta handiagoa nahi dutenentzat Alhambra modeloa du Seatek, oso neurri handiko eta zazpi jarleku oso eroso eskaintzen dituen, hain justu ere.

RENAULT: PRAKTIKOTASUNA ETA EROSOTASUNA

Automobilaren sektorean eskarmentu handia duten Autoberrri kontzesionarioko kideek Renault etxeko Captur automobila eta Dacia etxeko Dokker nabarmendu dituzte. Zergatik Renault Captur? Automobil konpaktua izanik, hiru mundutako onena batzen duelako: lur orotarako baten indarra eta pertsonalitatea; monobolumen baten funtzionaltasuna, eta berlina baten erraztasuna gidatzerakoan. Forma leuna eta orekatua du, eta praktikoa eta erabilgarria da. Gainera, ezinbesteko osagarriekin hornitu

"Skodarekin bezeroen asebetetzea ikusgarria da"

TOMAS MUÑOZ
UDALAITZ AUTOAK

dute, hala nola lur orotarako auto itxura ematen dioten babesgarriak atzean eta aurrean, hurbiltasun radarra atzean eta aldapan abiatzeko laguntza.

Dokker modeloa, ostera, Dacia etxeko benetako lehen furgoneta da; oso automobil praktikoa, edozein erabileratara moldatzen dena: bidaiariendako jarlekuak edo kargarendako lekua. Biak ala biak, erosotasun handienarekin. Eta sarrera errazteko alboko ate irristagarriak ditu, zabalera handikoak. Maletategia, ostera, merkaturako luzeena du, 1,16 metro, eta simetrikoak ez diren atek (1/3 eta 2/3) karga eta deskargak errazten dituzte. Hala, bada, Dokkerrak erosotasuna eta praktikotasuna bateratzen ditu.

Kontxi Etxeberriak dio Autoberririra doan bezeroak eskatzen duela: prezioa, ekipamendua, kontsumoa eta saldu ondorengo zerbitzua. Eta horixe dela ematen diotena. Dio "beharrak eraginda" erosten dela orain auto berria: "Salmenten %90 Pive planaren bidez egiten dira. Eta Renault eta Dacia autoen kasuan, automobil gehienak plan horren barruan sartzen dira". Gaineratu du: "Oinarritzko Dacia Sandero 1.2 75 ZP, esaterako, 6.950 eurogatik dago, Pive plana barne".

Zerbitzu guztiak eskaintzen dituzte Autoberrin, Etxeberriak aipatutako moduan: "Automobila matrikulatuta eta finantzatuta eros daiteke. Saldu ondorengo zerbitzu guztiak eskaintzen ditugu: mekanika, elektromekanika, zerbitzu bizkorra (mantentze-lanak prezio itxiarekin, gurpil aldaketa, urte osoan deskontuak eta maitezean *bi eraman eta bat ordaindu*) baita karrozerian ere".

Pive planarekin, salmentek gora

Bosgarren Pive plana jarri zuen abian Estatuko gobernua 2014ko urtarrilean, datorren urteko urtarrilaren 29a arte indarrean jarraitzeko asmoz. Plana martxan ipini zenetik gaur arte saldu den auto kopurua kontuan izanda, baina, horretara bideratutako 175 milioi euroak ekainean agortuko direla aurreikusten da. Hain justu, dagoneko V. Pive planera bideratutako diru kopuruaren bi herenak agortuta daude.

Urtariletik hona auto-kontzesionarioetan saldu diren autoen %90 Pive planari esker saldu dira. Espainiako gobernua 1.000 euroko laguntza ematen du eta fabrikatzaileak beste 1.000 eurokoa, gutxienez. Hala, Pive planak eta kontzesionarioek eskaintzen dituztenekin, 7.000 euroraino aurrez daitezke auto berri baten erosketan. Autoberriko Kontxi Etxeberriaren esanetan, "plan horretara bideratutako dirua onartu arte autoen salmenta geratu egiten da". Mugarriko Rafa Etxabek ere haren garrantzia berretsi du: "Bihar Pive kenduko balute, kaos egoeran egongo ginatke". Citroen Chapimeko Mikel Loitik, berriz, honakoa azaldu du: "Bezeroak inoiz baino merkeago erosten du autoa. Aspaldian ez ditut ikusi hain automobil ekipatuak hain prezio onean".

NISSAN: CROSSOVERRAK ETA TEKNOLOGIA GORENA

Nissanek Quashqai berrian du nobedade nagusia. Otsailean aurkeztu zuten modeloa eta merkaturako liderra da, gaur egun, bere kategorian. Eibarko Gaurisa kontzesionarioan goi mailako Premium teknologia dakarren erreferentziako autoa dela nabarmen

dute: aparkatze automatikoa, 360 graduko kamera, sentsoreak, 4x4 trakzio adimenduna, kontsumoa murrizteko azken belaunaldiko motorrak... Argumentuak gura adina ematen ditu Jose Luis Larrañaga komertzialak. Nobedadez josita datoz hurrengo hilabeteak Nissanen. Ekainean eNV200 furgoneta etorriko da, elektrikoa %100. Larrañagak nabarmen duenez, "kargatze eta autonomian bat eta bakarra da merkaturan".

Hori ekainean, uztailean X-Trail berria jarriko dute merkaturan. Larrañagak azaltzen duenez, aurreko modelotik "ia bakar bakarrik izena" mantenduko du eta "bakarra izango da merkaturan

"Saldu ondorengo zerbitzu guztiak ditugu"

KONTXI ETXEBERRIA
RENAULT AUTOBERRI

ezaugarri eta prestazioei dago kienez, mailarik gorenekoak".

Bezeroen lehenetsun eta jorak ere argi dituzte Nissanen, Crossover eta SUV modeloekiko zaletasun handia dute eta etxe japoniarren autoetara gerturatzaren diren. Kategoriatan Nissan oso ondo kokatuta dagoela kontatzen du Larrañagak, eta, bereziki, Juke, Qashqai, X-Trail berria eta Murano modeloak nabarmendu eta gomendatzen ditu hark. Gainera, talde horri Leaf modeloa gehitu behar zaio, auto elektrikoei dagokienez, merkaturako liderra dena baita modelo hori ere.

Azalduko eskaintza zabal horretaz gain, erosketan osteko zerbitzuari dagokionez, garrantzia ematen dituztela nabarmen du Larrañagak, eta kontzesionarioan bertan aurki daitezkeela autoen mantentze-lan eta konponketarako beharrezko zerbitzu eta arreta osoa. Hala, "utilitariorik txikienetik hasi eta zortzi tona eta erdiko kamioietaraino" behar diren zerbitzu guztiak eskaintzen dituztela azaltzen du Larrañagak: zerbitzu azkarra, mekanika, karrozeria, goi mailako teknologia alor guztietan, ordezko ibilgailua eta autoa bera bezeroaren etxean jaso eta atzera konponduta itzultzeko zerbitzu osoa.

"Goi mailako teknologian erreferentzia da Nissan"

JOSE LUIS LARRAÑAGA
NISSAN GAURISA

FORD

TEKNOLOGIAK

CHAMPIONS-era
ERAMANGO ZAITU

Informa zaituz Ford.es-en edo 900 806 807 telefonoan

FORD FIESTA
SYNCekin Applink-ekin

8.590€

FORD FOCUS
EcoBoost Motorrarekin

12.990€



UEFA
CHAMPIONS
LEAGUE
FINAL
LISBON 2014



Mugarri Autoak Arrasate. Araba Etorbidea, z/g

Ford Fiesta eta Focus gama: kontsumo misto konbinatua 3,6tik 7,2ra l/100 km. CO2 emisioa 95etik 169ra g/km.

Fiesta 3 ate SYNC Edition 1.25 60 ZP (44 kW) Techno SYNC Applink paketearekin (eskuako klimatizazioa, irratia, CDa, MP3a eta SYNC Applink konektibitatea) eta Focus Trend 1.0 EcoBoost (EcoBoost motorrek %20 hobetzen dute kontsumoa, ohiko motor batekiko), Auto-Start-Stop 100 ZP (74 kW) 5 ate eta barne eta style packekin. Eskaintzek honakoa dute barne: BEZA, matrikulazio zerga, garraioa, deskontu promozionala, kontzesionarioaren ekarpena eta deskontua Vente a Ford Credit kanpainaren bitartez FCE Bank PLC S.Erekin finantzatzuz gero; gubxieneko egonaldia 24 hilabete. Gobernuaren PIVE planaren ekarpenari lotuta dago. Penintsula eta Balear uharteetan balia garria hil amaiera arte. Ez da bateragarria beste deskontu batzuekin. Ikusgai dauden modeloez ez dute zertan agertzen direnekin bat etorri. Ford.es Ford, UEFA Txapelaldien Ligako babesle ofiziala 1992a ezker.

Merkeak, garantia osoarekin

Bigarren eskuko autoen stocka oso zabala da; gehiengoak, baina, 6.000 eurotik beherakoak gura ditu

Auto berrien salmentak gora egin du 2014an. Iaz hasi zen igoera hori, eta 2012an baino %6,7 auto gehiago saldu ziren 2013an Euskal Autonomia Erkidegoan eta %10 gehiago Nafarroan. Automozio Kontzesionarioen Elkartearen Federazioak dioenez (Faconauto), azken lau urteotako salmenta daturik onenak lortu dira azken hilabeteotan. Eta horren arrazoiak bi direla dio: batetik, errenta enpresek egindako erosketak; eta bestetik, Pive plana.

Ford Mugarri etxeko Rafa Etxabe, oster, ez dator bat datuokin; ez direla zuzen ematen uste du: "Salmentak gora doazela dio-

te, baina askotan ez dute egia osoa esaten, eta merkatua ez da askorik hobetu". Hala ere, guztiek onartzen dute Pive planaren eragina asko igartzen dela: "Plan horretara bideratutako dirua onartu arte, autoen salmenta geratu egiten da. Eta salmenten %90 Pive planari esker egiten dira", dio Autoberriko Etxeberriak, eta Mugarriko Etxabek gaineratu du: "Bihar Pive kenduko balute, kaos egoeran egongo ginatke".

AUTO MERKEEN BILA

Bigarren eskuko autoen salmentek ere gora egin dute, Eibarko Gaurisa Autoak kontzesionarioko Jose Luis Larrañagak dioen legez: "Espainiako Estatuan, 2014an,



Bigarren eskuko autoen erakusketa, horiek saltzeko antolatutako feria batean.

Aukera zabala dago eta oso prezio onean guztiak

%15 dabil igotzen". Horren arrazoia izan daiteke Citroën Chapimeko Mikel Loiti gerenteak dioena: "Inoiz ez ditut ikusi hain auto ekipatuak hain prezio onean".

Sasoi batean bigarren eskuko autoek gutxienez zazpi urte zituz-

ten, eta gehienek hortik gora. Egun, oster, zero kilometrodunak daude, erdiberriak, urtebete dutenak... Hortaz, oso stock zabala dago. Hala ere, prezioari asko begiratzen dio erosleak, eta lehen 4.000 eta 15.000 euro arteko autoak

RENAULT MÉGANE ZURE KOPILOTU ONENA!

- ESP + ABIADURA ERREGULAGAILU ETA MUGATZAILEA
- IRRATI, CD, MP3, USB ETA BLUETOOTH®
- 2 URTEKO DOAKO MANTENTZE-LANAK
- ESKUZKO KLIMATIZAZIOA
- TABLETA OPARI**



10.700€* -tik AURRERA 
LIFE ENERGY TCe 115 ZP STOP&START



 Renault España  Renault ESP

Ikusgai dagoen modeloa: Renault Mégane Berlina berria GT Style Energy eta TCe 85 kW (115 ZP) S&S Margo Metalizatu Bereziarekin. GPSP promozioekin eta PIVE-5 planarekin: 13.215€.

www.renault.es / 902 333 500



ESPAINIAN EGINA

DRIVE THE CHANGE



Renault Mégane Berlina gama: kontsumo mistoa (l/100 km) 3,5etik 5,6ra. CO₂ emisioa (g/km) 90etik 129ra.

*Renault Mégane Berlina Life Energy TCe 85 kW (115 ZP) S&S auto berriarentzat, penintsula eta balear uhartean eskaintza eta PVP gomendatua. Eskaintzak honakoa du barne: BEZa, matrikulatze zerga, garraioa RECSA eskaintako promozioak. Partikular eta autonomoentzat baliagarria. PIVE-5 planaren baldintzak bete eta Espainian RCI Banque SA ebarekin finantzatu gero. Egonaldi minimoa 24 hilabetekoa. Finantza zerbateko minimoa: 6.000€. Gehienez, izendatutako bi mantentze-lanen oparia, bi urtean edo 30.000 km egindakoan erabiltzeko (lehen gertatzen dena). RECSA emandako mantentze-oparia. Beste finantza etek batzuekin batera. 2014/05/01etik 2014/05/31ra arte eskaintza baliagarria edo PIVE-5 plana amaitu arte (lehen gertatzen dena). Ikusgai dagoen modeloa: Renault Mégane Berlina GT Style Energy TCe 85 kW (115 ZP) S&S pintura metalizatu bereziarekin. PVPRI promozioekin eta PIVE-5 plana: 13.215€.

**2014/05/01etik 2014/05/31ra arte egindako Renault Mégane berrien erosketek Vexia Zippers 9i tableta jasoko dute opari.

Renault gomendatzen du 

AUTOBERRI SAN ANDRES AUZOA, 8. TEL.: 943 71 24 72. ARRASATE

erosten baziren, orain 6.000 euro-tik beherakoak gura ditu, gehienbat, nahiz eta hortik gorakoak ere saldu: "Audi eta Volkswagen marketako oso auto onak ditugu, prezio onean, baina, 9.000 bat euroren gainean berbetan hastekoan, gurago dute berria erosi, promozio eta finantzaketa aukerengatik", dio Udalaitez kontzesionarioko Tomas Muñoz saltzaileak. Autoberriko Etxeberria bat dator: "Guk 1.000 euro kentzen dugu urtebete baino gutxiagoko autoa saltzean, eta, ondorioz, mantendu egin dugu merkatua. Baina konturatu gara Dacia Sandero eskaintzerakoan auto berria gurago dutela".

Hala, bada, auto merkeen eskara handia dago, eta hori asetzeko oso auto gutxi. Faconautok dioenez, 9.000 auto falta izan dira Estatuan martxora bitartean egondako eskaera asetzeko. Izan ere, sasoi baten aldatzeko joera bazegoen ere, orain mantentzearen alde egiten du jendeak, eta lehen baino luzarago erabili automobil zaharra: "Pive dela, jendearen egoera dela, orain auto zahar samarra izan arren balioa ematen zaio, eta aldatu beharrean mantendu egiten du", dio Fordeko Etxabek.

Gaursako Larrañagak ere onartu du bezeroen %50 prezio zehatz bateko autoaren bila doala, baina badaude bestelakoak: "Batzuek prezioari bai, baina zerbitzuei ere begiratzen diete; beste batzuk auto erdiberrien bila datoz, auto berriaren kalitatea prezio txukunean gura dutelako".

BIGARREN ESKUKO AUTOEN ESKAINTZA

CITROËN CHAPIME	URTEA	EZAUGARRIAK
C2 1.4i Collection	2007	gasolina / 78.500 km / 4.500 euro
C-Elysée 1.2 VTI Exclusive 70	2013	gasolina / 2.300 km / 11.200 euro
C4 Picasso 1.6HDI Tonic	2013	diesela / 17.000 km / 14.600 euro
C4 Grand Picasso 1.6HDI Seduction	2013	diesela / 16.236 km / 16.800 euro
C4 Grand Picasso 1.6e-HDI Seduction CMP	2013	diesela / 14.362 km / 17.500 euro
UDALAITZ AUTOAK	URTEA	EZAUGARRIAK
Seat Leon Berria 1.6 TDI Style	2013	105 ZP, diesela / 20.100 km / 14.900 euro
VW Golf Berria 5P Sport DSG	2013	150 ZP, diesela / 75.000 km / 19.900 euro
VW Touran 1.6 TDI Edition	2013	105 ZP, diesela / 16.750 km / 19.200 euro
Audi Q3 Ambition 2.0 TDI Quattro	2013	140 ZP, diesela / 20.400 km / 27.900 euro
BMW X3 2.0 D	2007	150 ZP, diesela / 120.000 km / 12.300 euro
RENAULT AUTOBERRI	URTEA	EZAUGARRIAK
Renault Kangoo	2011	diesela / 19.340 km / 10.500 euro
Renault Kan Furgon	2011	diesela / 107.000 km / 7.500 euro
Renault Clio	2010	diesela / 23.856 km / 8.500 euro
Renault Clio Grand Tour	2012	diesela / 17.155 km / 10.250 euro
Dacia Sandero	2012	gasolina / 3.560 km / 7.950 euro
FORD MUGARRI	URTEA	EZAUGARRIAK
Ford Kuga 4x4 W 2.0 TDCi	2012	140 ZP, diesela / 29.000 km / 21.900 euro
Ford Galaxy TDCi	2013	140 ZP, diesela / 18.000 km / 22.500 euro
Ford Focus 1.6 TDCi	2012	115 ZP, diesela / 20.000 km / 12.800 euro
Ford Mondeo Station Wagon 1.8 TDCi	2009	125 ZP, diesela / 90.000 km / 11.500 euro
Opel Vectra 1.9 DTI	2006	120 ZP, diesela / 87.000 km / 7.500 euro
GAURSA AUTOAK	URTEA	EZAUGARRIAK
Nissan Note 1.2G	2013	80 ZP, gasolina / 3.000 km / 13.600 euro
Nissan Micra 1.2G DIG-S	2013	98 ZP, gasolina / 2.500 km / 12.800 euro
Nissan Navara 2.5 DCI E5 4x4	2013	144 ZP, diesela / 0 km / 22.800 euro
Renault Clio IV 1.5 DCI Expression	2013	75 ZP, diesela / 51.675 km / 11.500 euro
Renault Megane Berlina 1.2 TCE	2013	115 ZP, gasolina / 7.949 km / 13.900 euro

Eskaintza ballagarriak, akats tipografikorik ez baldin badago.

URTEBETEKO GARANTIA

Bigarren eskukoak bai, baina baina garantia osoarekin. Hala, gutxien urtebete garantaia eskaintzen dute kontzesionario guztietan. Gaursan, esaterako, auto erdiberririak dira saltzeko dituzten gehienak: "Horregatik, auto berrien antzeko bermeak dituzte, bai fabrikatzaileak emandakoak, bai geureak". Udalaitezko Muñozek dio autoa guztiz berrituta ematen dutela, "kolpetxoren bat edo beste izanez gero konponduta". Eta Mugarriko Etxabek dio oinarriko garantia dutela guztiek.

Era berean, auto "zaharrak" arriskuak dituela gogorarazi gura izan du Chapimeko Loitik: "Dena luzatzen dabil: autoz aldatzea, konponketak... eta horrek arriskua dauka, segurtasunean eragina duelako. Beharbada, denek ez dute aukera gurrupilak, pastillak... aldatzeko. Eta olio garaiz ez aldatzeak ere aberia larriagoak ekar ditzake".

Eta noski, autoak saltzeko "kaleko merkatua" ere badago: norbanakoen arteko salerosketak, Internet bidezko eskaintzak... Merkeak bai, baina garantiarik ez dute izaten; hortaz, kalean erosten duenak arrisku bat baduela gogorarazi dute.

Bigarren eskukoak ere urtebete garantaia dute

Economy ordezkoko piezak: 5 urtetik aurrerako ibilgailuendako kalitatea

Volkswagen jatorrizko ordezkoko piezak*



Das Auto.



Economy paketeak

Prezio hobekak, bermatutako kalitatearekin.

Urteen poderioz, zure ibilgailuaren jatorrizko piezek higadura sufrizten dute; horregatik, **Economy gama** sortu dugu: Volkswagen kalitatea eskaintzen dizuten ordezkoko piezak.

5 urtetik aurrerako ibilgailuentzako soluzio bikaina eskaintzen dizugu; gainera, prezio ekonomikoagoetan oinarrituta. Nola lortu dugu hau? Erreferentzia berberaren diseinuaren aldaketarekin eta barianteen murriztearekin.

Gainera, beste abantaila osagarri batzuk eskaintzen ditu gama honek; esaterako, ordezkoko piezen diseinuan erabilitako **goi mailako teknologia**.

Economy gama osatzen duten ordezkoko piezak zeintzuk diren azalduko dizugu; aurrerantzean, baina, gama honetan pieza gehiago egongo dira.

Economy freno-pastillak
Iraunkortasun handia. Egiatztatutako iraupen luzea. Frenaketa ona.



Economy isilgailuak
Korrosioarekiko erresistentea. Enkaje perfektua. Balio-bizitza: 8-10 urte artean.



Economy bateriak
Mantentze-lanik ez. Balio-bizitza luzea.



Economy bujia
Fidagarritasun handia. Kontsumo-efizientzia. Balio-bizitza luzea.



Economy freno-diskoak
Frenaketa-potentzia ezin hobea. Balio-bizitza luzea.



Economy eskuilak
Garbiketa ezin hobea. Zarata txikia. Erresistentzia handia.



Economy motelgailuak
Segurtasun osoa. Portaera egokia martxan.



Economy alternadorea
Zure ibilgailuak uneoro sortzen dituen kontsumo elektrikoak jasaten ditu. Zure ibilgailuari egokitutako karga ezaugarriak ditu.



Economy homozinetika-juntura
Iraunkortasun eta fidagarritasun handia. Zure ibilgailuaren ezaugarriak kontutan hartuta diseinatutako pieza.



Economy ordezkoko piezak: Volkswagen kalitatea prezio paregabean.

Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70

Volkswagen Service

Zure Volkswagenen kalitatezko zainketa behar du; eta zuk, preziorik onenak.

"Aseguru merkea, luzera, garesti ateratzen da"

Aseguru merkeak garantia txikikoak izan ohi dira eta hori kontuan hartu behar da aseguru kontratatzerakoan

Auto berria erostearik batera, ezinbestez, autoa aseguratu egin behar izaten da: "Nahitaezkoa da errepidean ibili ahal izateko", dio Oñatiko Zurich Aseguruak etxe-ko Mari Mar Urrutiak.

Haren aitak zabaldu zuen Zurich Aseguruak bulegoa duela 46 urte, eta gaur egun Mari Mar Urrutia da horren arduradun. Urte hauetan guztietan gauzak asko aldatu direla dio: "Orain aseguruak kontratatzeke modu asko dago. Batetik, dago hirugarrenendako aseguru sinplea; hirugarrenendako aseguru auto-ko kristalak eta bidaiari asistentzia barne; lapurreten aurrean erantzuten duen aseguru; eta abar". Noski, arrisku orotako aseguruak ere badira, frankiziarekin edo barik. "Une honetan, gainera, arrisku orotako aseguru frankiziarekin eskaintzen dugun bakarrak gara merkatuan", gaineratu du Urrutiak. Seguru mota horrekin, urte baten ez bada ara-



Mari Mar Urrutia, Oñatiko Zurich Aseguruak bulegoan.

zorik sortzen, hurrengo urtean prezioa txikiagoa izaten da; eta horrela hurrengo urteetan ere.

Kontratazio motari dagokionez, autoa berria denean, normalean, arrisku orotako aseguru jartzen du bezeroak. Lau edo bost urte baditu, berriz, hirugarrenetik aseguru kontratatzen du.

EZAUGARRIEN ARABERA

Aseguru kontratatzeke orduan zilindrada eta autoaren antzintasuna kontuan izaten dira: horren eta auto markaren arabera, aseguru primak ere aldatzen direlako. Adinaren arabera ere badira desberdintasunak: 27 urtetik behera baldintzak aldatzen dira.

Jakin beharrekoak

ASEGURU ONA, MERKEAGO

Garrantzitsua da autoa ondo aseguratu edukitzea. Izan ere, aseguru on batekin, arazo asko ekidin ditzakegu. "Merkea, azkenean, garesti ateratzen da", dio Mari Mar Urrutiak.

EMAKUME ZEIN GIZONEZKOENDAKO, BERDIN

Adinaren arabera primak aldatu egiten diren moduan –27 urtetik beherako baldintzak aldatu egiten dira–, ez da hori gertatzen sexuaren arabera. Lehen, emakumeendako eta gizonezkoendako baldintzak desberdinak ziren; orain, berriz, berdindu egin dira.

ESTALDURAK ALDATUZ DOAZ

Aseguru etxeen arteko konpetentzia handia izanik, etxeek geroz eta eskaintza hobek egiten dituzte. Zurich Aseguruak etxean, esaterako, nabarmendu behar da kristalen garantian duten eskaintza: "Bezeroak ezin badu autoa enpresa konpontzailearengana eraman, enpresa bera joaten da etxera".

ASISTENTZIA ERREPIDEAN

Autoa hartzerakoan, garrantzitsua da errepidean edozein egoeraren aurrean erantzungo duen aseguru bat izatea, horrek segurtasuna ematen du-eta. Tentuz begiratu behar den kontuetako bat da, beraz, errepidean aseguruak eskaintzen duen estaldura.

www.citroen.es
CITROENek nahiago du TOTAL

CITROËN DS LINEA
Faubourg Addict

PARIS



CITROËN DS FAUBOURG ADDICT MODELOA

Citroen DS Faubourg Addict serie bereziak liluratu egingo zaitu. Glamourra maite dutenendako; modari begira bizi direnendako; eder egotea eta azken joerei eustea zoriontasun perfektuaren eta egunerokotasunaren ezaugarri direla uste dutenendako; bilgarri politak gustatzen zaizkienendako, baina barruan dagoena baloratuta. Aizu, lerro hauek irakurtzen zabiliz bitartean, zure bizitza estiloarekin bat egiten duen autoa iritsi da.

CRÉATIVE TECHNOLOGIE



Debagoieneko Citroën zerbitzu ofizialak:

TALLERES CHAPIME S.C.L. - San Andres 5 Tel.: 943 79 45 22 - ARRASATE
AUTOS ION - Amillaga 36 - Tel.: 943 76 47 49 - BERGARA

Gaur arte eman daiteke uztaileko egonaldietan izena

Nagusiei zuzendutako aldi baterako egonaldietan izena eman daiteke. Uztaileko eskaerak gaur, egubakoitza, arte aurkeztu daitezke Udako Gizarte Zerbitzuetan, aurretik txanda eskatuta 943 71 31 36 telefono zenbakian. Abuzturako gura dutenek hilaren 30era arte dute aurkezteko epea; eta irailerako, ostera, ekainaren 13ra arte.

Apotzagak bertso afari musikatua hartuko du gaur gauean

Eingeinke gazte ekimenak eta Hankamotx bertso eskolak elkarlanean antolatuta, bertso afari musikatua egingo dute gaur, egubakoitza, Apotzagako elkarteak. Arkaitz Oiarzabal *Xamoa*, Jon Martin, Egoitz Zelaia, Egoitz Aizpuru bertsolariak hartuko dute parte horretan. Afaria 21:00etan hasiko da.

Martxan da aurtengo sanpedroetarako esaldi lehiaketa

Aurten ere sanpedro jaietarako esaldi lehiaketa gertatu dute. 13 urtetik gorako eskoriatzarrek parte hartu ahal izango dute, hiru pertsona baino gehiagoko taldeak osatuta. Proposamenak kultura etxean, liburutegian eta kiroldegian jarriko diren postontzietan aurkeztu behar dira maiatzaren 25a baino lehen, gutun-azal batean sartuta.

OHARRAK

KANPO JOLASAK

Oraingo astean ere kanpo jolasak gertatu dituzte, gaurko, Tortolis ludotekan.

HENNA TAILERRA

Gaztelekuan henna tailerra dago gaur eta bihar arratsaldean. Domekan, areto futbolleko txapelketa egingo dute.

KIROL HITZORDUAK

Bi norgehiagoka jokatu dira datozen egunotan: bihar, zapatua, areto futboleko, Euskal Ligan, Eskoriatza eta Easo Aiara lehiatuko dira, 18:00etan; eta etzi, 11:00etan, jarduera bereko gazteek Urkide gasteiztarren kontra jokatu dute.

MUSEOEN EGUNA

Domekan Museoen Nazioarteko Eguna da, eta, horren bueltan, Erroma garaiko tailerrak eta jokoak antolatu dituzte umeendako Ibarraundin, 11:00etatik 13:00etara. Museoa bera eta Zubiate labea bisitatzeko aukera ere egongo da denbora tarte horretan.

Garbiñe Gonzalez eta Nestor Arana | Hezkuntza Foroko kideak

"Familian eta heziketa integralean du oinarria foroak"

Joan den urtean eratutako Hezkuntza Foroaren ibilbideaz eta funtzioez egin dute berba

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Ibilbide laburra badu ere, dagoneko askotariko ekintzak gertatu ditu Hezkuntza Foroak. Nestor Arana eta Garbiñe Gonzalez kideekin izan gara, horren berri jasotzeko.

Zer da eta noiztik dabil lanean Eskoriatzako Hezkuntza Foroa?

Iaz jarri genuen martxan Hezkuntza Foroa. Gurasoek –sei guraso, hiru herriko eskola bakoitzetik–, Udalak –udal ordezkari bi, teknikari eta politikaria– eta hezkuntza arloko eragileek osatutako mahaia da; heziketa jarduera antziz antolatzen dituen. Eskoriatza du eragiteko komunitatea eta familian eta heziketa integralean du oinarria eta helburua.

Zer asmekin osatu zuten?

Askotariko helburuak ditu: herriko ikastetxeetako familiak elkartzea; haurren komunitatearekiko konpromisoa sustatzea; umeak komunitateko kide oso izan dai-

tezen bultzatzea; komunitatearekiko familien partaidetza eta konpromiso balioak sustatzea; familian euskara erabiltzea; ondare kulturalaren transmisioa bultzatzea; komunitate inklusibo baten alde lan egitea; natura eta ingurumena errespetatzea eta haurren eta familien beharrak detektatzea eta hutsuneetan eragitea, besteak beste.

Norbaitek parte hartzeko asmorik baldin badu, zer egin behar du?

Parte hartzen dugun gurasoei jakinarazi edo honako helbide elektronikora mezua helarazi: gazteria@eskoriatza.net.

Orain arte, zer-nolako ekintzak gertatu dituzte?

Joan den urtean hainbat aisialdi, formazio eta haurren beharrak ezagutzeko ekintzak antolatu genituen: hain justu, Guraso aterpea, Inauteri aurreko festa, LOMCE legearen gaineko hitzaldia, Bolibarko jaiak, Guraso elkar-



Hezkuntza Foroko kideak, Eskoriatzako plazan. | MIRIAN BITERI

gunea, Torrebasoko parkearen bigarren faseko diseinua edo kiroldegia apainketa.

Epe laburrera, zer-nolako planak daukazue?

Nerabezaroan aditu Carlos Malagon asteburuan dago gurean. Gaur, 22:30ean, helduendako ipuin kontaketa eskainiko du Huhezín; eta bihar, 10:00etatik 13:00etara, nerabeen gurasoei zuzendutako tailerra da zuzenduko du Ibarraundin. Bestalde, hilaren 27rako, Adingabekoen Legeari buruzko berbaldia antolatu dugu. Carmen Torres abokatu eta irakaslea eta Gipuz-

koako epaitegiko adingabekoen lantaldeko gizarte langile Marina Areta izango dira.

Eta epe luzera?

Urriaren 3an, esaterako, Nerea Mendizabalen eskutik, hiru bertaldi eta formazio saio izango dira: haurren emozioez eta mugez, errespetuzko komunikazioaz eta zigorren aurrean beste aukera batzuen gainean egingo da berba horretan. Horrez gain, buruhandi tailerra, herriko erdialdea oinezkoendako egokitze jaiak eta Gabonetan elkartasun kanpaina egitea pentsatuta dugu.

Elizateen martxarekin hasiko dute Mendi Astea

Eguaztenean aurkeztu zituzten bigarren edizioko ekintzak; jarduera fisikoa sustatu gura da horrela

M.B. | ESKORIATZA

Eskoriatzarren eta inguruan bizi diren artean kirola eta, bereziki, mendiko jarduerak bultzatze eta naturaz gozatzeko aldera, Mendi Astea gertatu dute bigarren udalak, Huhezín eta Arizmendi Ikastolak. Askotariko adineta-koentzako zazpi ekintza antolatu dituzte hilaren 18tik 25era: etzi, domeka, 28 kilometro luze den *Zazpi elizate ibilaldia* egingo dute. 07:00etarako egin dute hitzordua, plazan; handik, Bolibar, Mendio-

la, Aretxabaleta, Gellao, Apotzaga, San Adrian, Marin, Zarimutza eta Mazmelara joango dira, ostera ere Eskoriatzara itzuli aurretik.

Ikus-entzunezkoak eta irteera

Astelehenean, *Euskal Herriko altxorretan barrena* ikus-entzunezkoa ikusteko aukera dago Huhezín, 19:00etan; Arkaitz Astiazaranek egindako 4.400 kilometroko bizikleta-bidaia azaltzen da. Martitzenean, *Gabez takarraren* lasterketako ibilbide zati batean



Astearren aurkezpena. | JULEN IRIONDO

barrena mendi irteera egingo dute; hain justu, Atxorrotz, Leixargarate, Mandobide bisitatu eta herrira bueltatuko dira mendizaleak. Bi hitzordu jarri dituzte:

13:30ean, Huhezín; eta 17:30ean, plazan. Eguaztenean ere ikus-entzunezko eskainiko dute udaldegian, 19:00etan: Zion Flayers taldeko Alex Berastegi, Victor Gordillo, Juanra Nestares eta Oscar Busturiaren *Salto base, la montaña desde otra perspectiva*.

Izen-ematea

Orientazio ere landuko dute bi egunez Mendi Astearren barruan. Egubakoitzean jokoak egingo dituzte plazan, 18:00etan; eta Garaion orientazio zirkuituak domekan, hilaren 25ean, 09:30ean plazatik irtenda. Aurretik, zapatuan, Kirol Elkartearen Eguna ere badela-eta, familiendako mendi bizikleta ibilaldia irtengo da 09:00etan, plazatik. Ekintza gehienetarako izena eman behar da kiroldegian edo Huhezín.

Gure Esku Dago ekimenarekin lotuta, argazki erraldoia egingo dute gaur plazan

M.B. | ESKORIATZA

Eskoriatzan ere lanean dihardu Gure Esku Dago ekimenak, eta ekainaren 8ko ekitaldiari begira hainbat ekintza gertatu dituzte herrian datozen asteotarako. Gaur, egubakoitza, esaterako, argazki erraldoia ateratzeko dei egin dute. Plazan egin dute hitzordua, 20:00etarako. Ekimenarekin bat egiten duten guztiei, plazara

joan eta atxikimendua erakusteko dei egin diete.

Horrez gain, Gure Esku Dagoi buruzko informazioa eman eta metroa erosteko mahaia jarriko dute datozen bi asteburuetan toki berean: hain justu, hilaren 16an, 17an, 18an, 24an eta 25ean, eguerdietan eta iluntzean. Eguenetan 20:00etatik 21:00etara ere izango dira.





Martxa bukaeran ateratako talde argazkia. | MURRUKIXO ME

Gozatu ederra hartu dute 'Gorriñaren bidetik' egindakoek

M.A. | ARETXABALETA

"50 mendien kontuarekin (50 mendi jarraian martxa) hasi zen dena. Jende gehiagorentzat, baina antzerako filosofiaz beste zerbait antolatzea ideia ona izango zela iruditu zitzaigun. Gorriñaren kontua aipatu nuen eta egiteko irrika sortu nien gainerakoei", halaxe esan du Oier Etxebarria Gorriñaren bidetik ibilaldia antolatzen jardun duen Murrukixoko kideak eta lasterkariak.

Joan den zapatuan egin zuten Aizkorri bitarteko joan-etorria, 44 kilometroko ibilaldia, eta hemezortzi lagun elkartu ziren. Zazpi orduko taldean zazpi lagun joan ziren, tartean emakume bat; sei ordukoan, sei; eta bost ordukoan, bost. Taldean joatearen arrazoiak eman ditu Etxebarria: "Denok elkarrekin joateak sortzen duen giroa eta elkarren zaintzak sekulako esperientzia zirela

ulertu genuen", eta gaineratu du: "Denok elkarrekin atera beharrean, denok elkarrekin heltzea hobea zen".

Helburuak beteta

Hala, 06:00etan atera zen talde bat; 07:00etan bigarrena, eta 08:00etan hirugarrena, horien artean zegoen Etxebarria.

Lasterketa izan ez arren ezarritako orduen barruen sartu gura izan zuten guztiek, baita lortu ere. "Gu izan gara azkenak heltzen, eta beraz, denek bete dituzte beraien helburuak, eta beraien aurpegiak hori erakusten dute", jakinarazi du Etxebarria. Gozatu ederraren aurpegiarekin atera zuten talde argazkia bukaeran.

Kronika osagarria: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



Bost orduko taldeko lasterkariak aldapan gora. | MURRUKIXO ME

Euskeriaren Eguna kuadrillen giroan

Herri kirolak jokatu dituzte bazkal aurretik eta hitzen bingoa dago ostean

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Maiatzarekin batera iritsi da Euskeriaren Eguna, eta, beste behin, euskara ahoan hartuta jai giroa izango da herriko bazterretan bihar.

Kuadrillen arteko jokoak

Musikariak iratzartuko dituzte herritarrak eta ostean umeendako jolasak izango dira Aisialdi taldeak antolatuta (11:00). Gero kuadrillen txanda etorriko da. "Edonork parte hartzeko moduko jokoak eta jolasak izango dira eta ezustekoren bat ere egongo da", iragarri du Josu Retolaza Loramendiko dinamizatzaileak.

Taldeok bost lagunekoak izango dira eta izena aurrez eman behar da; 10 bat talde elkartuko direlakoan daude antolatzaileak. Eta talde irabazlea Taberna Berri jatetxean ogitartekoa afaltzera gonbidatuko dute.

Bertsolariak eta trikitilariak lagun dituztela egingo duten poteoaren ostean bazkaltzeko elkartuko dira 100 bat lagun. Eta bazkalostea girotzeko bingoan jardungo dute hitzekin.

Elektrotzarangaren doinuak

Arratsaldeko kontuak umeendako ikuskizunak hasiko ditu. Zurrumurru antzerki taldeak

Barre Laborategia eskainiko die plazan, 18:00etan.

Eta Euskeriaren Egunean ezin falta Larrain dantza; herriko eta inguruko herrietako dantzariak Mitarte kalean elkartuko dira, 19:00etan. Ondoren, Ttek elektrotzarangaren doinuek girotuko dituzte kaleak.

Okila eta Hiruatxen postuak

Bestalde, Okila elkarteko taila-gileek orain arte egindako lanak jarriko dituzte ikusteko Herriko Plazan, eta Hiruatx gobernu kanpoko elkarrekin bidezko merkataritzako produktuak izango ditu herritarren eskura.



Kurtzebarriko haitzetara ibilaldia egin zuten lagunak. | LORAMENDI

Kurtzebarriko haitzen inguruan

Kurtzebarriko haitz inguruak ezagutzeko hogeitaz lagunetik gora elkartu ziren zapatuan, Loramendik deituta. Ezin gusturago egin zuten seigarren ibilbide historikoa, parajeen edertasunarekin eta Jabier Arandok eta Julen Abasolok emandako azalpenarekin.

Erromeria giroa ziurtatuta Ojala Zelain, trikiti doinuekin eta dantzekin

Animaliekin jolasak, paella txapelketa eta disko festa ere izango dira domekan

M.A. | ARETXABALETA

Aozaratz auzoan dagoen zelai ezaguneko erromeria eguna iritsi da, eta, eguraldia lagun, jai giro polita izango da domekan -txarra eginez gero, Iturrigorri pilotalekuan egingo dute.

Goiz parteko lasterketak bukatutakoan -ume eta gazteenak lehenengo, helduena gero-, sari banaketa ekitaldia egingo dute (12:30), zelaian bertan. Eta ondoren hasiko da erromeria. Animaliekin jolasak izango dituzte neska-mutikoei 13:00etan: pottokak; oilarrak; txerrikumeak; eta bigantxa txikiak.

Bien bitartean, paella txapelketa hasiko dute; izena aurrez eman behar da, Arkupen, 5 euro ordainduta. Eta eguraldi txarra eginez gero, bertan behera gertuko da txapelketa eta dirua itzuli egingo dute. Antolatzaileek jarriko dituzte arroza, olio, tipu-



Musika eskolako dantzariak. | M.A.

Bazkaltzen hasi aurretik paella dastatuko dituzte epaimahai-kideek, eta hiru onenek saria jasoko dute: lehenengoak, 100 euro; bigarrenak, 70 euro; eta hirugarrenak, 50 euro. Paella egiteko asmorik ez dutenek etxetik eroan behar dute jatekoa, eta antolatzaileek mahaia eta aulkiak jarriko dituzte.

Disko festa eta dantzariak

Arratsalde parte musikak girotuko du. Euskal kantuen disko festarekin hasiko dira (16:00) bazkalosteko ekitaldiak, eta gero, Leizarra musika eskolako dantzarien erakustaldia izango da herriko txistulariek lagun eginda (18:00).

Aurtengo erromeriari euskal disko festak jarritako doinuekin dantzan eginda esango diote agur Ojala Zelain elkartutako ume, gazte, heldu eta nagusiek.

Jou Diaz
Harakina
Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

Mobiliario
ARENZA
ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Futbol derbiaren egunean Aretxarteko tabernariak zozketatu zituzten sariak badute jabea

Jai giro polita sortu zuten domekan Aretxarteko tabernariak Athleticen eta Realaren arteko derbia zela-eta. Giroa sortu eta sariak banatu ere bai. Astelehenean egin zuten bi taldeetako kamiseten, baloien (guztiak jokalariek sinatuta) eta beste hainbat materialen zozketa. Eta sari horiek dagoeneko badute jabea; hona: Aitor Iñurrategi; Xabier Gabilondo; Ana Gil; Antonio Vidriales; Santi Fernandez; Olaia Elkoro; Ana Sanabria; eta *Aldapa*.

Gurutze Muxikak Parisko arte garaikidearen azokan erakutsiko ditu pintura lanak aste bukaeran

Parisen urtero egiten duten Salon d'art Contemporain Art Shopping du Louvre-n izango da aste bukaeran Gurutze Muxika pintura lanak erakusten. Areantza auzoan bizi den Beasaingo margolariak hainbat lan eramango ditu; besteak beste, natura gai duten azken zortziak. Ia 25 urte daramatza pinturan Muxikak, eta paisaiak eta natura hilak ditu oso gustuko.

Markel Irizar txirrindulari oñatiarrarekin solasaldia izango dute gaztelekuko kideek egunean

Markel Irizar txirrindulari profesionala Atxagazte gaztelekuan izango da egunean, maiatzak 22, 12 eta 17 urte bitarteko gazteekin berbetan (19:00). Ameriketako Estatu Batuetatik etorri berri, han bizitakoak, lasterketetako kontuak, euskararen egoera kirolean... izango ditu berbetagai oñatiarrak gazteekin.



ARIZMENDI KIROL ELKARTEA

Ohorezko Ligarako txartelaren bila

Arizmendi Kirol Elkarteko kadete mailako nesken taldeak iguera faseko azken partidua jokatu du bihar, Usurbilen, Hernaniren aurka. Irabaziz gero, Ohorezko Ligarako sailkatuko dira.

Denboraldi polita egin dute Odei Guridiren eta Xabi Gallastegiren neskek, eta 18 urteotan Arizmendi kirol elkartekoek egin bakoa lortu: denboraldi osoan partidu bat ere ez dute galdu etxean, Almenen.

OHARRAK

GORKA ETA EIDER ZABALETAREN KONTZERTUA
Gorka eta Eider Zabaleta Oiarzungo anai-arrebek kontzertua eskainiko dute gaur, egubakoitza, Arkupen (22:00).

EH BILDUREN HITZALDIA
Erabakitze eskubidea European hitzaldia izango da astelehenean Arkupen (19:00), EH Bilduk antolatuta. Hizlariak izango dira Joxean Agirre (Sortu) eta Iñaki Ostolatza (EA).

HAIZE-INSTRUMENTU IKASLEEN KONTZERTUA
Leizarra musika eskolako haize-instrumentu ikasleek emanaldia egingo dute martitzenean Arkupen (18:00).

JOSEBA EGIBARREN PROIEKZIOA
Aretxabaleta 2000-2010 proiektzioa eskainiko du argazkilari aretxabaletarrak egunean, hilak 22, Arkupen (19:00).

GOIO ARRIETAREN BAKARRIZKETA
Lore bat bakarrizketa emanaldia egingo du Goio Arrietak datorren egubakoitzean, hilak 23, Arkupen (22:00).

SANTA RITAREN BEDERATZIURRENA
Santa Ritaren bederatziruena egiten dabilta agustindarren monasterioan, 19:00etako meza-oren ostean. Zapatuan ez da egongo; eta domekan, 09:00etan.

Elgeta Kantuan ekimenak liburuxka berria egin du

Euskarazko 140 kantutik gora jasotzen ditu, eta domekan ipiniko dute salgai lau euroko prezioan

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Orain dela bi urte abiatu zen Elgetan Kantuan ekimena. Poli-ki-poliki, bere bidea egin du, eta etziko, domeka, beste hitzordu bat deitu dute inguruko kantuzale guztiendako. 13:00etan elkartuko dira herriko plazan, eta, aurrekoetan moduan, asmoa da tabernarik taberna eta kalerik kale kantuan aritzea. Honakoan, ordea, berrikuntza aipagarria aurkeztuko dute Elgeta Kantuan ekimeneko bultzatzaileek: euskarazko 140 kantutik gora jasotzen dituen liburuxka berria. "Orain arte kopiak aterata funtzionatu izan dugu: gustuko kantua aukeratu, testuak han edo hemen aurkitu eta papera sortarekin ibili izan gara. Egun batean, ordea, gure kantu liburua sortzea erabaki genuen, eta hemen da emaitza", esan du Lorea Larrañaga musika irakasleak.

Askotariko kantua jaso dituztela azaldu du Larrañagak. "Betiko euskal kantu tradizionalak daude, baina baita ere modernoak direnak, euskaratutako rantxerak... Uste dugu erabilgarria izango zaigula eta gustukoa izango dela publiko zabalarendako ere".

Prezioa, lau euro
Elgetako Udalak babestu du ekimena, eta Goibeko euskara



Patxi Basauri, Lorea Larrañaga eta Jose Antonio Retolatza, liburuarekin. | L.Z.

elkarteak ere parte hartu du. Kantuen aukeraketan, berriz, Lorea Larrañaga eta Jose Antonio Retolatza aritu dira buru-belarri.

Liburua erabilerraza da, eta baliagarria, euskarazko kantuen bilduma osatua eta eguneratua nahi duen edozeinendako. Domekan ipiniko dute salgai, lau euroko prezioan, eta Elgeta Kantuan ekimeneko zapia ere oparitu dute liburuarekin batera. 11:30ean abiaraziko dute salmenta, plazan bertan. Hortik aurrera, interesa dutenek Julian Markiegiren kioskoan edo Ana Mariren liburu-dendan erosi

ahal izango dute. Domekan bertan estreinatuko dute liburuxka. Ohikoa den moduan, Jose Gardoki soinu-jotzailearen konpainian egingo dute tabernarik tabernako ibilbidea.

Eibartik 22 kantuzale
Elgetako kantuzaleek Eibarkoekin abiarazi duten harremana ere sendotuz doa. Domekan, Eibarko 22 kantuzale espero dituzte Elgetan. Eibarko 15 lagun izan ziren asteleheneko entseguan eta elkarlanarekin oso gustura daude alde biak. Domekako, dena den, ekimen irekia da. Gonbidapena eginda dago.



Guaka talde maputxea. | GUAKA

Hitzaldia, afaria eta Guaka taldearen elkartasun kontzertua gaur gaztetxean

L.Z. | ELGETA

Mugimendu handiko eguna izango da gaur, barikua, gaztetxean. 18:30ean, Iñigo Cabacas auziaren inguruko azken ordua ekarriko dute Oier Amorrortuk —lehengusua— eta Irma Orozkok —abokatua—. *Iñigo Cabacas. Crónica de una herida abierta* izeneko ikus-entzunezkoa eskainiko dute, eta hitzaldia egingo dute ondoren.

Afaria eta kontzertua

Afariarekin eta Guaka taldearen elkartasun kontzertuarekin jarraitzea proposatzen dute gaztetxetik.

Herri maputxearen aldeko elkartasun kontzertuak egiten ditu Guaka taldeak, eta aurretik ere egonda dago Elgetan. Afaria 22:00etan izango da eta kontzertua, 23:30ean. Kontzerturako sarrera hiru euro da.

Bihar bolo jardunaldi garrantzitsua Elgetako bolariendako

Zapatuan 80 bolariatik gora espero dituzte kiroldegiko bolatokiak. Gipuzkoako hiru txirlo txapelketako zortzigarren jardunaldia jokatu dute, 17:00etan hasita, eta emoziorik ez da faltako. Etxeko bolariak sailkapeneko goiko postuetan daude, eta garrantzitsua izango da txirloak jotzea mailari eta sailkapenari eusteko.

Gure Esku Dago ekimenaren aldeko argazkia, domekan

Gure Esku Dago dinamikaren baitan ekainaren 8ko giza katearekin egingo den aldarrikapena indartzeko Elgetan egingo den talde argazkian parte hartzeko dei egin dute herriko lantaldetik. Domekan 13:30ean aterako dute talde argazki hori, plazan. Horrekin batera, metroak eta materiala erosteko aukera ere egongo da.

Eugenio Otsoa | Leintz Gatzagako alkatea

"Gatzaren negozioa berreskuratu gura dugu"

Proiektu garrantzitsuak lantzen dihardute Leintz Gatzagan, eta, gura duten moduan betez gero, udalerraren pisua nabarmen handituko lukete



Eugenio Otsoa alkatea Goiena telebistako platoon. | ENKO AZKARATE

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Leintz Gatzagak askok uste baino mami aberatsagoa duela erakutsi du asteon Eugenio Otsoa alkateak Goiena telebistako *Harira* saioan. Adibidez, aurreratu du hango gatz fabrika atzera ere negozio eta bertakoendako beste aberastasun iturri bat izan dadin bideragarritasun plana lantzen dihardutela. Horrez gainera, besteak beste, iragarri du bost agintalditan udal lanetan ibili ostean –alkate lau alditan eta zinegotzi beste behin–, gogoa baduela "hirugarren adineko mundua zelakoa den esperimentatzeko".

Gatz museoa, museoa baino zerbait gehiago izatea nahiko zenukete. Zer duzue aurreikusita horretarako?

Negozio eremuan, Gipuzkoako Foru Aldundian aurkeztu genuen asmoa gatzaren elaborazioa egin eta saltzeko. Orain dela 2.000 urte hasitako negozioa da, etengabekoa izan zena, 1975ean itxi zen arte. Negozio horretan 2.500 kilo gatz egin eta saltzen zen egunero; lixiba ere egiten zen. Baina kontuan hartuta gatz erabiltzen zela, batez ere, elikagaiak kontserbatzeko, eta batetik itsasoko gatzak zirela, eta bestetik hozkailuak atera zirela, horren kontra ezin izan zen borrokatu, eta itxi egin behar izan zuen. 1970etik aurrera, Udalak bereganatu egin zuen fabrika, eta 25 urtean ibili gara birgaitzen, iturburuak zaintzen... baliabideak zaintzen. Gurako genukeen negozioa gatzaren salmenta litzateke.

Gatz bereziren bat?

Bai. Añana izan da gure aitzindaria. Hark erakutsi digu ze onura dituen barnealdeko gatzak. Salinas de Buradon, Salinas de Oro, Arteta... horiek ere erakutsi digute gatz egin daitekeela eta saldu egin daitekeela. Gure gatzaren ezaugarri garrantzitsu bat da ekologikoa dela. Bigarrena da bertan atera daitekeen produktua hiru motakoa dela: gatz lorea (ahoa sartu eta desegin egiten dela, gustu berezia du, oso preziatua); gourmet (gatz lorea aza-

leran batzen da, eta sikatu ondoren gourmetek asko maite duten eta saltzen duten gatz mota da, kalitate handikoa); eta gesala: ur gazia, kontzentrazio handiagorekin okindegietan eta gaztandegietan erabiltzen dena. Eta jakina, bertakoa da. Ea hori merkaturuan zela bataiatzen dugun eta besteak mesprezatu barik gure tokitxo gurako genuke izatea. Bideragarritasun planaren barruan, ikusten da etekinak lortu ahala, lanpostuak sortzeko gaitasuna izango dugula.

Edozelan ere, museoarekin segitzeko asmoa duzue, eta gainera, enpresa edo ahal bada kooperatiba sortzeko asmoa...

Bai; jardun museistakoa eta negozioa oso bateragarriak direnez, batera egiteko asmoa dago. Jakionera ere jendea bisitan etortzen da eta dastatu egiten ditu produktuak. Museoa izango litzateke, nire ustez, diru-sarrerara seguru

"Hiru motako produktua atera daiteke: gatz lorea, gourmet-a eta gesala"

"Gatz museoa izango litzateke, hala ere, diru-sarrerara segurua, nire ustez"

"Gatzainuzketa inguruan disfrutatzekeko elementu gehiago jarri gura ditugu"

bat. Museoa beste elementu erakargarri batzuk ere baditu: gaur egun energia berriztagarrien barruan, putzutik ura igotzen duen gurrupila polita eta erakargarria da. Eta adibidez, gatz atezkako lurrina erabili behar denez, lurrin hori aprobetxatuta, etorriko da pedilubio eran jar daitekeen igerilekutxo bat.

Hau noizko?

Bideragarritasun plana entregatuta izan behar dugu uztailaren 12-13rako. Asko eginda dugu: merkaturaren azterketa... Udalean ez gabilta bakarrik, gainera. Debagoieneko Garapen Agentzia eta Saiolan ere sartuta daude. Eta euren bermearekin kontaktzen dugu.

Gatzainuzketako etxeak dira Gatzagaren beste zerbitzu bat. Hainbat berrikuntza egiteko asmoa baduzue hor: wifia, berogailuak, abentura parketxoa... horiek noizko?

Bi etapatan gabilta. Egin genuen hausnarketa, ikusteko ze falta zitzaion. Landa Garapenetik eta Turismo Bulegotik jaso genuen informazioa. Eta erakusten du, adibidez, erabiltzaileak aldatu egin direla: wifia eskatzen dute orain, esaterako... ostaturako ezezkoak jaso izan ditugu, zerbitzu hori ez dugulako. Umeendako jolasleku bat martxan jarri gero, berriz, erakargarriagoa ere baliatuzteke. Karobi bat ere badugu aldemenen, martxan jarri gura duguna. Eta Arlaban erreka ere hortxe dugu. Eta erreka mean droak-eta zeharkatuta, ikus daitezke Gatzagako mendian dauden zuhaitz laginen laburpen bat. Hori seinatetikarekin jarri... zuhaitzak, perretxikoak sendabelarrak, erreka zapoak, amuarrainak, karramarroak... Disfrutatzeke aukera emango luketen elementuak jarri gura ditugu ingurua erakargarriago izateko.

Obrei dagokienez, araztegia amaitzeaz dago. Noizko egongo da funtzionamenduan?

Egin dena da Gatzaga osorako gertu egongo den araztegia. Biologikoa da. Horrek esan gura du

batzen diren ur zikin guztiek izango dutela tratamendu biologikoa, Bengoerrekara botako diren urak saneatutakoak izango direla, eta inerteak bakarrik kanporatuko direla. Izango duen onura bat da bertatik batzen diren urak erreka bertara botako direla; beraz, Bengoerrekara ditugun ur-saltoek emari bera izango dute. Hori inportantea da. Eta Errekatzu garbitu egingo da apurka-apurka eta usainak saihesteko eta zikinkeriak ez ikusteko ez dugu tapatu beharrik. Nik uste dut udazken aurretik martxan izango dela, ze, komentatu didatenez, abuztua aurretik bukatuta egongo da eta.

Jakion ere bada Gatzagari izena ematen dion beste enpresa bat. Zein da haren egoera?

18 urte badaramatzagu hor. Debagoieneko udal guztiak dira bertako bazkide. Gatzagaren lanbide historikoa izan da mintegi izatea. Adibidez, izan ziren zazpi zurgin,

"Gatzaga historian mintegia izan da: adibidez, El Escorialgo sarrailak bertan egin ziren"

"18 urte daramatzagu Jakionekin; lortu ditu izena eta kalitatea"

"Jakion handitu eta beste herriren baten kokatu gura da, ibarrean, zerbitzua handitzeko"

bere garaian oso ospetsuak izan ziren burdinolak egin zituztenak; Felipe II.aren El Escorialgo sarraila guztiak bertan egindakoak dira. XVIII. mendean, ospe garai hori pasatuta, Arrasaten ekin zioten Union Cerrajerari, eta lehen langileak bertatik etorritakoak izan ziren. Eta gauza bera gertatuko zaio orain Jakioni. Zorionez, Debagoiena eraldatze barruan Jakion nahiko ospetsua denez, lehen sektorearen lagungarri handia litzateke, haren berpizkunderako. Debagoienean 2.000 baserri daude. Orain, bigarren pauso handia litzateke Jakion handitu eta ibarreko beste herriren baten kokatzea. Baina oraindik zehaztu barik dago. Gaur egun bost langile ditu eta 37 ekoizle-hornitzaile. Baina potentzialak izan litezke gehiago, landa-garapenaren barruan dauden baserriak eta gazteak.

Hondakin kontuei helduko diegu orain. Bigarren urtea da zero zabor filosofiarekin hondakinak beste modu batera kudeatzen dituzuela. Zelako balorazioa egiten duzu?

Lehenengo eta behin, eskerrak eman beharko nizkieke herritar guztiei, batez ere, autokonpostatzean hasi diren guztiei, eta ekarpen guztiak errespetatzen ere badabilizalako, hondakin bakoitza bere lekuan utzita. Auzokonpostatzean hasi direnei, berriz, barkamena eskatu behar diet: usaina egon da, euliak egon dira, basurdeak ere ibili dira... Eta horiek saihestu arte, ba, deserosoa izan da. Baina emaitzari dagokionez, jatetxeak eta konpostatzerako larregiko materia organiko zeukatzen dituzten bost dira, guztiak batu egin ditugu eta selektiboki-eta eramaten dira, baina beste guztiak konpostatu egiten dira.

Txakur-kakekin ordenantza lantzen diharduzue. Zein da helburua?

Txakur-kakak ez dira gustuko; logikoena litzateke txakurrak dituztenak ardurarekin jokatzea eta kaka egiten badu, batu eta norabait botatzea. Kosta egingo da hori, baina ordenantza egiten

gabilta, herri ekimena egin genuen eta jendeari abisua pasatu diogu. Sentsibilizazio kanpaina egin behar dugu. Umeak dabilzan lekuan txakur-kakak arriskutsuak izan daitezke. Eta isuna azkeneko neurria izan beharko litzateke. Adibidez, hirugarren abisuan kasurik egin ezean, orduan jarri beharko litzateke isuna.

Aparkalekuekin Gatzagan arazoak dituzuela ere entzun dugu...

Herri txikia da, Erdi Arokoa. Leku askorik ez dago, ez bada zerbait egiten, batez ere kanpotik datorren jendeak leku asko hartzen duelako. Oinezkoendako bilakatzea litzateke helburua, baina hori egiteko behar ditugu zenbait aparkaleku nonbaiten jartzea. Lekuak begiratzen gabilta. Bien bitartean, aparkatzerik ezin daitekeen leketan aparkatzen duen jendeak jakin beharko luke han ezin dela aparkatu. Hirugarren abisuan isuna jarri beharko zaio. Arauak ateratzen gabilta horretarako ere.

Garraio publiko arazo da Gatzagan? Edozer gauzatarako autoa edo garraio publiko erabili behar izatea... Diputazioarekin elkarlanean badiharduzue. Emaitzarik ikusten da?

Eskerrak eman gura nizkioke Gipuzkoako Foru Aldundiari, etorri direlako. Baina herri txikietan, Donostiara, Bilbora edo Gasteizera joan gura bada, aurretik Eskoriatzara edo Arrasatera joan beharra dugu eta ordu horiek konpatibilizatu egin behar dira. Txartelak erosteko bidea, adibidez, Labidean jartzeko asmoa dugu. Baina, behintzat, ordutegiari dagokionez, eskatzen da autobusak ibil daitezela. Gainera, ikusten da bailaratik Gasteizera eta Gasteiztik bailarara

badabiltzala, eta horiek gurako genituzke aprobetxatu herrirako ere bai. Bestalde, proiektu berriei dagokienez, lanzaderen aukera da asko gustatzen zaigun zerbait, bai guri eta baita Eskoriatzako auzo-guneei ere. Hori gauzatuko balitz... aleluia!

Aizkorri-Aratz mendi-lerroari aprobetxamendua atera nahi diozue...

Biomasa ikusten da gaur egun energia berriztagarri garrantzitsu, eta hori oso inportantea da. Gatzagak 14 km² lur ditu, %80-85 da Udalarena. Udalak orain dela 18-19 urte birgaitze plana egin zuen. Mendia errespetatuz, eta pinudiak bota behar izanez gero, autoktonoak jarrita, aprobetxatu gurako genuke, bai. Biomasa uzten du eraginkortasun handiarekin egitea. Eta herrikoei, hala ere, ematea betiko sorta, beheko suak eta sukalde ekonomikoak martxan jartzeko, gehi gatzata ateratzeko. Hori litzateke helburua. Baina batez ere, natura zainduta.

Bukatzeo, datu kuriosobat: Gatzaga mugitzen dabilen herria da, ezta?

Bai, uste dut urtean milimetrotxo bat-edo mugitzen dela, behearantz. 22 lagin jarri dira, eta badaude aditu batzuk jarraipena egiten. Urte eta erdiko jarraipenaren ostean emaitzak jasoko dituzte eta hala, Diputazioari eta Udalari erraztuko diote herria zaintzea. Eurek esango digute zer ikusten den. Satellite bidez dabilta jarraipena egiten. Datorren urtearen erdialde inguruan-edo izango ditugu emaitzak.

Elkarrizketa osoa: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



HERRITARRAK ALKATEARI GALDEZKA

Leintz Gatzagako udalbatza gizonezkoz bakarrik dago osatuta. Zergatik?

"Zazpikote bat aurkeztu zen; horien artean bada emakume bat, Montse Roldan. Gutxitan egoten da, baina ofizialki bertakoa da. Lanez lepo dago, baina harekin egunero egoten gara, eta informazioa ematen zaio. Beste ordezko emakumezko bat ere bazegoen, baina beste herri batera joandakoa da. Datorren urteari begira, beraz, emakumei dei egin gura diet, etor daitezten".

San Inazio kalearen egoera kaskar samarra da. Bada konpontzeko aukerarik?

"Goiko sarreratik hasita dauden arketak ondo jarri nahi ditugu, urak zuzenean joan daitezten plubioletara eta handik errekatxora. Behintzat, ura goitik behera joan ez dadin. Dugun arazoak da harriak askatu egiten direla ez ditugulako zementuarekin batzen, horrek itsustu egingo zukeelako Gatzaga osoa. Zulo galant batzuk ere badaude... horiek araztegiaren obrak aprobetxatuta gura ditugu konpondu. Halakoak ikusten dituztenei abisua eman dezatela eskatu gura diet".

2013an, udalerriko ehiza postuen enkantea Udalaren esku geratu zen. Aurten ere hala izango da?

"2013ko enkantean adjudikatuta dauden ehiza-postuak lau urterako izango dira; beraz, horiek ezin dira berriro eskaini. Edozelan ere, gainontzekoendako aurten prozedura berbera erabiliko da. Guk nahi izan genuena zen ikustea enkanteak zenbaterainoko onurak ekar ditzakeen. Orain badakigu postuek ze prezio duten. Kontuan hartu behar da hortik ateratzen den diru-sarrera ia guztia herrirako dela".

Lorabbarri azoka, bihar, ekintzaz jositako astea borobiltzeko

Herriko plazan egingo da, 11:00etatik 14:00etara; autorik ezingo da sartu

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Amaitzear da Aramailur kontsumo taldeak beste hainbat talderekin elkarlanean antolatutako Lorabbarri astea. Azken trakarako ekintza potoloenak utzi dituzte antolatzaileek. Gaur bi ekintza aipagarri egingo dituzte: batetik, joan den egubakoitzean arazo pertsonalengatik atzeratu zuten ogi ekologikoa egiteko tailerra egingo dute Azkoagako abade-etxean. Divina eta Rakel Arriolabengoak gidatuko dute saioa: "Etxe azpian egiten dute ogia, bailaran nahiko ezaguna da. Ogi norberak egiteko aukera egongo da; euren teknika ikasi eta praktikan jarriko dugu", diote antolatzaileek. Era berean, Xabier Herrartek baserriko konpostaren gaineko saioa gidatuko du Sastiñan, 19:00etan hasita.

Bihar, astea borobiltzeko, azoka egingo dute Bizente Gokoetxea plazan, 11:00etatik 14:00etara. Azokan, denetarik dastatu, ikusi erosi eta trukatzeko aukera egongo da. Bertako produktuen zerrenda luzea da oso: sagardoa eta sagar-zukua, esnekiak, ogi ekologikoa, moxal haragia, ardi eta behi gazta,



Ogi ekologikoaren postua, iazko Lorabbarri azokan. | HAIXEOLA

sendabelarrak, herriko txoko interesgarrien mapa... Euskal Herri hainbat txokotatik ere ekarriko dituzte produktuak: ardoa, pasta eta bestelako zenbait produktu ekologiko.

Arropa trukatzeko postua eta haurrentako txokoa ere egongo dira. Parte hartzaileen artean otzara bat ere zozketatuko dute. Era berean, Udalak

jakinarazi duenez, azokak irauten duen tartean plazara ezingo da autorik sartu.

Orain artekoaz pozik

Orain arteko ekintzetan ez du jende askorik parte hartu, baina, hala ere, pozik daude antolatzaileak. Informazio gehiagorako, www.haixeoala.com/lorabbarri-astea webgunera jo.



Guraso eta ikasleak, hilaren 9ko solasaldian. | SAN MARTIN ESKOLA

San Martin eskola, "oso gustura" Irakurri Kurrin-en harrerarekin

J.B. | ARAMAIO

Beste ekimen berritzaile bat abiatu du San Martin eskolak, Irakurri Kurrin izenekoa. Irakurzaletasuna eta elkarbizitza bultzatzea du helburu eta lehen saioa joan den maiatzaren 9an egin zuten. Irakasle, guraso eta ikasleen artean, 35 parte-hartzaile izan zituen saioak, eta, antolatzaileen arabera, "oso gustura" aritu ziren.

Parte hartzaileek Patxi Zubizarretaren *Xia Tenzinen bidaia miresgarria* liburua irakurrita eraman zuten solasaldira. Liburuko pasarte bat aukeratu eta konpartitu zuten eta denetarikogogoeta, zalantza, interes eta

eztabaidak azalerratu zituzten: "Interpretazio guztiak balekoak izan ziren, testuaren zentzua aberastuz". San Martin eskolako jantokian janari txinatarrara afaldu zuten eta gero, talde-tan banatuta, aukeratutako pasarte horien gaineko gogoetak egin zituzten.

Irakurri, gozatu eta oparitu

Era berean, irakurzaletasuna bultzatzeko beste ekimen bat da Irakurri, gozatu eta oparitu ekimena. Liburutegian euskarazko liburuak maileguan hartu izana saritzen du egitasmoak, besteak beste. Ekainaren 30era arte har daiteke parte.

Espainiako Gobernuak euskarari eraso egin diola uste du Udalak

Udalak bandoa atera du asteen, Espainiako Gobernuak euskarari eraso egin diola uste duelako: "Espainiako Gobernuko delegatuak euskararen ezagutza eta erabilera sustatzeko Udalak hartutako konpromisoa eta neurriak baldintzatu eta kolokan jarri nahi ditu". Euskara planak edo kontratazioetan hizkuntza irizpideen arautzea bertan behera eskatzeko Carlos Urkixo delegatuak egindako errekerimenduak salatu ditu Udalak.

Bertsolari gaztetxoek Arabako eskolartekoa bihar Sastiñan (17:30)

Arabako bertsolari gaztetxoek eskolarteko txapelketa jokatuko da bihar, hilak 17, Sastiñan (17:30). 14 urtetik beherakoek artean Martin Abarrategi eta Aitor Ugarte arituko dira, bat-bateko modalitatean -ez da lehiarik egongo-. 14 eta 18 urte artekoek artean, berriz, Peru Abarrategi eta Unai Etxenausiak maiatzaren 31ko Legutioko finalera sailkatzen saiatuko dira. Egun horretan Arabako Bertso Eskolen Eguna ospatuko dute Legutian.

TXIRRINDULARITZA


Gipuzkoako Itzuliko atariko, ziklista azkarrendako opari

Gaur, egubakoitza, Bergarak hartuko ditu Euskal Herriko emakumezko ziklista onenak, erlojupekoan

XABIER URZELAI | BERGARA

Gipuzkoako Itzuliko atariko proba jokatu dute gaur, egubakoitza, Bergaran. Eta erlojupeko ikusgarria izango da, gainera. Labur esatearren, txirrindulariak erlojuaren kontrako lanean ibiliko dira, Agorrosinen hasi eta San Martin plazan amaituko den 1,6 kilometroko zirkuituan: "Ziklistek bi minutu pasatxo beharko dituzte erlojupekoa egiteko, azkarra izango da, eta ez da tarte handirik lortzeko aukerarik egongo, kurba itxi askoko zirkuitua delako, eta motza", diosku Iker Sanchezek, Lokatza-ko ordezkariak.

Zirkuitua herrian bertan jarrita, baina, emakumezkoen ziklismoa herritarrei gerturatzeko modu aproposa izan daitekeela adierazi dute antolatzaileek: "Irteera eta helmuga herriaren kanpoaldean jarriz gero gutxi



Bergaran egingo duten erlojupekoak izango duen ibilbidea, Agorrosinen hasi eta San Martin plazaraino. | GOOGLMAPS

ORDUTEGIAK

17:00 Taldeen aurkezpena, Munibe plazan.

18:30 Hasiera, Agorrosinen.

19:45 Sari banaketa, Munibe plazan.



Aretxabaletako helmuga, Biran. | GOIENA

batzuk konturatzen direlako ziklismo proba bat egon denik".

Agorrosinen eta San Martin plazan giro polita izango da, seguru, eta baita Ibargarain ere: "Bertan daude tabernak, eta, egubakoitz arratsaldea izanda, jendea batuko da hor. Esaterako, Migel Altuna atzetik Irala kalera doan aldatxoa leku aproposa izan daiteke proba jarraitzeko".

Talde profesionalak

Antolatzaileek 100 ziklista inguru espero dituzte gaurko. Tartean egongo dira Portugalgo selekzio-ko ordezkariak, eta baita Lointek-Ugeraga eta Bizkaia-Durango taldeetako txirrindulariak ere. Bergarako, baina, atariko proba izango da; zapatuan Tolosan izango dira eta domekako etapa, berriz, Villabona eta Zizurkil artean izango da.

ESANAK

"Irteeran eta helmugan giro polita izango da, baita Ibargarain ere"

IKER SANCHEZ | LOKATZA

FUTBOLA

Bergarak urrezko hiru puntu ditu jokoan, denboraldi osoko derbi erakargarrienean

Antzuola etxeko lanak eginda iritsiko da zapatuko derbia, baina ligako azken jardunaldira larri ez joateko Bergarak garaipena behar du, bai edo bai

X.U. | ARRASATE

Denboraldi hasieran inork gutxi usteke zuen zapatuko derbian (17:00, Estala) horrenbeste egon behar zenik jokoan, kasu honetan Bergarakoendako. Izan ere, logikak esaten zuen posible zela Antzuola liga amaierara puntu beharrean iristea, kategoriara iritsi berria zelako. Eta ligako azkenurreko derbi hori final bat izan zitekeela Juanina Garairen mutilendako. Bada, oso partidu garrantzitsua izango da, baina Bergararendako.

Azken asteotan izugarri estutu da sailkapenaren atzealdea, eta azken bi jardunaldietako garaipenei esker Bergara zulotik irten bada ere -37 puntu dituzte-, azken bi jardunaldietan borrokan jarraitu behar dute. Izan ere, Lagun Onak (22) eta Getariako



Josu Zubikarai. | GOIENA



Iñigo Macho. | GOIENA

(20) dagoeneko mailaz jaitsita badaude ere, geratzen den jaitsiera posturako -hiru jaitsiko dira- hainbat *hautagai* daude: Hondarribia (35), Vasconia (35) eta Zarautz (35). Hala, ez dugu esango biharko lehia hil edo bizikoa denik, beste talde horien aurrean Bergarak baduelako abantaila -azken jardunaldian Hondarribiak eta Vasconiak elkarren kontra jokatu dute-, baina urrezko hiru puntu daude jokoan, zalantza barik. Eta, Antzuolak etxerako lanak aspaldi egin bazituen ere, Garairen mutilak ez daude oparitarako, gozoki handia da Bergararen kontrako derbia irabaztea.

Aretxabaletak, Ostadar

Aretxabaletak zail du mailaz igotzeko promozioa jokatzeko aukera ematen duen bigarren postua eskuratzea, Tolosak bost puntuko aldea du eta -sei puntu geratzen dira jokoan-, baina azken arte borrokatuko dira aretxabaletarrak. Ostadar izango da Ibarren domekan (16:30). Eta azkenik, dagoeneko bi hankak Hirugarren Mailan dituen Berioren zelaian jokatuko du Aloña Mendik.

ESKUBALOIA

Izarraitz-Aloña Irunen du bihar mailaz igotzeko azken geltokia

X.U. | OÑATI

Izarraitz Aloña Mendiri kategoriaz igotzeko azken pausoa geratzen zaio, edonolako ez den eronka. Bihar, zapatua, oñatiarrek fasean talde onena izan den Irungo Gazteak izango dute kontrario (18:30, Irungo Artaleku kiroldegia). Faseko talde onena izan da, bai, eta Zubikoatik urrun jokatu dute. Baina partidu bakarrera edozer gerta daiteke, eta oñatiarrek ondoan izango dituzte zaleak.

Sari handia duen finalerdia

Finalerdia baino ez bada ere, biharko irabazita Izarraitz Aloña Mendi Euskadiko Txapelketara igoko da, lehenengo eta bigarren sailkatuak zuzenean igotzen dira eta.

HERRI KROSA

Etzi, Joseba Larrinagaren oroimenezko krosa jokoa

Kros egokituko Euskadiko Txapelketak jokatu dira aurtengo edizioan

MIRIAN BITERI | ARETXABALETA

Otala Zelaiko erromeriaren bueltan, Otala Zelaiko 36. edizioa egingo dute etzi, domeka, goizean, Aretxabaletan. Hemendik aurrera, Joseba Mardoren oroimenezko Otala Zelai kros herrikoia izena izango du, Joseba Larrinaga gogoan, eta aurten, lehen aldiz, kros egokituko Euskadiko Txapelketak jokatu dira bertan.

Azken horren harira, Aretxabaletakeko Udalak eta Kirol Egokituko Euskal Federazioak elkarlanean antolatuta, bi lasterketa egingo dira: distantzia laburrean, bata; eta gainerako korrikalariekin batera distantzia luzean, bestea. Lehenak 1.600 metro izango ditu eta bigarrenak, berriz, 8.410 metro.

Helduen txanda, 11:30ean

Haur eta gaztetxoek lasterketekin emango diote hasiera Leintz Eskolarekin batera gertatutako egitarauari: 10:00etan benjaminen txanda izango da; eta hamar minutu geroago, kimuena. Haurrena 10:20an hasiko da; eta 10:30ean, kirol egokituko korri-



lazko helduen lasterketan ateratako irudia. | GOIENA

kalariek distantzia laburra egingo dute. Ordubete geroago, 11:30ean, helduen lasterketa hasiko da; esan bezala, 8.410 metroko ibilbidea egingo dute.

Joan den urtean bezala, banakaz gain binaka (bikote mistoak osatuta) korritzeko aukera ere izango da aurten; eta, esan bezala, kirol egokitukoek eurekin batera egingo dute esandako ibil-

bidea. Lasterketen ostean, sari banaketa egingo dute, 12:45ean.

Helduen lasterketarako zabalik dago izena emateko epea, www.herrikrossa.com atarian. Izen-ematea Internetez eginez gero, 7,5 euro ordaindu beharko dituzte parte-hartzaileek. Dena dela, domekan Otala Zelain bertan ere eman ahal izango da izena, hamar euro ordainduta.

FUTBOLA

Andoni Ugarte oñatiarrak Errege Kopa jokatu du

Realean jokatu du eta domeka goizean lehen partidua izango da, Vigon, Celtaren aurka

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Realeko gazte mailako taldeko jokalaria da Andoni Ugarte (Oñati, 1995). Aurtengoa izan da gazte mailan jokatu duen azken denboraldia.

Denboraldi ona egin du taldeak eta oñatiarra pozik dago, bai emaitzekin, bai jokatzeko berak izan dituen aukerekin. Ligan oso ondo ibili dira ikasturte osoan. Txapeladun Ligaren parekoa den txapelketa ere jokatu dute, Rea-



Andoni Ugarte. | A.U.

larekin batera txapelketa jokatu zuten Europako beste taldeetako gazte mailakoekin batera. Txapeladun Kopa ere jokatu dute, eta Ugartek sartutako gol bati esker sailkatu ziren finalerdietarako. Finala, baina, galdu egin zuten joan den asteburuan, Almerian, Real Madrilen kontra.

Asteburu honetan, berriz, Errege Kopa jokatu dute. Celtaren aurka lehiatuko dira domeka goizean, Vigon. Datorren asteburuan etxean jokatu dute bueltako partidua; izan ere, joaneko eta itzulerako partidua jokatu dira kanporaketan.

19 urte ditu futbol jokalaria oñatiarrak, eta, adinagatik, gazte mailan jokatu duen azken denboraldia da. Datorren ikasturtean zein talde edo mailatan egingo den ez daki oraindik.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGIONALA

Aretxabaleta-Ostadar

Zapatua, 16:30. Ibarra.

Berio-Aloña Mendi

Zapatua, 17:30. Berio.

Antzuola-Bergara

Zapatua, 17:00. Estala.

GAZTEAK, IGOERA

Amara Berri-Bergara

Zapatua, 15:30. Martutene.

KADETEAK, IGOERA

Aloña Mendi-Martutene

Zapatua, 15:30. Azkoaga.

INFANTIL TXIKIA, TXAPELKETAKO FASEA

Dunboa Eguzki-Arrasate

Zapatua, 12:30. San Jose Obrero.

INFANTIL TXIKIA, KOPA

Aizkorri Goierrri-Bergara

Zapatua, 11:15. Alustiza.

ARETO FUTBOLA

EUSKADIKO TXAPELKETA

Eskoriatza-Eraso Aiara

Domeka.

ESKUBALOI

EUSKADIKO TXAPELKETARA IGOERA FASEA

Irungo gazteak-Aloña Mendi

Zapatua, 17:30. Irun.

GIPUZKOAKO KOPA

Aloña Mendi-Ereintzai

Zapatua, 17:30. Zubikoa.

TERRITORIAL MAILAKO K.

Egia-Bergara

Zapatua, 16:30. Egia.

GAZTEAK, KOPA

Aloña Mendi-Bidasoa-Irun

Domeka, 12:00. Zubikoa.

SASKIBALOI

LEHEN NAZIONAL MAILA

Biok Zerbiztuak-MU

Zapatua, 18:00. Majori.

PILOTA

ANTZUOLA:

Olalde-Oiarpe:

Egubakoitza, 19:00etan.

ARRASATE

Arrasate2-Aurrera/Saiaz6

Zapatua, 15:30ean, Uarkape.

Arrasate/Bengoa-Beloki/
Sanchez Arevalo
Arraste/Iturriotz-Azkoitia/
Oteiza
Arrasate/Cecaga-Intxaurre/
Altuna
Domeka, 10:00etan, Uarkape.

BERGARA

Orbegozo/Añorga-Iriarte/
Ilunpe
Morales/Aurrera-Zubeldia/
Zazpi Iturri
Egiguren/Ilunpe-Sein Oiarbe
Zapatua, 16:00etan, Bergara
Bergara/Retolaza-Txapagain/
Murua
Zapatua, 18:00etan, Bergara.

HERRI KROSA

OTALAZELAI

Domeka, 10:00etan, Aretxabaleta.

ATLETISMOA

BERDINTXIKETAN

Egubakoitza, 19:30ean, Orieti.

TXIRRINDULARITZA

GIPUZKOAKO ITZULIA

Egubakoitza, 18:30ean, Bergara.



ATLETISMOA

ARRASATE ATLETISMO TALDEA

Arrasatearrek lan bikaina egin dute

Euskadiko klubaren arteko lehen mailako txapelketan lan ona egin zuten etxeok. Pertikan, Jonathan Perez lehena izan zen 4,75 metro jaurti ostean; Maialen Axpe ere garaiarekin geratu zen 3,80 metroko saltoarekin, eta Malen Ruiz de Azua bigarren, altuera berarekin. Jauzi hirukoitzean, Iñigo Uribarrenek lehen postua lortu zuen; 800 metroetan, Markel Blancok hirugarrena; oztopo-proban, Martin Berrizbeitiak bosgarrena.

ARRASATEKOBASERRIKO
PRODUKTUENAZOKA

09:00-14:00 Seber Altube Plaza

HILEKO 3. ZAPATUAN

2014
maiatzak 17

ekainak 21
uztailak 19
irailak 20
urriak 18
azaroak 15

Antolatzailea:



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGON
Emplegu eta Garapen
Ekonomikoaren Saila

Laguntzailea:



Arrasateko baserriek eta
merkatariek konfiantza,
harbitasuna eta kalitatea
eskaintzen dizkizute.



KULTURA



MUko ikasleen talde horrek *Pintxo pote bat, hamaika istorio* bideoa egin zuen. | ARANTZAZU LAGUNILLA



Sortuz Sortzen taldeak ikusleen saria irabazi du *Geurea* bideoarekin. | A.L.

Euspot-en sari nagusia bi talderendako izan da aurten

- ▶ Sari nagusian berdinketa izan da, lanen kalitatearen erakusgarri
- ▶ Gazteen artean eta sare sozialetan arrakasta izan du Euspot-ek

LEIRE KORTABARRIA | ARETXABALETA
Euspot lehiaketa sorpresarekin bukatu da; izan ere, jasotako lanen kalitatea dela-eta, sari nagusia bi talderen artean banatu da: *Euspotter* (Heidi Otadui eta Yago Mateo donostiarrak) eta *Pintxo pote bat, hamaika istorio* (Charlie Boy Team, MUko Elgoibar, Durango, Aretxabaleta eta Oñatiko ikasleek osatutako taldea) izeneko iragarkiak. Saria erdi bana egin da, eta, beraz, talde bakoitzak 500 euro poltsikoratu ditu. Mondragon Unibertsitateko ikasleek egindako lan onenaren saria ere Charlie Boy Team izeneko taldeko kideendako izan da: beste 500 euro. Horrez gain, publikoaren saria ere banatu da, 500 euro boto gehien jaso dituen bideoarendako: Sortuz Sortzen (Azpeitia, Gasteiz eta Eibar) taldearen *Geurea* izan da irabazlea. Eta aurtengo apustu handia, gaztetxoaren parte-hartzea, ere saritu da: Oihane Iturbe eta

Haizea Arrieta aretxabaletarrek egindako *Ta zuk ez dozu ezer igeritzen?* izeneko bideoa izan da onena, epaimahaiaren iritziz; bi egileek 250 euro jaso dituzte. Bideo-iragarki guztietan, euskara, irudimena, umore ona, pintxo-pote giroa eta, kasu batzuetan, musika dira protagonistak. Egileek euren egin dituzte aktore lanak ere, kasu gehienetan.

Epaimahaiak honakoak baloratu ditu: originaltasuna, sorme-

na, kalitate teknikoa, mezua eta publiko-helburuarengana ailegatzeko gaitasuna.

Sari guztiak atzo, eguena, banatu zituzten, Aretxabaletako Arkupe kultura etxean egindako ekitaldian.

Harrobia sustatzen

Inoiz baino parte-hartze handiago eta gazteagoarekin bukatu da Euspot bere hirugarren urte honetan, eta pozik egoteko moduko arrazoiak dituzte antolatzaileek, Aretxabaletako Udalak, Artemanek eta Mondragon Unibertsitateko Huzezi fakultateak. Izan ere, aurtengo helburu nagusia 18 urtetik azpikoak parte hartzera animatzea zen, eta emaitzek adierazten dute erronka bete dela: jasotako lanen kopurua iazko berbera izan da (22 bideo-klip edo iragarki) baina iaz hutsik geratu zen gazteen saria, eta aurten, aldiz, sei lan jaso dira sari

hori irabazteko modukoak, hau da, 18 urtetik beherakoekin eginak eta, tartean, iaz ez bezala, 16 urtetik beherakoekin ere bai. Gazteenek parte har zezaten lortzeko, Artemanek lan handia egin du ikastetxeetan, bertatik bertara ikastarotxoak emanez eta bideo-kamerak erabiltzen utzita, eta merezi izan duela argi geratu da. "Harrobia sustatzen hasi gara eta gazteen parte-hartzea lortu da", diote Artemaneko ordezkariak.

riek. Izan ere, parte-hartzaile guztiak izan dira gazteak: 18 urtetik 30 urte artekoak, hain zuzen ere.

Beste irakurketa positibo bat ere egiten dute antolatzaileek: "Sare sozialetan asko mugitu da Euspot. Izan ere, iaz 1.000 boto inguru jaso ziren publikoaren sarirako, eta aurten, 1.600 baino gehiago". Publikoaren saria aukeratzeko, *euspot.eu* webgunean eman behar zen bozka. Hantxe egon dira -oraindik ere han daude, ikusi nahi dituenarendako- lehiaketara aurkeztu diren 22 iragarkiak.

Euspot-en ohiko helburuak ere bete egin dira: hain zuzen, euskarazko sormena bultzatzea. Gainera, aurtengo proposatutako gaiak parte-hartzaileak eta boto-emaileak erakarri ditu: pintxopotea eta euskara.

Hitzaldia eta musika

Sariak eguen ilunkeran banatu zituzten. Ekitaldia Ainhoa Vitoria esatari arrasatearrak aurkeztu eta gidatu zuen, eta, sarien zirrarez gain, bestelako ekintza batzuk ere izan ziren: hala, Arturo Olea madrildarrak, musika eskubideetan aditu denak, ikus-entzunezkoetan musika erabiltzearen gainean hitzaldi interesgarria egin zuen, eta Saiatu Berriz taldeak musika jo zuen.

Horrenbestez, hirugarren Euspot lehiaketak eman du eman beharrekoa; hor daude oraindik bideoak, webgunean ikusteko moduan, eta datorren urtean ere euskarazko bideoak egiteko gonbidapena.

DATUA

1.600

BOTO

Internet bidez bozka zitekeen, eta 1.600 bototik gora jaso da; iaz, 1.000.

ESANAK

"Gazteengana iristea eta haiek parte hartzea lortu da"

ARANTZAZU LAGUNILLA | ARTEMAN



Euspotter. | GOIENA



Pintxo pote bat, hamaika istorio. | GOIENA



Geurea. | GOIENA



Ta zuk ez dozu ezer igeritzen? | GOIENA

Bailarakoen lanak ere bai AEDko literatura lehiaketan

Martitzenean egin zuten sari banaketa Arrasaten, Kulturaten, John Andueza idazlearekin

JAGOBA DOMINGO | ARRASATE

John Andueza idazlea gonbidatu dute aurten AEDko literatura lanen lehiaketako sari banaketara, eta hark eman zion hasiera ekitaldiari, AED elkarteak egindako lana goraiatuta. Izan ere, 27 urte bete ditu lehiaketak, eta Anduezak azpimarratu zuen Arrasateko Euskara Elkarteak aspalditik neska-mutikoak literaturan murgiltzeko egindako lana. Anduezak berak ere lehiaketan parte hartu zuela gogora ekarri zien gazetxoei, eta hirutan bigarren postua eskuratu zuela. Sari nagusia ez lortu arren, lanean jarraitzeko mezua helarazi nahi izan zien neska-mutikoei.

AEDko Iñaki Telleriak gidatuta ekin zioten sari banaketari. Pixkanaka, lehenengo eta bigarren sailkatuak sariak jasotzera hurbildu ziren Kulturateko oholtzara. Hemeretziak banatu ostean, Mikel Etxezarretak, DBH 1-2 mailako bertso-paperean kategoriako irabazleak, bertsoa abestu zuen guztion aurrean.



Sari banaketa martitzenean Kulturaten. | J.D.

Pozik

Aurtengo edizioan, guztira, 135 lan aurkeztu dituzte: 84 ipuin, 26 poesia eta 25 bertso-paper. AEDkoek oso balorazio positiboa egin dute, bi arrazoi hauek kontuan izanda: alde batetik, joan den urteko lan kopuruari eutsi diotelako, eta bestetik, Eskoriatza, Bergara eta Oñatiko ikasleen lanak ere jaso dituztelako eta

hori "lehiaketak eskualdean oihartzuna" duen seinale delako, Iñaki Telleriaren hitzetan.

Aurkeztutako lanen heren bat Debagoieneko gainerako herrietatik etorri dela azpimarratu zuen ekitaldian Telleriak. Hori bai, datorren urtera begira, mutilak animatzeko dei egin zuen, aurtengo parte-hartzaile gehienak neskak izan dira-eta.



Kontakt Inprobisazioa dantzatzen bi lagun. | MIRARI ALTUBE

Euskal Herriko I. Kontakt Inprobisazio Topaketa Aretxabaletan egingo dute

OIHANA ELORTZA | ARETXABALETA

"Kontakt-a dantza mota bat da. Badu bere teknika, baina inprobisatuz egiten da eta kontaktua da erreferentzia". Horrelaxe definitu du kontakt inprobisazioa Oskar Estangak, Euskal Herriko Kontakt Inprobisazio Taldeko presidentek.

Ibarra kiroldegian

Maiatzeko azken asteburuan egingo du lehen topaketa elkarre horrek, eta Aretxabaletan egingo du, hango Jaiki elkarteak lagunduta. "Zaharren egoitzan egingo ditugu jatordua, eta gauak ere hantxe pasako ditugu. Mugimenduko ekitaldiak, baina, Ibarra kiroldegian izango dira gehienak. Jaiki elkar-

tearen lokalean ere egingo ditugu batzuk, eta azkena Arrasaten egingo dugu, Mundumira jaialdiaren barruan", azaldu du Estangak. Bide batez, elkartearen urteko batzarra ere egingo dute topaketa horren barruan. Hala, Euskal Herriko talde ezberdinetako kideak etorriko dira eta Ibarra egingo dituzten dantza saioak talde horiek gidatuko dituzte.

Kontakt inprobisazio izeneko dantza New Yorken sortu zen 1978. urtean. Kontaktua da oinarria eta hainbat tokitan musika barik ere dantzatzen dute. Maiatzaren 30ean, 31n eta ekainaren 1ean egingo dute topaketan, baina, musikarekin egingo dute.



Momentu eder guztietan



Maalako errabala 5 • ARRASATE • 943 79 19 25

Igor Ezpeleta | Mankomunitateko Garapen Agentziako presidentea

"Premisa izan da bailarako baliabideekin osatzea jaialdiaren ardatz nagusia"

Mundumiraren kamiseta solidarioak ibarreko herri guztietan daude salgai, 18 eurotan

A. ARANBURUZABALA | ARRASATE
Mundumira jaialdirako bi aste falta dira, eta azken ordukoak lotzen ari da Debagoieneko Mankomunitateko, Arrasateko Udaleko, Sua Argitaletzeko eta Ginmusica ekoiztetzeko ordezkariak osatzen duten hamar laguneko lantaldea.

Urtebeteko geldialdia egin zenuen, jaiaz hausnartzeko; zein ondorio atera zenituzten eta nola gauzatu dituzue aurtengoan?

Kultura kutsuko jai izateaz gainera, Debagoiena mundura zabaltzeko erakusleho proposa delako, bertako ekoizle, enpresa eta bestelakoen parte-hartzea handitzea beharrezkoa ikusten genuen. Horren adibide, Ekoferia antolatutako bertako enpresa, ekoizle eta elkarrekin lanean, nahiz eta aitortu behar dudan, denbora arazoak direla-eta, ez ditugula gura beste batu. Bailarako artisauei ere lekua egin diegu, eta, era berean, saiatu gara musika eskaintzan Debagoieneko artistak txertatzen. Horrez gainera, Mundumira marka gureganatzeko ahalegina egin dugu; egun, bada, Mankomunitateak, GinMusica ekoiztetxeak eta Sua Argitaletxeak partekatzen dugu. Hurrengo edizioak herriak txandakaturatuta egiten jarraitzeko asmoa dugu; aldaketak egon daitezkeen arren, hasiera baten markaturako ordena jarraitzeko proposamena egin dugu.

Behin-behineko 50.000 euroko aurrekontua. Nola banatuta?

Banaketa nagusia horrela geratuko litzateke: 23.000 euro kontzertuen gastuetarako (*Heritimo* ikuskizunaren gastuak Arrasa-



Igor Ezpeleta. | ESKORRIATZAKO UDALA

teko Udalak hartzen ditu bere gain); 8.000 euro azpiegituretarako; 3.000, komunikaziorako eta diseinurako; eta produkzio gastuetarako, berriz, 10.000 euro dira. Horrez gain, jaialdiko laguntzaileek zerbitzuak eta baliabideak ematen dizkigute; horien artean daude: Eusko Label, Goiena, Foru Aldundia, askotariko elkarrekin...

Arrasate da gune nagusia, baina bailarako ikuspegiak egituratu duzue jaialdia.

Bai; BTT eta mendi irteerak daude eta bertako turismo eskaintza ere eskura izango da; museoak eta bestelako bisita gidatuak. Era berean, garraio publikoa indartu dugu eta bizikletendako zaindutako aparkalekua ere jarriko dugu.

"Herriak txandakatuko ditugu datozen Mundumiretan"

Berrikuntzekin dator Debagoieneko X. Trikitixa Eguna maiatzaren 24an

Lekuko berria dute, kalejira erraldoia izango da eta artisauek etorriko dira

A. T. / A. A. | ARRASATE

Bailarako herri guztietatik pasata, Arrasatera dator, maiatzaren 24an, Debagoieneko Trikitixa Eguna. Hamargarren edizioa berrikuntzaz gainezka dator. Izan ere, lekuko berria daukate; trikitia eta panderoa irudikatuta dituen pieza da, eta euskarriari txertatzen zaizkion bederatzi atal dituena. Horietako bakoitzak Debagoieneko trikiti eskola bat ordezkatzen du; kalejira erraldoia egingo dute eguerdian herri guztietako trikitilariak batera, eta, horrez gainera, Herriko Plazan artisauek izango dira panderoak eta txalapartak egiten.

Berrikuntzekin, baina, betiere, 2005ean jaiotako jaialdiaren izaerari eutsita: bailarako trikiti eta pandero ikasleak motibatzea, elkarren artean ezagutzea, ondo pasatzea eta trikiti-zaletasuna bultzatu eta handitzea. Hala, bai-



Arrasateko Trikitixa Eskolakoak martitzeneko aurkezpenean. | AMAIA TXINTXURRETA

larako 200 trikitilari inguru elkartuko dira eta 300 bat izango dira bazkaltzen.

Goiz partean kalejirak egingo dituzte lau gunetan banatuta: Musakola, San Andres, Erguin eta Herriko Plaza. 13:00etan tri-

kiti eskola guztien jaialdia egingo dute plazan, eta 14:30ean Uarkapera joko dute bazkaltzera; txartelak oraindik salgai dituzte. Eta eguna bukatzeko, berriz, erromeria izango da Trikidantz taldearekin.

Ados Teatro taldearen 'Figuranteak' komedia gaur Bergaran, Zabalotegin

Asier Hormaza eta Mikel Laskurain aktoreek figurante lanetan jardungo dute oholtza gainean

A. A. | BERGARA

Marie Jones irlandarraren komedia dakar Ados Teatrotik Bergarako Zabalotegi aretora gaur, 22:00etan. Asier Hormaza eta Mikel Laskurain aktoreek *Figuranteak* (*Stones in his pockets*) antzezlan estreinatuko dute Debagoienean.

Istoriaren ardatza da Euskal Herriko herririk baketsu batera

aurrekontu handiko filma grabatzera datorren zinema ekoizle batek sortuko duen zalaparta; izan ere, "euskal zapore" bila datorren ekoizleak kolpetik aldatuko du herriko bizimodu lasaia. Hala, egoera zoro eta dibertigarri asko izango dira.

Askotariko pertsonaiei eman- gero diete bizia bi aktoreek, gorputzen mugimendua eta ahotsak



Mikel Laskurain. | ADOS TEATROA

bakarririk erabilia. Prozesu horrek ironia kutsua izango du, tragikoa dena komedia bihurtuta.

Gainbehera egingako aktoreen omenaldia da lana, sentimendu eta desioen hausnarketarekin.



MUNDUMIRA | Goiena Klubeko bazkideendako

Mundumirako sari sorta

Goiena Klubeko kidea bazara, irabaz ezazu sari hauetariko bat. Animatu eta parte hartu!



- 8 Mundumira kamiseta
- Euskal Herria Aldizkarira, urte osoko 5 harpidetza
- Euskal Herria Aldizkariaren produktuekin, 5 pack.



PARTE HARTZEKO:

Telefonoz: 943 25 05 05 E-postaz: kluba@goiena.com

WhatsApp: KLUBA [Mundumira] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

SMS: KLUBA [Mundumira] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Epea: maiatzaren 27ra arte. Irabazleen berri maiatzaren 30eko GOIENA paperean emango dugu.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketaren helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea. Eskubidea izango duzu datuak sartzeko, itzuli, zuzentzeko edo ezertzatzeko, helbide honetara idatziz: kluba@goiena.com

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Zumarraga. Etxebizitza salgai. Oso eguzkitsua. Bi logela, egongela, sukalde eta komuna. Dena kapora begira. 638 33 03 01

103. ERRENTAN EMAN

Aretxabaleta. Loramendi kalean, 60 metro koadro erabilgarri dituen etxebizitza alokagai: bi logela, egongela zabala, sukalde ederra. Behetako solairua. 540 euro hilean, berokuntza zentralerako eta ur beroko gastuak barne. 629 42 01 10

Arrasate. Hilean 540 euro-gatik guztiz jantzitako apartamentu berria elokatzeko da, Bizkaia etorbidea 2an. Pertsona bat edo birendako egokia. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 636 68 28 26

Arrasate. Hiru logelako etxebizitza ematen da errentan Erquin kalean, ikasleentzako, ikasturte bukaera arte. Guztiz jantzita. 450 euro hilean. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 606 86 71 97

Costa Ballena (Cadiz). Uztailerako eta irailerako etxebizitza errentan ematen da. Bilogela, terraza eta garajea. Hondartzatik gertu. Igerilekua. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 679 84 62 48

104. ERRENTAN HARTU

Aretxabaleta edo Arrasate. Hiru logelako etxea hartuko nuke errentan Arrasaten edo Aretxabaletan. Deitu 632 38 52 28 edo 632 17 45 11 telefono zenbakietara.

Arrasate edo Aretxabaleta. Arrasaten zein Aretxabaletan errentan 2-3 logelako etxebizitza bila gabiltzan bikote bat gara. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 674 13 91 59

Arrasate. Pertsona batendako moduko etxebizitza behar dut errentan, merke. Arduratsua naiz eta lana daukat. Blanca. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 608 07 69 45

Arrasaten edo Aretxabaletan. Altzari gabeko etxebizitza hartuko genuke errentan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 652 76 21 51

Arrasaten. Neska arduratsua naiz eta alokairuko etxebizitza bila nabil Arrasaten. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 675 00 93 22

Baserri bila Debagoienan. Kaixo! Sorluzeko hiru gazte gara eta Debagoienan baserri bila gabiltza errentan hartzeko. Baldintzen inguruan hitz egiteko prest gaude. Mila esker; plazera izango da! Interesatuok deitu telefono honetara: 645 71 50 50

3. LOKALAK

303. ERRENTAN EMAN

ESKORIATZA

Naira taberna ematen da errentan. 645 70 36 63

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Lan eskaintza. Antzuolan, hiru urteko bi ume zaindu eta etxeko lanak egiteko, esperientzia duen emakume euskaldun bat behar da. Pposible bada, Antzuola edo oso gertukoa. 606 27 87 47 edo 606 26 71 53

402. ESKAERAK

Arrasate edo Bergara. Nagusi eta umeak zaintzeko edo garbitasunak egiteko gertu nago: taberna, atari, bulego zein etxeetan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 625 86 99 51

Arrasate. Emakumea gertu nagusiak zaintzeko, etxean bertan bizizanda edo bestela. Sonia Gomez. 632 84 02 30

Arrasate. Etxeko lanak egiteko gertu. Astean behin, 4 orduz. 21:30etik aurrera deitu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 622 50 84 68

Arrasate. Nagusiak zaintzen, garbiketan edo sukaldari lanetan arituko nintzateke. Marta Cecilia Ocampo. Interesatuok deitu telefono honetara: 671 15 96 97

Bergara edo Arrasaten. Neska euskalduna haurrak zaintzeko prest larunbat, igande eta jaiegunetan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 688 61 11 01

Bergara, Arrasate edo Oñati. Erizain laguntzaile ikasketak dituen mutila nagusiak zaintzeko gertu. San Juande Diosen lan egindakoa eta esperientzia handikoa. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 610 34 97 88

Bergara. Adinertaineko emakumea, informeak dituen, goizetan umeak eta nagusiak zaindu zein etxeko lanak egiteko gertu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 610 34 97 88

Bergara. Nagusiak zaintzeko ikasketak dituen emakume batek zaintzaile lanak egingo lituzke, baita etxeko lanak ere. Orduka edo etxean bertan bizitzen. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 943 08 14 33

Bergara. Pertsona arduratsua, informe onekin, garbitasun lanetarako gertu. Interesatuok deitu telefono honetara: 696 27 25 34

Debagoiena. Bertakoneska, eskarmentuduna, gertu nagusiak zaintzeko. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 637 18 07 23

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu. Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere. GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA: PREZIO BEREZIAK GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan.

Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.

Egubakoitzean + Astelehenean: 22 € (BEZ barne).

Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

- Profesionalen moduluak.

Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).

Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

1. ETXEBIZITZAK

101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan eman
104. Errentan hartu
105. Etxeak osatu
106. Bestelakoak

2. GARAJEAK

201. Saldu
202. Erosi
203. Errentan eman
204. Errentan hartu
205. Bestelakoak

3. LOKALAK

301. Saldu
302. Erosi
303. Errentan eman
304. Errentan hartu
305. Bestelakoak

4. LANA

401. Eskaintzak
402. Eskaerak
403. Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA

501. Jaso
502. Eman
503. Bestelakoak

6. MOTORRA

601. Saldu
602. Erosi
603. Alokatu
603. Konpondu
604. Bestelakoak

7. ANIMALIAK

701. Saldu
702. Erosi
703. Eman
704. Bestelakoak

8. DENETARIK

801. Saldu
802. Erosi
803. Eman
804. Hartu
805. Trukatu
806. Galdtu
807. Aurkitu
808. Bestelakoak

9. HARREMANAK

901. Agurrak
902. Harremanak
903. Deiak
904. Bestelakoak

10. RELAX

Debagoiena. Egunerdiz lan egingo nuke, 8:00etatik 13:00era. Sukaldean ondo moldatzen naiz. Gidabaimena eta lege agiriak dauzkat. Interesatuok deitu telefono honetara: 697 66 89 20

Debagoiena. Emakume euskalduna gertu elkarteak, atariak, lokalak eta abar garbitzeko. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 686 27 45 81

Debagoiena. Emakume euskalduna prest lanerako. Klinika laguntzaile titulua daukat. Etxean bertan bizitzen, egunez edo orduka ere bai. Autoa daukat. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 688 82 69 68

Debagoiena. Erizaintza laguntzaile ikasketak dituen neska gertu nagusiak edo umeak zaintzeko etxean, ospitalean zein baserrietan. Deitu 602 51 67 28 telefono zenbakira.

Debagoiena. Neska gertu umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketan lanak egiteko. Esperientzia daukat, 15 urte egon naiz etxe batean bizitzeko garbiketarako lanak egiten eta umeak zaintzen. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 676 73 38 62

Debagoiena. Esperientzia handiko sukaldaria lanerako gertu: karta, menuak, pintxo eta ogitartekoak egiten arituko. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 666 83 21 95

Debagoiena. Neska arduratsua gertu nagusiak zaintzeko eta garbitasun lanetan jarduteko. 602 04 16 67

Debagoiena. Etxean bertan bizitzeko edo bestela lan egingo nuke. Gerokultora ikasketak ditut, Alzheimerren espezializatua. 697 41 13 86

Debagoiena. Esperientziadun emakumea prest pertsonen zaintzan lan egiteko. Arreta pertsonala. Prestakuntza sozio-sanitario zabala daukat eta erabateko disponibilitatea. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 659 17 81 01

Debagoiena. Neska arduratsua gertu hainbat lan egiteko: umeak edo adinekoak zaindu, garbiketa lanak eta abar. Tel.: 622 13 16 64

Debagoiena. Esperientziadun mutilak lan egingo nule pertsona nagusiak zaintzen, sukaldari laguntzaile lanetan edo bestelako lanetan. Dokumentuak egunean ditut. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 632 26 01 84 edo 658 74 94 63

Debagoiena. Mutil esperientziaduna nagusiak zaintzeko gertu. Etxean bertan bizitzen edo bestela. Baserrietan ere bai. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 603 14 59 17

Debagoiena. Sukalde laguntzaile, zerbitzari, nagusiak zaintzen edo garbiketan lan egingo nuke. Deitu 663 40 92 66 telefonora.

Debagoiena. Mutil langile eta arduratsua lanerako gertu. Eskarmentua dut garbitasunean eta nagusiak zaintzen. Sukalde laguntzaile ere jardun naiteke. Lege papereak eguneratuta dauzkat. 632 26 01 84 edo 658 74 94 63

Debagoiena. Mutila lanerako gertu: zerbitzari, sukalde laguntzaile, igeltsaritzako peoi eta abar. Lan beharrean nago. 625 66 36 14

Debagoiena. Nagusiak zaindu eta garbitasun lanak egiten lan egingo nuke. Sandra Milena. 634 90 87 63

Debagoiena. Mutil arduratsua, jarrera eta prestutasun handikoa, zapatu, domeka eta jaiegunetan lan egiteko gertu. Nagusiak zaindu, tabernatan, hoteletan zein diskoteketan lan egin dezaket. Informe onak dituta eta berehala hasiko nintzateke. Deitu 674 93 33 24 edo 603 29 12 07 telefono zenbakietara.

Debagoiena. Nagusiak zainduko nituzke, egunez edota gau solteak egiten etxean zein ospitalean. Gainera, etxe, atari eta abarrak garbitzen ere arituko nintzateke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 632 98 17 79

Debagoiena. Nagusiak zainduko nituzke, egunez edota gau solteak egiten etxean zein ospitalean. Gainera, etxe, atari eta abarrak garbitzen ere arituko nintzateke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 639 02 00 81

Debagoiena. Neska arduratsua eta esperientziaduna umeak zaintzeko, orduka garbiketarako, zein nagusiak lagundu edo pasean ateratzeko gertu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 695 73 87 95

Debagoiena. Neska arduratsua lanerako gertu: ume edo nagusiak zaindu eta garbitasun lanak egingo nituzke. Etxean bertan bizitzen edo bestela. 663 40 92 67

Debagoiena. Neska boliviarrak asteburuetan lan egingo nuke: nagusi edo umeak zaintzen zein orduka garbiketarako egiten. Eskarmentua dut. Cintia. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 618 14 71 34

Debagoiena. Neska euskalduna, esperientzia eta informaduna, gertu umeak zaintzeko, elkarte, bulego eta abarrak garbitzeko, edo gauak ospitalean egiteko. Autoa daukat. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 671 35 22 60

Debagoiena. Neska lanerako gertu: umeak edo nagusiak zaindu, garbitasuna eta abar. Etxean bertan bizitzen ere bai. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 673 78 08 99

Debagoiena. Neska prest gauetan lan egiteko, ospitalean edo etxeetan. Geriatria laguntzaile tituluduna. Autoarekin. 600 00 51 60

Debagoiena. Sukalde laguntzaile moduan, garbitasunean edo zaintza lanetan arituko nintzateke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 636 11 23 40

Udan haurrak zaindu. Udan haurrak zaintzeko prest nago. Neska esperientziaduna eta arduratsua. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 696 30 04 28

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO

Matematika eskolak Arrasaten. DBHko laugarren mailako matematika eskolak emango dizkidan norbait behar dut. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 669 87 24 54

Frantseseko eskolak Bergaran. Frantseseko eskolak hartu nahiko nituzke, lehenbailehen. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 690 79 68 75

7. ANIMALIAK

703. EMAN

Katakumea. Apiril hasieran jaiotako katakume zuria ematen da opari. Gorra da eta etxerako egokia izan daiteke. 663 65 76 06

Katakumeak ematen dira opari. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 666 40 65 58

Katakumeak. Apiril hasieran jaiotako katakume, maiatz bukaeran emateko prest. 663 65 76 06

Txakurkumeak. Txakurkumeak ematen dira opari Urbiako fondan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 943 78 13 16

8. DENETARIK

804. HARTU

Bizikletak. Botatzeko dagoen edo erabiltzen ez duzun bizikleta baduzu, nik jasoko nuke. Berdin da zein egoeratan dagoen. Inaki. 699 06 23 95

806. GALDU

Patinete Oñatin. Aste Santuko aurreko astean ahaztu genuen patinetea Oñatiko kiroldegiko apartokalean. Oxelo etxekoa da, beltza eta urdina. Aurkitu baduzu, deitu zenbaki hauetara. Eskerrik asko. 943 71 82 74 edo 685 75 31 29

Patinetea Arrasaten. Apirilaren 12an, arrasaldean, ahaztuta utzi genuen patinetea Arrasateko Herriko plazan. Aurkitu baduzu deitu mesedez telefono honetara (Aitor). Mila esker. 618 06 91 80

808. BESTELAKOAK

Lekuko bila. Arrasateko Deba kalean aparkatuta geneukan autokarabanan lau gurgilak zulatu dizkigute. Norbaitek zerbait ikusi badu deitu mesedez telefono hauetara: 652 75 95 44 edo 652 75 95 43

ASTEAGOIENAN



Europako hauteskundeak

Harira-n buruz buruko eztabaida saioa egingo dute martitzenean, Europako hauteskundearen gainekoa. Parte hartuko dute bai-laran nagusi diren alderdi bieta-ko hautagaiak: EH Bilduko Marian Beitialarrangoitiak eta EAJko Luke Uribe-Etxeberriak.

'Harira'
Martitzena, 22:00



Bergarako moda desfilea ikusgai

Bergaran joan den zapatuan egin zen moda erakustaldia oso-oso-rik ikusteko aukera izango duzue Goiena telebistan. Zapatuan 16:00etan eta 22:00etan eta domekan 12:00etan eta 19:00etan eskainiko dugu saioa. Astean zehar ere emitituko dugu.

'Moda desfilea'
Zapatua, 16:00

GOIENA TELEBISTA

EGUBAKOITZA, 16	ZAPATUA, 17	DOMEKA, 18	ASTELEHENA, 19	MARTITZENA, 20	EGUAZTENA, 21	EGUENA, 22
12:00 Ibilean	10:00 Kantari	10:00 Amaia DJ	12:00 Debagoiena zuzenean	12:00 Harmailatik	12:00 Atik Zra	12:00 Ikusmira
13:15 Zorion Agurrak	11:00 Debagoiena zuzenean	10:30 Kantari	13:00 Ikusmira	12:30 Tripa-zorri	13:00 Moda desfilea	12:15 Aniztasunean bizi
13:30 Erreportajea	12:00 Amaia DJ	11:00 Zorion Agurrak	13:15 Ikusmira	13:00 Ibilean	13:55 Zorion Agurrak	12:50 Atik Zra
13:30 Kantari	12:30 Zorion Agurrak	11:00 7 Akorde	13:30 Debagoiena zuzenean	13:25 Amaia DJ	14:00 Debagoiena zuzenean	13:45 Ur eta lur
14:00 Debagoiena zuzenean	12:30 Onein	11:25 Aniztasunean bizi	14:30 Berriak	14:00 Debagoiena zuzenean	14:30 Berriak	13:55 Zorion Agurrak
14:30 Berriak	13:00 Atik Zra	12:00 Moda desfilea	15:00 Tertulia	14:30 Berriak	15:00 HARRIRA	14:00 Debagoiena zuzenean
15:00 Amaia DJ	14:00 Tertulia	12:55 Zorion Agurrak	16:00 Debagoiena zuzenean	15:00 Harmailatik	16:00 Debagoiena zuzenean	14:30 Berriak
15:30 Onein	15:00 Astea iruditan	12:55 Astea iruditan	16:30 Berriak	15:30 Onein	16:30 Berriak	15:00 Moda desfilea
16:00 Debagoiena zuzenean	15:05 Debagoiena zuzenean	13:00 Debagoiena zuzenean	17:00 Kantari	15:55 Zorion Agurrak	16:30 Berriak	16:00 Debagoiena zuzenean
16:30 Berriak	15:05 Debagoiena zuzenean	14:00 Zorion Agurrak	17:30 Moda desfilea	16:00 Debagoiena zuzenean	17:00 Kantari	16:30 Berriak
17:00 Klaketa	16:00 Moda desfilea	14:05 Tertulia	18:25 Zorion Agurrak	16:30 Berriak	17:30 Tertulia	17:00 Ur eta lur
17:45 Ur eta lur	17:00 7 Akorde	15:05 Kantari	18:30 Berriak	16:55 Ikusmira	18:30 Berriak	17:30 Tertulia
18:25 Zorion Agurrak	18:00 Kantari	16:00 Ikusi irratia	19:00 Amaia DJ	17:10 Aniztasunean bizi	19:00 Harira	18:30 Berriak
18:30 Berriak	18:30 Amaia DJ	16:50 Tripa-zorri	19:30 Harmailatik	17:45 Ikusi irratia	20:00 Debagoiena zuzenean	19:00 7 Akorde
19:00 Tertulia	19:00 Debagoiena zuzenean	17:20 Amaia DJ	20:00 Debagoiena zuzenean	18:25 Zorion Agurrak	20:30 Berriak	19:30 Amaia DJ
20:00 Debagoiena zuzenean	19:55 Astea iruditan	17:45 Debagoiena zuzenean	20:30 Berriak	19:00 Moda desfilea	21:00 Debagoiena zuzenean	20:00 Debagoiena zuzenean
20:30 Berriak	20:00 Harira	18:45 Astea iruditan	21:00 Debagoiena zuzenean	20:00 Debagoiena zuzenean	21:00 Debagoiena zuzenean	20:30 Berriak
21:00 Debagoiena zuzenean	21:00 Debagoiena zuzenean	18:50 Ikusmira	21:30 Berriak	20:30 Berriak	21:30 Berriak	21:00 Debagoiena zuzenean
21:30 Berriak	22:00 Moda desfilea	19:00 Moda desfilea	22:00 Harmailatik	21:00 Debagoiena zuzenean	22:00 Moda desfilea	21:30 Berriak
22:00 Tertulia	23:00 Astea iruditan	20:00 Amaia DJ	22:30 Debagoiena zuzenean	21:30 Berriak	23:00 Berriak	22:00 Amaia DJ
23:00 Berriak	23:00 Astea iruditan	20:25 Astea iruditan	23:00 Berriak	22:00 Harira	23:30 Hauteskundeak 2014:	22:30 Debagoiena zuzenean
23:30 Gurean gaur	23:10 Ikusi irratia	20:25 Zorion Agurrak	23:30 Hauteskundeak 2014:	23:00 Berriak	Hautagaiak	23:00 Berriak
23:50 Debagoiena zuzenean	00:00 7 Akorde	20:30 7 Akorde	Hautagaiak	23:30 Hauteskundeak 2014:	00:00 Debagoiena zuzenean	23:30 Hauteskundeak 2014:
00:20 Tertulia	00:30 Debagoiena zuzenean	21:00 Tertulia	00:00 Debagoiena zuzenean	Hautagaiak	00:30 7 Akorde	Hautagaiak
		22:00 Harira	00:30 Harmailatik	00:00 Debagoiena zuzenean		00:00 Debagoiena zuzenean
		23:00 Debagoiena zuzenean		00:30 Harira		00:30 Amaia DJ

ARRASATE IRRATIA

John Anduezen azken liburua zozketatuko dugu

Datorren asteko egubakoitzeko zozketan, *San Fermi-netan*, *Lesakan* izenburua daukan John Andueza idazle arrasatearraren liburua zozketatuko dugu. Zozketan parte hartzeko deitu 943 25 05 05 telefonora edo, bestela, idatzi irratia@goiena.com helbidera. Hartu parte eta zorte on, entzule!

Asteko gainbegiratu egingo dugu zapatu eta domekan

Asteburuan 10:00etan, besteak beste, entzun ahal izango duzue bihar, zapatua, egingo den baserriarren azokari buruzko elkarrizketa. Eta asteburuan ospatuko diren Musakola auzoko jaiak buruz ere hitz egingo digu Iban Goñi auzo-alkatearekin Arrasate Irratiko uhinetan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE			
Egubakoitza, 16	ESPAÑOL MORALES	Araba Etorb., 14	943 79 18 65
Zapatua, 17	RUIZ	Nafarroa Etorbidea 1	943 79 14 09
Domeka, 18	ETXEBERRIA	Zarugalde kalea 38	943 77 16 30
Astelehena, 19	ALBERTO AZKOAGA	Ferrerias kalea 1	943 79 15 15
Martitzena, 20	M.FCA. AZKOAGA	Iturriotz 17	943 79 79 99
Eguaztena, 21	FERNANDEZ	Maisu Aranbarri kalea 1	943 79 22 26
Eguena, 22	IRIZAR	Erguin 11	943 79 12 39
BERGARA			
Egubakoitza, 16	ZABALA	Barrenkale 25	943 76 16 87
Zapatua, 17	GUALLAR	San Antonio, 5	943 76 11 05
Domeka, 18	GUALLAR	San Antonio, 5	943 76 11 05
Astelehena, 19	ESTELLA	Matxiategi 5	943 76 19 63
Martitzena, 20	MOZOS	Iparragirre 2	943 76 12 15
Eguaztena, 21	URRUTIKOETXEA	Orixondo plaza 4	943 76 11 74
Eguena, 22	ZABALA	Barrenkale 25	943 76 16 87
OÑATI			
Egubakoitza, 16	GARATE	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Zapatua, 17	GARATE	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Domeka, 18	GARATE	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Astelehena, 19	JULDAIN	Kale Barria, 6	943 78 11 28
Martitzena, 20	JULDAIN	Kale Barria, 6	943 78 11 28
Eguaztena, 21	ANDUAGA	San Lorentzo, 3	943 78 21 16
Eguena, 22	ANDUAGA	San Lorentzo, 3	943 78 21 16

Farmazien eskuko telefonoetarako 2014 egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 25600 zenbakira. Gehieneko kostua 1,9 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera, Altria TICek kudeatuta (www.altria.es).

EZTEIAK



Beñat eta Naiara

Beñat Bergaretxe eta Naiara Arkauz arrasatearrak maiatzaren 20an, martitzena, ezkonduko dira. "Familiaren, lagunaren eta, bereziki, iloba Ixoneren eta Izadiren partetik, egun on-ona pasatu eta zoriontsu izan, bikote!"



Lorea eta Markel

Lorea Galiot eta Markel San Miguel apirilaren 25ean ezkondu ziren Arrasaten. Ondoren, familiarekin bazkaria izan zuten Arteaga jatetxean. Zapatuan eztei-bidaian joango dira euren seme Aimarrekin batera. "Oso ondo pasatu genuen. Zorionak eta ondo-ondo pasatu, hirukote, familiaren partetik!"



Ainhize eta Ibai

Ainhize Gomez de Segura eta Ibai Goenaga zapatuan ezkonduko dira Bergarako Mariaren Lagundiko elizan. Ondoren, familiarekin eta lagunekin Salegi jatetxean ospatuko dute. "Familiaren eta lagunaren eta, batez ere, Kikuren partetik, zorionak, bikote! Oso ondo pasatu eguna eta ondo ibili Argentina aldean. Musu handi bat!"



Reyes eta Bixenta

Oñatiko Reyes Biain eta Bixenta Zugasti maiatzaren 15ean ezkondu ziren, orain dela 50 urte. "Zorionak, etxeko guztion partetik, eta oso ongi pasatu".

ESKER ONA



Iñaki Larrañaga Guridi



2014ko maiatzaren 4an hil zen.

Familiaren partetik, eskerrik asko, bihotzez, egunotan ondoan izan zaituztegun guzti-guztiori, hiletara etorri eta gure samina zuena egin izanagatik. Mila esker.

Odra meza zapatuan izango da, maiatzaren 17an, 19:30ean, agustindarren elizan. Aldez aurretik eskerrik asko etorriko zareten guztioi.

Oñatin, 2014ko maiatzaren 16an.

ESKER ONA



Maribi Zelaia Mendizabal



Apirilaren 30ean hil zen, Oñatin, 65 urte zituela.

Familiaren partetik, eskerrik asko egunotan ondoan izan zaituztegun guzti-guztiori, hiletara etorri eta gure samina zuena egin izanagatik. Mila esker.

Odra meza zapatuan izango da, maiatzaren 17an, 19:30ean, agustindarren elizan. Aldez aurretik eskerrik asko etorriko zareten guztioi.

Oñatin, 2014ko maiatzaren 16an.

ESKER ONA



Carlos Beitia Oruna



2014ko maiatzaren 13an hil zen, 82 urte zituela.

Carlosen familiaren izenean, eskerrik beroenak, azken egunotan, ondoan izan zaituztegun guzti-guztiori, adierazi diguzuen babes eta gertutasunagatik, hiletara etorri izanagatik eta gure samina zuena egin izanagatik. Mila esker.

Bergaran, 2014ko maiatzaren 16an.

ESKER ONA



Angel Ayastuy Ozaeta



Loren Ormaetxearen alarguna

2014ko maiatzaren 11n hil zen, 87 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno, eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2014ko maiatzaren 16an.

URTEURRENA

Amaia Mendikute Ibabe



2013ko maiatzaren 17an hil zen, 53 urte zituela.

Gurasoak: Jesus (+) eta Kontxi; anai-arrebak: Alex eta Edurne Uribarren-Iturrieta, Rosabel eta Santi Dosuna, Idoia eta Eduardo Rua-Figueroa; lobak: Mikel eta Gillen, Iune, Manex eta Naroa; etxekoak: Larraitx eta Ion Larrañaga Aranzabal; lehengusu eta gainerako ahaideek, jakinarazten dizuet:

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, maiatzaren 18an, 12:30ean, Musakolako Santa Teresa elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Arrasaten, 2014ko maiatzaren 16an.

URTEURRENA

Iñaki Bereziartua Odriozola



Arrasaten hil zen 2008ko maiatzaren 17an.

Denbora aurrera doa, aita; sei urte zu gabe, jada. Baina urteak joan ahala, aldatzen ez den zerbaite bada: zure lezioek aurrera egiteko ematen diguten indarra.

Arrasaten, 2014ko maiatzaren 16an.

URTEURRENA

Mikel Illarramendi Zabaleta

'Txitxa'



Gu sortu ginen enbor beretik sortuko dira besteak, barroka hontan iraungo duten zuhaitz adaxka gazteak.

Maite zaitugu.

Ibai, Txomin, Beñat, Peio eta Lore. Eskoriatzan, 2014ko maiatzaren 16an.

URTEURRENA

Julio Larrion Osés



Donostian hil zen, 2013ko maiatzaren 1ean.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, maiatzaren 18an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi, eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran, 2014ko maiatzaren 16an.

URTEURRENA

Nerea Altube Arrese



2013ko maiatzaren 17an hil zen, 34 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza zapatuan izango da, maiatzaren 17an, 19:00etan, Aretxabaletako parrokian.

Beti izango zara gure bihotzetan.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Aretxabaletan, 2014ko maiatzaren 16an.

HILDAKOAK

Ramon Belar Gorosabel. Bergaran, maiatzaren 10ean. 88 urte.

Anjel Aiastui Ozaeta. Bergaran, maiatzaren 11n. 87 urte.

Jesusa Biain Kortabarria. Bergaran, maiatzaren 14an. 81 urte.

Carlos Beitia Oruna. Bergaran, maiatzaren 13an. 82 urte.

Ion Errasti Alzelai. Bergaran, maiatzaren 15ean.

OROIGARRIA



Ion Errasti Alzelai



Opari eder bat izan za gure bizitzan; bidaia on, lontxu.

Mari Carmen, Jose Luis, Iñigo, Kristina, Idoia eta Paulo. Bergaran, 2014ko maiatzaren 16an.

OROIGARRIA



Nerea Altube Arrese



2013ko maiatzaren 17an hil zen, 34 urte zituela.

Beti gurekin, poxpolin.

Peñika. Aretxabaletan, 2014ko maiatzaren 16an.

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05

Egubakoitzean nahiz astelehenean argitaratzeko.

Eskelaren prezioa: 130 euro.

Egubakoitzean eta astelehenean, bietan, argitaratuz gero, 175 euro.

Goiena: irakurriena Debagoienean.

OROILORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

Hain une delikatu batek eskatzen duen errespetu, arreta eta ardura handienarekin, nire asmoa da familiari ahalik eta traturik beroena eta hurbilekoena ematea

Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure aseguru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu:

NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua AUKERA DEZAKEZULA BETI.

maribi 617 44 21 55 BERGARA



ZINEMA

ARRASATE

AMAIA ANTZOKIA

Gran Hotel Budapest
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.

La última isla
Domeka: 17:00.

OÑATI

KULTURA ETXEA

Philomena
Egubakoitz eta zapatua:
22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

EIBAR

COLISEO

Moliere en bicicleta
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

Her

Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

ANTZOKIA

Una noche en el viejo Mexico
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

GASTEIZ

BOULEVARD

Godzilla
Egubakoitzetik
martitzenera: 17:30,
20:00, 22:30.

Godzilla 3D
Egubakoitzetik
martitzenera: 20:15.

Por un puñado de besos
Egubakoitz eta zapatua:
00:40.
Zapatua eta domeka:
16:40.
Egubakoitzetik
martitzenera: 18:40,
20:40, 22:40.

Violeta. La emoción del concierto

Zapatua eta domeka:
16:00.
Egubakoitzetik domekara:
18:00, 20:00.

8 apellidos vascos
Egubakoitz eta zapatua:
23:45, 00:15, 00:45.
Zapatua eta domeka:
15:45, 16:15, 16:45.
Egubakoitzetik
martitzenera: 17:45,
18:15, 18:45, 19:45,
20:15, 20:45, 21:45,
22:15, 22:45.

Divergente
Egubakoitzetik
martitzenera: 18:30,
21:15.

Tres días para matar
Egubakoitz eta zapatua:
17:45,
20:05, 22:25, 00:45.
Zapatua eta domeka:
20:05, 22:25, 00:45.
Astelehena eta
martitzenera: 17:45,
20:05, 22:25.

Pompeya
Egubakoitz eta zapatua:
00:25.
Egubakoitzetik
martitzenera: 19:55,
22:10.

Malditos vecinos
Egubakoitz eta zapatua:
00:35.
Zapatua eta domeka:
16:35.

Capitan America
Zapatua eta domeka:
15:45.

No se aceptan devoluciones
Egubakoitz eta zapatua:
00:00.

El tour de los Muppets
Zapatua eta domeka:
16:00.

Amor en su punto
Egubakoitzetik
martitzenera: 18:15.
Epic
Zapatua: 17:30.

The amazing Spiderman 2

Egubakoitz eta zapatua:
22:45.

Aprendiz de gigolo
Egubakoitzetik domekara:
22:45.

Rio 2
Egubakoitzetik domekara:
17:55.
Zapatua eta domeka:
15:55.

Noe
Egubakoitzetik domekara:
22:00.
Astelehena eta
martitzenera: 21:10.

Las aventuras de Peabody y Sherman
Zapatua eta domeka:
15:30.

Futbolín
Domeka: 17:30.

La vida inesperada
Astelehena eta
martitzenera: 17:30.

FLORIDA

Ocho apellidos vascos
Egubakoitzetik domekara:
16:35, 18:35,
20:35, 22:35.
Zapatua eta domeka:
12:00.
Astelehena eta
martitzenera: 16:35,
18:35, 20:35.

Las aventuras de Peabody y Sherman
Zapatua eta domeka:
12:00.

Tres días para matar
Egubakoitzetik
martitzenera: 20:00.

Antonio Vega: tus voz entre otras mil
Egubakoitzetik
martitzenera: 17:30.

La vida inesperada
Egubakoitzetik domekara:
22:30.
Astelehena eta
martitzenera: 20:35.

Tren de noche Lisboa
Egubakoitzetik domekara:
18:35, 22:35.
Astelehena eta
martitzenera: 18:35.

Malditos vecinos

Egubakoitzetik domekara:
16:35, 20:35.
Astelehena eta
martitzenera: 16:35.

El viento se levanta
Zapatua eta domeka:
12:00.

Una noche en el viejo Mexico
Egubakoitzetik domekara:
17:00, 22:35.
Zapatua eta domeka:
12:00.

Los ojos amarillos de los cocodrilos
Egubakoitzetik
martitzenera: 19:45.

Hiroku y los defensores de Gaia
Egubakoitzetik domekara:
17:00.
Zapatua eta domeka:
12:00.

Por un puñado de besos
Egubakoitzetik domekara:
18:30, 20:30, 22:35.
Astelehena eta
martitzenera: 18:30,
20:30.

Rio 2
Zapatua eta domeka:
12:00.

Nueva vida en New York
Egubakoitzetik domekara:
17:30, 20:00, 22:35.
Astelehena eta
martitzenera: 17:30,
20:00.

El tour de los Muppets
Zapatua eta domeka:
12:00.

Carmina y Amen
Egubakoitzetik domekara:
17:00, 20:45, 22:35.
Astelehena eta
martitzenera: 17:00,
20:45.

Gran Hotel Budapest
Egubakoitzetik
martitzenera: 18:45.

NON-ZER

Emaguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.
Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

MUSIKA

BERGARA Petti eta Isuso Sasiia

Bi bakarleri horiek egingo dute Egubakoitzak Kartzelan egitarauko hirugarren kontzertua. Sarrera, hiru euro. Txapa Irratiak zuzenean emango du. Gaur, egubakoitz, gaztetxean, 22:00etan.

ARETXABALETA Gorka eta Eider Zabaleta anai-arreben saioa

Oiartzungo anai-arrebeek ahotsa eta gitarra protagonista dituen emanaldi goxoa egingo dute. Gaur, egubakoitz, Arkupen, 22:00etan.

OÑATI Rock metal jaialdia

Malaria, Alex Caporuscio eta Izu Nauk taldeek egingo dute emanaldia Kasablankako jaietan. Gaur, egubakoitz, Kasablanka, 22:00etan.

OÑATI Patxi Luque

2013an *Zilarrezko puja* irabazi zuen antzuolarrak kontzertua egingo du. Gaur, egubakoitz, Txaketuan, 22:30ean.

ARRASATE Disko festa

Amaia Txintxurreta DJak egingo du emanaldia. Bihar, zapatua, San Antolin plazan, 23:00etan.

ARRASATE Arrasate Musikalekoen udaberri musikaldia

Arrasate Musikaleko Lengoia Musikaleko ikasleek eta talde mistoak kontzertua egingo dute Monterronen (bihar, 13:00) eta Haize Agur orkestrak Santa Teresa elizan (bihar, 19:00). Bihar, zapatua, aipatutako ordu eta lekuetan.

ELGETA Maputxeen aldeko elkartasun kontzertua

Guaka rock taldeak herri maputxeen aldeko emanaldia egingo du. Sarrera, hiru euro. Gaur, egubakoitz, gaztetxean, 23:30ean.

ARRASATE Kajoi tabernan

Alex Caporusciok (ahotsa eta gitarr-jotzailea), Jose Gereñuk (baxu-jotzailea), Juanma Gereñuk (gita-



ARRASATE RPL eta EH Sukarra, Musokolako jaietan

San Isidro jaiak ospatuko dituzte aste bukaeran Musokolako, eta, esku artean duten egitarau zabalaren barruan, RPL eta EH Sukarra taldeen kontzertua azpimarratu behar da. Biek ala biek estudio dioko azken lanak erakutsiko dituzte.

Gaur, egubakoitz, San Antolin plazan, 23:00etan.

BERGARA 'Aberats gajoak' antzezlan

Lastima taldearen emanaldia. Diruzalekeria oinarri duen antzezlan da. Gaitz horrekin kutsatuta dagoen errege baten istorioak kontatzen dituzte. Apaltasunaren uretik edanez bakarrik senda daiteke erregea. Hori lortzeko, hainbat bizipen izango ditu. Sarrerak salgai lau eurotan.

Bihar, zapatua, Zabalotegin, 16:00etan.

MAIATZA 16
MAIATZA 22

DANTZA

ARRASATE 'Herrixa dantzan'

Portaloi Elkartearen eskutik, bueltan dator *Herrixa dantzan* egitasmoa. Oraingo ikasturtea bukatu arte, bi dantza emanaldi egingo dituzte: gaur, egubakoitz, lehena, eta ekainaren 6an bigarrena. Uarkape pilotalekuko tabernan elkartuko dira. Gaur, egubakoitz, Uarkapen, 20:15ean.

ERAKUSKETAK

ARETXABALETA Joseba

Larrinagaren omenezko erakusketa Juan Armentia argazkilariaren argazkiak daude ikusgai Arkupen erakusketa aretoan hilabete osoan. Joseba Larrinaga *Mardo*-ren omenezko erakusketa da *Kemenak* izenekoa, atleta paralinpiarra hil zela urtebete bete den honetan. Maiatzaren 31ra arte, Arkupen.

BERGARA Josue Penaren lanak

Josue Penak eskulturak, margo-lanak, argazkiak eta marrazkiak bildu ditu. Maiatzeko azken egunetara arte ikus daiteke. Maiatzaren 25era arte, Aroztegi aretoan, martitzenetik domekara.

KRITIKA

Bizi izateko sena

Paco Leon oso ezagun egin da telebistako telesail bati esker. Dena den, hori baino lehenago telebistarako beste lan batzuk egin izan ditu eta zineman ere bere tarte hartu du. Aktorea izateaz gain, zuzendari lanak egin izan ditu. Duela hilabete batzuk *Carmina y revienta* estreinatu zuen oso modu originalean: zinema aretoetan, DVDan eta Interneten aldi berean. Filmean bere amak eta bere arreba parte hartu zuten. Protagonista Carmina zen: emakume heldua, familiaren ardura berak eraman du, pertsonalitate handikoa eta bizitza zer den eta horri nola aurre egin dakiena. Filmean eguneroko bizitza ikusten zen: sortzen ziren gatazkak, ezustek eta egoera tragiko-komikoak. Horrela, bat gatzoz ikusten dugun gertakizun askorekin: bizitzan ikusten ditugun gauzak dira, baina horiek umore ukitua ematen die. Hau da, errealitateak eta esperpentoak bat egiten dute, dramaren pisua eta komediaren alde dibertigarria bateratuta.

Adierazitakoa baliagarri da *Carmina y revienta*-rako eta duela gutxi estreinatu den *Carmina y amén*-erako. Bien

CARMINA Y AMÉN ★★★★★

Zuzendaria: Paco Leon.

Herrialdea: Espainia.

Aktoreak: Carmina Barrios, Maria Leon.

egiturak antzekoak dira: aktoreen naturaltasuna, elkarrizketen grazia eta horiek esateko moduak funtsezko ezaugarriak dira. Bigarren pelikulan bizitzaren pisua gehiago nabarmentzen da. Komediak toki asko duen arren, horren azpitik bizitzak duen alde latza eta momentu horiek gaintzeak dakarren higadura nabari dira. Filmean, gizartearen maila bateko bizimodua ikus daiteke, baina, batez ere, *Carmina y amén* filmak familietako amak omentzen ditu: etxeko antolakuntzaren ardura hartzen dutenak, ezbarrei aurre egiteko gai direnak eta bizi izateko sen berezi bat erakusten dutenak. Bere familiako kide guztiengatik dena emateko prest dagoena. Hori dena ondo islatzen da, Paco Leonek istorioari tonu egokia ematen diolako eta bizitzaren kutsu tragiko-komikoa ondo harrapatzen duelako.

ANTONIO ZABALA



Asteko kultur zozketa, Elkar argitaletxeari esker

Irabaz ezazu Jon Andueza arrasatearraren "San Ferminetan, Lesakan" liburu berriaren ale bat 8 liburu ditugu zozketagai.

PARTE HARTZEKO:

SMS: KLUBA [Lesaka] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira
Telefonoz: 943 25 05 05 E-postaz: kluba@goiena.com WhatsApp: KLUBA [Lesaka]
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuen fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea.
Eskubidea izango duzu datuak sartzeko, nirek zuzentzeko edo ezabatzea, helbide honetara datuak: kluba@goiena.com

goienakluba



LASTIMA TEATRO

ANTZERKIA

BERGARA 'Figuranteak' antzezlana
Asier Hormazak eta Mikel Lascurainek bi figurante eta beste 13 pertsonaia antzezten dituzte, Carlos Zabalak zuzenduta. Sarreak, zortzi euro.
Gaur, egubakoitza, Zabalotegin, 22:00etan.

ARRASATE 'Aladdin' antzezlana
Ados Teatrok umeendako antzezlana egingo du. Aladdinek pertsonaia misteriotsu bat ezagutuko du eta aberats bihurtzeko aukera izango du, olio lanpara zaharra lortzen laguntzen badio.
Bihar, zapatua, Amaia antzokian, 17:00etan.

OSPAKIZUNAK

ARETXABALETA Euskararen Eguna
Loramendi Elkartek goizetik gauera arteko egitarau zabala prestatu du, euskararen erabilera eta garrantzia azpimarratzeko helburuarekin.
Bihar, zapatua, Aretxabaleta, 10:00etatik.

ANTZUOLA San Isidro Eguna
Askotariko ekintzak egingo dituzte; besteak beste, ganadu azoka, kukumarru erakusketa, argazki lehiaketako sari banaketa eta eskal presoan dispertsioaren aurkako *Pilotakadaz pilotakada* partiduak.
Bihar, zapatua, Antzuolan, 11:00etatik.



GOIENA

ANTZUOLA Bertso jaialdia

Antzuolako sasi-bertsolariek antolatuta, jaialdia egingo dute hainbat bertsolarik. Hain justu ere, Aitzor Iturbe antzuolarra, Andoni Egaña, Jokin Labaien, Jokin Uranga eta Alaia Martin igoko dira oholtzara. Guztiek Iraia Gabilondo antzuolarrak emandako gaiei erantzun beharko diete bertsotan.
Gaur, egubakoitza Torresoroan, 22:00etan.

ARETXABALETA Otxala Zelai eguna

Askotariko ekintzak egingo dituzte: kros egokituko Euskadiko Txapelketa, *Mardo*-ren omenezko Otxala Zelai krosa, paella txapelketa, sagardo festa, herri bazkaria eta disko festa.
Etzi, domeka, Aozaratzan, 10:00etatik.

BERTSOLARITZA

ESKORIATZA Bertso afari musikatua

Jon Martinek, Egoitz Zelaiak, Xamoak eta Egoitz Aizpuruk egingo dute bertsotan Apotzagako elkartearen.
Gaur, egubakoitza, Apotzagan, 21:00etan.

ARAMAIO Arabako Eskolartekoa

Arabako Eskolarteko Txapelketa kanporaketa. Gorbeialdeko gaztetxoek lagun arteko saioa egingo dute eta ostean, Eskolartekoaren kanporaketa.
Bihar, zapatua, Sastifian, 17:30ean.

UMEAK

ESKORIATZA Umeendako tailerrak eta jokoak

Museoen Nazioarteko Egunaren bueltan, Erroma garaiko tailerrak eta jokoak egingo dituzte neska-mutikoendako Ibarraundi museoa.
Etzi, domeka, Ibarraundin, 11:00etan.

HITZALDIAK

BERGARA Immigrazioaz berbetan
Mamadou Diak immigrazioari buruz egingo du berba.
Gaur, egubakoitza, Irizarren, 18:30ean.

ELGETA Iñigo Cabacas gogoan
Ekitaldia hasteko, *Iñigo Cabacas. Cronica de una herida abierta* ikus-entzunezkoa emango dute eta ostean, Iñigoren lehengusu Oier Amorrortuk eta Irma Oroz-kok berba egingo dute.
Gaur, egubakoitza, gaztetxean, 18:30ean.

OÑATI 'La crisis de la biodiversidad' hitzaldia
Miguel Delibes de Castro biologo eta zientzilariak egingo du. Miguel Delibes idazlearen semea da.
Bihar, zapatua, kultura etxean, 12:00etan.

SALMENTA

ARRASATE Ozenkiren kontzertuetarako sarrerak
Ozenki Lirika Elkartek bi kontzertu egingo ditu datozen egunetan: hilaren 24an musika sakroa oinarri izango duena (Montserrat Sanchez sopranoarekin); eta ekainaren 3an boleroak nagusi izango dituena. Azken horretan, Trio Medianoche izango da protagonista. Bietarako sarrerak salgai daude Kutxabanken, udal webgunean, Amaia antzokian eta elkartearen egoitzan. 15 euro.
Goian aipatutako egun eta lekuetan.

Zerbait aldatzen ari da ARRASATEN

Aukera berriak!
Izan haien berri gure webgunean
www.sukia.com

ONGI
ETORRI

Bista ederrak
Atikoak 198.000 €-tik
hasita

Zatoz eta hitz
egingo dugu **600 902 224**





goiena

2014-05-16

BUKATZEKO

Oñatiarra, bigarrenenez Eurovisionen

- Kopenhageko Eurovision jaialdian izan da Iban Albizu; iaz Suedian izan zen jaialdi hori ikusten
- Ikuskizunaren handitasunak zur eta lur utzi zuen iaz Oñatiarra; aurtengoa are itzelagoa izan da

MIREN ARREGI | OÑATI

Erabateko poza islatzen duen irribarrea ateratzen zaio Iban Albizu oñatiarrari Kopenhagen izan den Eurovision jaialdiaz galdetuta. Han igaro ditu joan den eguaztenetik domekara arteko egunak: "Bigarren finalerdian, finaleko entseguan eta finalean izan nintzen", dio Albizuk. Izan ere, Eurovision ez da, askok uste duten moduan, egun bateko jaia: "Zaleondako Eurovisionek urte osoa irauten du. Bi hilabete barru esango dute zein hiritan egingo den 2015ekoa. Udazkenean hasiko dira herrialdeak hautagaiak aukeratzeko, batzuek jaialdi bidez egingo dute... Guretzat urte osoko zita da".

Iaz izan zen lehenengoz Eurovision jaialdian, Malmon, Suedian: "Beti aritzen ginen, txantxetan, lagun bat eta biok... Suediak irabazten zuenean joan egingo gine-la. 2012an Azerbaijanen irabazi zuen Suediak. Hurrengo urtean, esan bezala, laguna ez, baina ni Eurovisionera joan nintzen", dio Albizuk. Hala, jaialdiaren jarraitzaile zena jarraitzaile sutsu bilakatu zen: "Han bizi izandakoak kontatzea ez da erraza. Emozio asko dira. Dena da ikusgarria, izugarria, sinestezina".



Iban Albizu, iazko Estoniako hautagaiarekin, Birgit abeslariarekin.

Ondoko argazkian, Conchita Wurst, 2014ko irabazlea, Albizu eta lagunendako posatzen.

Aurtengo sarrera eta iazko fan akreditazioa.

Puntako ikuskizuna

Eurovision jaialdia telebista ikuskizun bat da eta horretarako prestatuta dago: "Muntaia izugarria da: puntako teknologiak erabiltzen dira agertokia eta eszenaratzea bikainak izan daitezten, eta beti gura izaten da aurreko urtekoa hobetu. Lanak izango ditu datorren urtean Austriak aurtengoa hobetzen". Eta gaineratu du: "Telebista saio bat izan



AITOR BELASTEGI

arren, bertatik bertara ikustea itzela da. Bizi behar da hori".

Aurtengo jaialdiko irabazleagatik galdetuta, honakoa dio: "Hara joan aurretik nituen iritziak aldatu egin dira. Egueneko finalerdian Conchita agertokira irten zenean jakin nuen irabazlea zela. Ondo abesten du, baina aurtengo aldarri batek irabazi du: tolerantziaren, desberdina denarenarekiko errespetuaren aldeko aldarriak".

AZKEN BERBA

MIKEL IRIZAR



Debagoienaren Eguna

Joan den larunbatean ospatu genuen Debagoienaren I. Eguna, San Prudentzian. Iazko Toberak Bergara zigortu zuen Arrasate eta Oñatirekin batera egun hori antolatzea eta larunbatekoarekin bete zen epaia. Aldarri nagusia zen Debagoienaren epizentroa ez dagoela herri horietako plazetan, baizik eta Elorregi auzoan, hiru herriek bat egiten duten lotunean. Hain justu, han landatu genuen pago bat eta plaka adierazgarria jarri.

Toberetako arropak janztea besterik ez genuen behar izan bakoitza bere rolean sartzeko, eta, behin ekitaldia amaituta, giro ederrean ospatu genuen eguna eta apetitu onez jan auzoko lagunek elkartean prestatu ziguten bazkaria.

Fartsa itxuran ari da garatzen dinamika hau, baina bere edukia oso serioa da; alegia, hobe duela Debagoienak batera jokatzeko, ez badu nahi urte ez askoren bueltan industrialde soilean bihurtu eta lan-orduz kanpo hutsik geratu.

Arazoaz jabetu garen seinale litzateke urtebete barru, bigarren Eguna ospatzen dugunean, bertan izatea gizarte ordezkariak eta politikariak, garapen sozialerako egitasmo indartsu batekin. Fartsa itxuran bada ere.

RPS: 68/14



PHONO GUNE
otorrinologikoa klinika

HEMEN GAUDE:

Udalaitz Mediku Zentroa

Euskal Herria Plaza 3 ARRASATE – 943 79 44 22

Urbieta Mediku Zentroa

Urbieta kalea 58 DONOSTIA – 943 47 01 44

Otorrinologikoa kontsulta berria ARRASATEN (Udalaitz Mediku Zentroan)

Juanjo Navarro eta Mikel Landa doktoreak

Azterketa diagnostikoa teknologia aurreratuarekin eta ENTZUMEN, SUDUR, EZTARRI eta LEPOko gaixotasunen tratamendu mediku-kirurgiko integrala:

- Gortasuna, zorabioak (bertigoak) eta akufenoak
- Arnasteko zailtasunak. Errinoplastia estetikoak
- Zurrungen eta loaren apnearen tratamendua.
- Ahotsaren patologia eta otorrinologikoa pediatrikoa